



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

82e2cf25c4b163185ff469a14f3ddddb822a3221f104a9f3262b504e1237d06a

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO MAIATZAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.05.26

Tolosako Udaletxean, 2022ko maiatzaren hogeita seian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Haurren hiria. Mintza Txokoa. Tolosako Udalbatzari azaltzea landutako proposamenak eta Tolosako herriari ezagutaraztea ikasturtean landutakoa.
2. Akta hau onartzea: 2022ko maiatzaren 5eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
3. Onartzea 2022/2023 ikasturteko prezio publikoen aldaketak: Euskaltegia, kultur tailerrak eta Musika Eskola.
4. Onartzea Emeterio Arrese Zentro Sozio-kulturaleko tabernako prezioen eguneraketa.
5. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
6. Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinaren aldaketari.
7. Onartzea 2022/4 kreditu aldaketaren espedientea, kreditu transferentziaren modalitatekoa.
8. Hasierako onarpena ematea 5/2022 kreditu aldaketaren espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
9. Onartzea Tolosako Udalak sortzea bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako zerbitzua, berariazko zerbitzu publiko gisa.
10. Onartzea Tolosako Usabal kirolegiko kudeaketa kontratuaren 2021. urteko ustiapen kontuko kanon aldagaiaren likidazioa.
11. Behin betiko onarpena ematea Tolosako Udaleko Gobernantza, parte hartze eta gardentasun ordenantzari.
12. 2022/3 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
13. 2022/6 kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu txertaketen modalitatekoa.
14. Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioaren onarpenaren berri ematea.
15. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. HAURREN HIRIA. MINTZA TXOKOA. TOLOSAKO UDALBATZARI AZALTZEA
LANDUTAKO PROPOSAMENAK ETA TOLOSAKO HERRIARI
EZAGUTARAZTEA IKASTURTEAN LANDUTAKOA.**

Alkateak hurrei ongi etorria eman ondoren, ikasturtean egindako lana eskertu die eta beren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu. Tolosako Haurren Hiriaprogramaren partaide diren, Herrikide, Laskorain eta Felix Samaniego ikastetxeetako ordezkariak



ikasturtean zehar egindako lanaren ondorioak azaldu dituzte eta jarraian, lanaren laburpen bideoa aurkeztu dute.

Tolosako haur ordezkariak honako ekarpena egin dute:

I ATALA: ikasturtean zehar egindako lanaren laburpena.

- 1. Kaixo! Egun on guztioi, gu Tolosako haur ordezkariak gara eta Haurren Hirian egin duguna kontatzera gatoz.*
- 2. Ikasturte honetan hiru aldiz elkartu gara. COVIDarengatik bilerak ikastetxean izan dira, ezin genuen beste eskolako haurrekin elkartu.*
- 3. Hiru saio horietan gure iritzia emateko aukera izan dugu Tolosan dauden eraikinak hobetzeko.*
- 4. Haurrentzat gauzak dituzten eraikin guztiak aztertu ditugu: liburutegia, Topic, kiroldegia... eta Tolosan haurrentzat espazio bat egitea proposatu nahi dugu.*
- 5. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haurren artean espazio hori nolakoa izan daitekeen pentsatu dugu.*
- 6. Horretarako, beste herrietan dauden espazioak begiratu ditugu eta Tolosarako nahi duguna pentsatu dugu.*
- 7. Haurren espazioaz aparte baditugu beste ideia batzuk herria hobetzeko: kirola egiteko aukera gehiago eta haur handientzako parke bat: tirolinak, parkour...*
- 8. Ideia hauek azaroan egin genuen bileran landu genituen, azaroaren 20an ospatzen den haurren eskubideen egunaren bueltan.*
- 9. Bilera hau 10 gela ezberdinetan egin zen, eta gutxi gora behera Tolosako 250 haurren ideiak jaso ziren.*
- 10. Bigarren bilera urtarrilean egin genuen eta gela bakoitzean gure ametsetako espazioaren maketak sortu genituen.*
- 11. Haurrentzat espazio bat egiteko gauza asko erabili daitezke, eta taldeka eserita, maketa ezberdinak pentsatu eta diseinatu genituen.*
- 12. Martxoan hirugarren bilera egiteko elkartu ginen. Bilera honetan gela bakoitzeko ordezkariak elkartu ginen.*

II ATALA: herriaren egoera hobetzeko proposamenen aurkezpena.

- 13. Tolosan leku bat eskatzen dugu lagunekin egoteko eta jolasteko aukera ezberdinak izateko: leku lasaia, antzoki txikia, bideo-jokoak, sukalde tailerra, etabar.*
- 14. Talde txikitik maketa ezberdinak sortu ditugu. Denon artean 50 maketa eredu sortu baditugu ere, hainbat gauza errepikatzen direla ikusi dugu.*
- 15. Gela batean lagunekin egoteko aukera, txoko lasaia, saloi moduko bat eseritzeko puf-ekin eta musika entzuteko aukerarekin.*
- 16. Txoko batean liburuak, ordenagailuak, play5ak eta telebista ikusteko aukera.*



17. *Beste gela batean eskulanak egiteko aukera, mahaiak eta aulkiak, monitore batekin eskulan ezberdinak nola egiten diren ikasi.*
18. *Beste gela batean mozorroak eta antzerkia egiteko aukera. Monitore batekin gure antzerkiak sortu.*
19. *Antzoki txiki batean guk gure antzerkiak egin edo pelikulak ikusteko aukera baitare.*
20. *Beste gela batean koltxonetak eta psikomotrizitate gelan izaten ditugun gauzak (bolak, txurroak, etabar), baita ohe elastiko txikiak ere.*
21. *Espazioaren kanpoaldean lekua dago futbolean eta saskibaloian aritzeko, horretarako porteriak eta saskiak beharko ditugu.*
22. *Haurren espazioan landareak egongo dira eta gu landareak ureztatzeaz arduratuko gara.*
23. *Kanpoaldean ere landareak izango dira eta baratza / zuhaitzak landatzeko aukera izango dugu.*
24. *Haurren espazioan komunak eskatzen ditugu baita jatetxea edo zerbait jateko / edateko aukera ere. Eskerrik asko gure ideiak kontuan izateagatik! Hurren arte!!*

Udaleko hiru talde politikoen ordezkariak adierazi dute haurrak egindako ekarpenak oso interesagarriak eta aberasgarriak direla eta Tolosako Udalak kontuan hartuko dituela aurrera eraman beharreko plangintzak zehazteko momentuan.

Haur ordezkariari Tolosako Haurren Hiria programaren diploma banatu die alkateak, eta ondoren talde argazkia atera da.

Modu berean, Mintza Txokoan parte hartu duten udal ordezkari guztiei Tolosako Haurren Hiria programaren buletina banatu zaie, paperezko formatuan eta ikasturtean jorraturiko gaia eta metodologia azaldu, baita familiek egindako ekarpena ere. Hurrek egindako lanarengatik eskerrak emanez, Mintza Txokoari amaiera eman zaio.

2. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO MAIATZAREN 5EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



3. ONARTZEA 2022/2023 IKASTURTEKO PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETAK: EUSKALTEGIA, KULTUR TAILERRAK ETA MUSIKA ESKOLA.

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko
irizpena**

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Xedea: 2022-2023 ikasturteko prezio publikoen aldaketak onartzea: Euskaltegia, kultur tailerrak eta Musika Eskola.

Espediente zenbakia: 2022ORFI00004

2.- AURREKARIAK

2021eko apirilaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak, urtero bezala, 2021-2022 ikasturteko prezio publikoen aldaketak onartu zituen.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honako hau xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- *Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.*
- *Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*

4.- PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETEN PROPOSAMENA

Tolosako Udaleko prezio publikoen 3. eranskin aldatzea diktaminatzen da:

- 3.1.6 eranskina: Musika Eskola
- 3.1.7. eranskina: Kultur tailerrak
- 3.1.8 eranskina: Euskaltegia

3.1.6 eranskina: MUSIKA ESKOLA

- Prezio publikoa % 2,5 igotzea diktaminatzen da.



	2021-2022		IGOERA % 2,5	
	OROKORRA	TARIFA TOLOSA	OROKORRA	TARIFA TOLOSA
1. maila	285,36	190,91	292,49	195,68
2. maila	854,04	566,37	875,39	580,53
2.maila solfeorik gabe	565,63	377,77	579,77	387,21
3. maila	1023,62	684,45	1.049,21	701,56
3. maila osagarririk gabe	711,87	474,24	729,67	486,10
4. maila				
a) Musika taldea	142,17	95,46	145,72	97,85
b) instrum + musika taldea	565,63	377,77	579,77	387,21
Ikasle errfortzatuak	1308,98	874,35	1.341,70	896,21
Ikasgai teorikoak	285,36	190,91	292,49	195,68
Bigarren instrumentua	285,36	190,91	292,49	195,68

- Bestalde, Kultura eta Festak Azpisailak 3 proposamen hauek egin ditu, data batzuk aldatzeko:

1. proposamena: gaur egun, 2. artikulua honako hau dio:

«2. *Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edo berritze automatikoarekin, sortuko da.*

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak Udaten, dagokion formularioa bete eta kontrakorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, maiatzaren 31aren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari».

PROPOSAMENA: maiatzaren 31 beharrean, ekainaren 23a jartzea. Honela geratuko da:

«2. *Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edo berritze automatikoarekin, sortuko da.*

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak Udaten, dagokion formularioa bete eta kontrakorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 23aren aurretik. Hala egiten ez badu, Udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari».

2. eta 3. proposamena: 3. artikulua honela dio:

«*Ordainketa. Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:*

a)...

b)...

c) % 20 otsailaren 1etik 15era (3. kuota).

...



2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordainketa epearen aurreko hilabetea, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 1a».

PROPOSAMENA: 3. kuota otsailaren 15etik 28ra izatea. Eta, ondorioz, ez ordaintzeko eskaera urtarrilaren 15era atzeratuko litzateke. Honela geratuko da:

«Ordainketa. Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

a)...

b)...

c) % 20 otsailaren 15etik 28ra (3. kuota).

...

2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordainketa epearen aurreko hilabetea, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 15a.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulketa eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulketa ikasturtea hasi aurretik eskatu behar da.
- 2. eta 3. kuotak ez ordaintzeko eskaera bakoitzaren ordainketaren aurreko hilabetean egin behar da, eta azken egunak urriaren 15a eta urtarrilaren 15a dira».

3.1.7 eranskina: KULTUR TAILERRAK

Prezio publikoa % 2,5 igotzea diktaminatzen da.

	2021-2022		IGOERA % 2,5	
	OROKORRA	TARIFA TOLOSA	OROKORRA	TARIFA TOLOSA
Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak	294,5	195,99	301,86	200,89
Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak	216,3	144,2	221,71	147,81
Zeramika ikastaroa,urteko	294,5	195,99	301,86	200,89
Antzerki ikasturtea	264,5	174,67	271,11	179,04
Argazkigintza (100 ordu)	354,41	235,6	363,27	241,49
Balleta	225,44	149,28	231,08	153,01
Baleta aurreratua	295,51	204,12	302,90	209,22
Balleta puntak	85,3	55,85	87,43	57,25
Dantza garaikidea	295,51	204,12	302,90	209,22
Egur taila	294,5	195,99	301,86	200,89
Ehoziariak eta patchwork	294,5	195,99	301,86	200,89

3.1.8 eranskina: EUSKALTEGIA

Prezio publikoa % 2,5 igotzea diktaminatzen da.



		2021-2022	IGOERA %2,5
1. 344 ordu	Matrikula	419,68	430,17
	Materiala B2	34,00	34,85
	Materiala C1	47,00	48,18
2. 274 ordu	Matrikula	334,28	342,64
	Materiala B2	27,00	27,68
	Materiala C1	46,00	47,15
3. 206 ordu	Matrikula	251,32	257,60
	Materiala B2 alfabetatzen	19,00	19,48
	Materiala C1	32,00	32,80
	Materiala C2	175,00	179,38
4. 170 ordu	Matrikula	207,40	212,59
	Materiala B2 alfabetatzen	16,00	16,40
	Materiala C1	27,00	27,68
	Materiala C2	146,00	149,65
5. autoikaskur	Matrikula A1-A2-B1	621,30	636,83
	Matrikula B2-C1-C2	657,40	673,84

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol , Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Prezio publikoen ordenantzako 3.1.6, 3.1.7 eta 3.1.8 eranskinak aldatzea, lehen azaldutako aldaketekin.

BIGARRENA.- Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean 2022-2023 ikasturterako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier



Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu 2022/2023 ikasturteko prezio publikoen aldaketak: Euskaltegia, kultur tailerrak eta Musika Eskola.

4. ONARTZEA EMETERIO ARRESE ZENTRO SOZIO-KULTURALEKO TABERNAKO PREZIOEN EGUNERAKETA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

2022ko apirilaren 12an Gizarte Zerbitzuetako Sailak Emeterio Arreseko tabernako prezioak eguneratzeko txostena egin zuen. Honako hau dio hitzez hitz:

«2022ko martxoaren 18ko datarekin aurkeztu du Tolosako Udalaren erregistroan (3536 zenbakiarekin) I.J.E.Ik Emeterio Arrese Zentro Soziokulturaleko tabernako prezioak eguneratzeko proposamena.

2006ko apirilaren 7ko datarekin sinatu zen Tolosako Udalaren eta Ignacio Jose Etxeberria Insaustiren artean, Tolosako Zentro Sozialaren taberna ustiatzeko kontratua, horretarako egindako lehiaketan hartutako erabakiaren arabera. Kontratuak 15 urteko iraupena zuen, baina hori beste 5 urtez luzatzea erabaki zen 2021eko otsailaren 25eko Ohiko Osoko Bilkuran, kontratuaren indarraldia 2026ko apirilaren 6artekoa izango delarik.

Prezioei dagokionez, kontratuan honako hau xedatzen da:

- 14.f. "kontratudunak bazkariak zein afariak zerbitzatu ahal izango dizkie bazkide direnei. eta ez direnei; jubilatuentzat prezioen zerrenda bat jarriko du eta horko prezioak herrialdean antzeko instalazioetan ezarritako prezioen berdina izango dira, eta gainontzeko bezeroentzat beste prezio zerrenda bat jarriko du."

- 14.i. "Zentroan saltzen diren gai guztiak kalitate gorenekoak izango dira, eta horientzako Udalak ezarriko dituen prezioak ezin izango dira inolaz ere gaintitu."... "Prezioak Tolosako Udalak beste inork ezin izango ditu aldatu, eta Udalak bere tutoretzan daukan gizartearen interesaren arabera jarriko ditu prezioak".

Ustiaketa kontratu hori sinatu zenetik, 5 aldiz eguneratu dira bertako prezioak: 2007ko urtarrilaren 29an, 2008ko martxoaren 3an, 2010eko martxoaren 22an eta 2016ko ekainaren 13an Gobernu Batzordeak hartutako erabakietan; eta azken aldiz, 2019ko azaroaren 20an alkate dekretu bidez hartutako erabakiaren bidez, hain zuzen ere.



Ikusirik kontratuan ez dela zehazten prezioak eguneratzeko formula objektiborik, eta inguruko herrietako zentro sozialetako prezioekin alderatzea ezinezkoa dela (batetik, ustiapen kontratuetak baldintzak ezberdinak direlako, bestetik, eskaintzen den zerbitzua ere desberdina delako, eta azkenik, kontsumo ohiturak ere desberdinak direlako), Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentutik aztertu ditugu prezioak eta ondorengo hausnartu dugu:

Egin duten proposamenean produktu batzuen eta besteen prezioa portzentajea desberdinean eguneratzen dela ikusi da. Hori, bat dator proposamenaren amaieran adierazten den azalpenarekin: "Nuestra propuesta es no aplicar un descuento lineal a todos los productos, si no aplicar un decuento variable según productos siguiendo criterios de mercado y de moderación en la subida efectiva en algunos productos de consumo habitual. Creemos que es mucho mejor, porque se aplica conteniendo la subida de precios de muchos productos que si no, al aplicar un descuento lineal, se dispararían de precio para los jubilados".

Era berean, azalpen hori argudiatzeko, aurkeztu dute beraiek jasaten ari diren kostuen garestitzearen taula adierazgarria, zerbitzua emateko beharrezko dituzten produktuen garestitzea ere ez dela lineala izan argituz (egin duten taulan ageri da igoerak 0,15 €-tik hasi eta 2,35 € arterainoko diferentzian garestitu direla).

Azkenik, esan behar da hobaridun prezioak eguneratzeko aurkeztu duten taulan 2021eko prezioa jarri dutela igoera eginda ere prezio bereziek hobaria bermatua dutela erakusteko. Horrekin batera, gaur bertan izandako telefono bidezko elkarrizketan adierazi dute prezio arruntetako batzuk garestitu dituztela dagoeneko, eta ari direla pixkanaka merkatuaren beharretara egokitzen zerbitzua, ustiapena errentagarria izan dadin zainduz (inguruko ostalaritza alorraren garapen erritmoan).

Era berean, adierazi zaie garrantzitsua dela prezioen proposamena Harizpe elkarteko zuzendaritza-taldearekin jorratzea, eta arduradunek hitza eman dute aste honetan bertan jakinaraziko dietela elkarteko arduradunei Udalari proposatutako prezioen zerrenda berria.

Amaitzeko, emandako azalpen horiekin guztiarekin batera, zerbitzuaren ustiatzaileak jakinarazi du aurreikusten dutela prezioek igotzen jarraitu beharko dutela, eta horretarako malgutasuna eskatu du».

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol , Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hau dela eta hau, batzordeak



DIKTAMINATU DU

LEHENENGOA.- Bide ematea I. J. E. I.k, Emeterio Arreseko Zentro Soziokulturaleko tabernaren ustiatzaileak, prezioak eguneratzeko egindako proposamenari. (I. eranskina)

BIGARRENA.- I. J. E. I.ri jaunari jakinaraztea hobaria duten prezio hauek berrikusteko beharra sortzen zaienean, dagokion eskaera aurkeztu behar duela Tolosako Udalaren Erregistroan, eskaera hori justifikatzen duten azalpenekin batera.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Onartzea Emeterio Arrese Zentro Soziokulturaleko tabernako prezioen eguneraketa.

5. ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 3.3 lerroa aldatzeko eta 6.12 lerroa gehitzeko proposamena jaso da.

3.3 lerroan, proposatzen da Udaberri Dantza Taldearen dirulaguntza gehitzea, jarduera berezietarako dena. Horrela uztea proposatzen da:



Dirulaguntza lerroa: 3.3.- Kultur jarduerak

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Elkartek eta banakakoak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartearen sendotasuna eta saretzea sustatzea. - Aisialdia era positibo eta osasungarrian bultzatzea. - Kultur sorkuntzaren hedapena sustatzea. - Era desberdinetako formazio ez arautua laguntzea. - Ondarearen babesa, errekuperazioa eta zabalkundea sustatzen duten eragileak laguntzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Kultur eskaintza handiagoa izan eta bertako elkarteak indartzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	<p>Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.</p> <p>Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea..</p>
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionaeritasuna. - Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera. - Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.481.01.334.10	AZKEN MUGA ELKARTEA	Programazio berezia	4.000 €	Izenduna	12.000 €
0800.481.01.334.10	ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA	Urteurrena	10.000 €	Izenduna	10.000 €
0800.481.01.334.10	UDABERRI	Funtzionamendu gastuak	8.000 €	Izenduna	24.000 €
0800.481.01.334.10	HODEIERTZ	Funtzionamendu gastuak	8.500 €	Izenduna	25.500 €
0800.481.01.334.10	HARITUZ	Bertsolaritza sustatzea	6.000 €	Izenduna	18.000 €
0800.481.01.334.10	Irabazi asmorik gabeko erakundeak	Urteurrenak	5.000 €	Izenduna	5.000 €
0800.481.01.334.10	UDABERRI	Jarduera bereziak	10.000 €	Izenduna	10.000 €

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.481.01.334.10	OHIZKOAK	Kultura	26.000 €	Norgehiagoka	78.000 €

Aurrekoaz gain, ondorengo dirulaguntza lerroa gehitzea proposatzen da:

Dirulaguntza lerroa: 6.12 Enplegu sustapena

Eskumen arloa	Garapen ekonomikoa
Sektore hartzaileak	Tolosako Inmakulada Ikastetxea S.Coop
Helburuak	Pertsonen zaintza profesionalizatzeko helburuarekin, 2017ko abendutik hona, zerbitzu arlo horretan lan egiten duten pertsoneri, nagusiki emakumeei, etxeetan edo erakundeetan lana egiteko ziurtagiri profesional bat exijitzen zaie. Eta, familiek ziurtagiria ez duten langileak kontratatzen badituzte, GFAk familiei ematen diete D.L galtzeko arriskua dute. Gauzak horrela, ziurtagiri hori ateratzeko erraztasunak ematea du helburu Tolosako Udalak Inmakulada ikastetxearekin batera.
Lortu nahi diren ondorioak	Ziurtagiri profesionalak lortzen laguntzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Udaletxea eta Lanbide
Ekintza Plana	Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea..
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentziona garritasuna. - Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera. - Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.01.430.00	Inmakulada ikastetxea	Formakuntzaren programa	13.447€	Izenduna	13.447€

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik, dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Ander Figuerido Zubiria (EH-Bildu): Aldeko botoa
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH-Bildu): Aldeko botoa
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH-Bildu): Aldeko botoa
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE) : Aldeko botoa
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Begoña Tolosa Mendia (EAJ): Aldeko botoa
Xarles Iturbe Pasaban(EAJ): Aldeko botoa

Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.-3.3 lerroko aldaketa onartzea eta 6.12 lerroa gehitzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Honela geratuko lirateke dirulaguntza lerroak:



Dirulaguntza lerroa: 3.3.- Kultur jarduerak

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Elkartek eta banakakoak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartearen sendotasuna eta saretzea sustatzea. - Aisialdia era positibo eta osasungarrian bultzatzea. - Kultur sorkuntzaren hedapena sustatzea. - Era desberdinetako formazio ez arautua laguntzea. - Ondarearen babesa, errekerazioa eta zabalkundea sustatzen duten eragileak laguntzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Kultur eskaintza handiagoa izan eta bertako elkarteak indartzea.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	<p>Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.</p> <p>Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea..</p>
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionagarritasuna. - Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera. - Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.481.01.334.10	AZKEN MUGA ELKARTEA	Programazio berezia	4.000 €	Izenduna	12.000 €
0800.481.01.334.10	ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA	Urteurrena	10.000 €	Izenduna	10.000 €
0800.481.01.334.10	UDABERRI	Funtzionamendu gastuak	8.000 €	Izenduna	24.000 €
0800.481.01.334.10	HODEIERTZ	Funtzionamendu gastuak	8.500 €	Izenduna	25.500 €
0800.481.01.334.10	HARITUZ	Bertsolaritza sustatzea	6.000 €	Izenduna	18.000 €
0800.481.01.334.10	Irabazi asmorik gabeko erakundeak	Urteurrenak	5.000 €	Izenduna	5.000 €
0800.481.01.334.10	UDABERRI	Jarduera bereziak	10.000 €	Izenduna	10.000 €

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.481.01.334.10	OHIZKOAK	Kultura	26.000 €	Norgehiagoka	78.000 €

Dirulaguntza lerroa: 6.12 Enplegu sustapena

Eskumen arloa	Garapen ekonomikoa
Sektore hartzaileak	Tolosako Inmakulada Ikastetxea S.Coop
Helburuak	Pertsonen zaintza profesionalizatzeko helburuarekin, 2017ko abendutik hona, zerbitzu arlo horretan lan egiten duten pertsoneri, nagusiki emakumeei, etxeetan edo erakundeetan lana egiteko ziurtagiri profesional bat exijitzen zaie. Eta, familiek ziurtagiria ez duten langileak kontratatzen badituzte, GFAk familiei ematen diete D.L galtzeko arriskua dute. Gauzak horrela, ziurtagiri hori ateratzeko erraztasunak ematea du helburu Tolosako Udalak Inmakulada ikastetxearekin batera.
Lortu nahi diren ondorioak	Ziurtagiri profesionalak lortzen laguntzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Udaletxea eta Lanbide
Ekintza Plana	Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea..
Jarraipena eta ebaluazioa	- Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionagarritasuna. - Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera. - Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.01.430.00	Inmakulada ikastetxea	Formakuntzaren programa	13.447€	Izenduna	13.447€

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier



Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia irten egin da batzar aretotik. Bateriaezintasun-arazoengatik hurrengo bi gaietan, 6. eta 7. puntuetan, ez du parte hartu.

6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETARI.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

2022ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0800.481.01.334.10	CIT	Jarduerak eta TOPICen kudeaketa	8.000 €	Izenduna
1100.471.01.430.00	INMAKULADA IKASTETXEA	Formakuntza programa	13.447 €	Izenduna
0800.481.01.334.10	UDABERRI DANTZA TALDEA	Jarduera bereziak	10.000 €	Izenduna
0900.481.01.335.10	ENPRESAK	Erabilera lan munduan	- 350 €	Konpetentzi lehiakorra
0900.481.01.335.10	UEMA	Urteko ekarpena	350 €	Izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak:

Ander Figuerido Zubiria
Estitxu Kortejarena Ugarte
Garbiñe Marzol Ormazabal
Jose Mari Villanueva Telleria
Xabier Balerdi Tolosak
Begoña Tolosa Mendia

Xarles Iturbe Pasabanek ez du parte hartu bozketan.



Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehen.-Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinetako aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0800.481.01.334.10	CIT	Jarduerak eta TOPICen kudeaketa	114.000 €	Izenduna
1100.471.01.430.00	INMAKULADA IKASTETXEA	Formakuntza programa	13.447 €	Izenduna
0800.481.01.334.10	UDABERRI DANTZA TALDEA	Jarduera bereziak	10.000 €	Izenduna
0900.481.01.335.10	ENPRESAK	Erabilera lan munduan	8.650 €	Konpetentzi lehiakorra
0900.481.01.335.10	UEMA	Urteko ekarpena	24.350 €	Izenduna

Bigarrena.- 2022ko dirulaguntzen eranskinetako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio dirulaguntzen eranskinaren aldaketari.



7. ONARTZEA 2022/4 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA, KREDITU TRANSFERENTZIAREN MODALITATEKOA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 4/2022 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena egin da.

Hau da proposamena:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1100.226.06.432.00 2022	JARDUERAK SOZIO KULTURALAK TURISMOA	20.000,00	8.000,00	12.000,00
	GUZTIRA	20.000,00	8.000,00	12.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0800.481.01.334.10 2022	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA	173.500,00	8.000,00	181.500,00
	GUZTIRA	173.500,00	8.000,00	181.500,00

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostenean adierazten da aipaturako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak:

Ander Figuerido Zubiria
Estitxu Kortejarena Ugarte
Garbiñe Marzol Ormazabal
Jose Mari Villanueva Telleria
Xabier Balerdi Tolosak
Begoña Tolosa Mendia

Xarles Iturbe Pasabanek ez du parte hartu bozketan.

Hau dela eta, batzorde honek

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.-Onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 4/2022 espedienteari, transferentzien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	20.000,00	8.000,00	12.000,00
	GUZTIRA	20.000,00	8.000,00	12.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIAARRUNTAK	173.500,00	8.000,00	181.500,00
	GUZTIRA	173.500,00	8.000,00	181.500,00

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2022/4 kreditu aldaketaren espedientea, kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia pleno aretoan sartu da.

8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 5/2022 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 5/2022 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.480.01.152.40 2022	FAMILIEI. ETXEBIZITZAK ALOKAIJUAN	40.000,00	27.500,00	67.500,00
1 0400.227.07.130.00 2022	AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. UDALTZAING	0,00	18.150,00	18.150,00
1 1100.471.01.430.00 2022	DIRULAGUNTZAK ENPRESEI. GARAPEN EKONOMIK	0,00	13.447,00	13.447,00
1 0800.481.01.334.10 2022	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA	173.500,00	10.000,00	183.500,00
1 0800.211.01.333.10 2022	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.LEIDOR	22.000,00	16.400,00	38.400,00
1 0800.211.01.332.10 2022	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.LIBURUTEGIA	9.000,00	5.000,00	14.000,00
1 0900.211.01.323.10 2022	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.HAUR ESKOLA	8.500,00	5.000,00	13.500,00

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0800.211.01.333.00 2022	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.ARAMBURU JAURE	11.000,00	2.500,00	13.500,00
1 0700.227.07.153.00 2022	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.OBRATAKO ADM	60.000,00	40.000,00	100.000,00
1 0700.622.02.920.32 2022	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK.	820.000,00	15.000,00	835.000,00
1 0700.625.01.920.31 2022	ZENBAIT ERAIKINETAKO ALTZARIAK	131.200,00	20.000,00	151.200,00
1 0700.622.02.920.31 2022	ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDURAKO ERAIKINAK.	640.000,00	96.000,00	736.000,00
1 0600.680.01.151.10 2022	ONDARE ONDASUNeko LURRAK.	544.000,00	485.000,00	1.029.000,00
1 0400.227.07.133.10 2022	AZTERK.ETA LAN TEKNIKOAZIRKULAZIOA ETA	570.000,00	94.000,00	664.000,00
1 1300.227.12.172.00 2022	INGURUMEN KONTRATUAK. INGURUMENA	75.150,00	22.300,00	97.450,00
GUZTIRA		3.104.350,00	870.297,00	3.974.647,00

Kodea	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2020	ALTXORTEKIKO GERAKINA	870.297,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			870.297,00

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostenean adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak:

Jose Mari Villanueva Telleria
Xabier Balerdi Tolosak
Begoña Tolosa Mendia
Xarles Iturbe Pasaban

Abstentzia:

Ander Figuerido Zubiria
Estitxu Kortejarena Ugarte



Garbiñe Marzol Ormazabal

Hau dela eta, batzordeak honek

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2022 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	203.350,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	50.947,00
6	INBERTSIO ERREALAK	616.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		870.297,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	870.297,00
GUZTIRA		870.297,00

Bigarrena.-Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea 5/2022 kreditu aldaketaren espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

9. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAK SORTZEA BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENENTZAT GAUEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA, BERARIAZKO ZERBITZU PUBLIKO GISA.

Herritarrak batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 25ean, proposamena egin zuen Gizarte Zerbitzuetako Sailak, eta honako hauek proposatu zituzten:

“LEHENENGOA.- ABEGI proiektua udalekotzea eta “GAUEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO UDAL-ZERBITZUA, BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAT” sortzea.

BIGARRENA.- Zerbitzuaren antolaketari dagokionean, eskakizun teknikoak betetzen dituen zerbitzu integrala eskaintzeko, “Eguneko eta Gaueko Arretako udal zerbitzua, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat” izeneko proiektua onartzea.

HIRUGARRENA.- “Gaueko eta Eguneko Arretarako udal zerbitzua bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat” zerbitzuaren funtzionamendu orokorra arautzeko atxikitzen den erregelamendua onartzea.

LAUGARRENA.- Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatzea, kontratu administratibo bidez.

BOSGARRENA.- Zerbitzua emateko oraingo espazio-fisiko bera erabiltzen jarraitzeko eta espazioa egokitzeko beharrezko diren eginbideak abiaraztea (eraikinaren doako lagapen hitzarmena sinatzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Zentroetako Inbertsioei Zuzendutako diru-laguntza eskatzea).

SEIGARRENA.- Erabaki hauek “HOGAR DEL TRANSEÚNTE ABEGI”-ri jakinaraztea”

Horrekin batera, zerbitzuaren oinarriak ezartzeko memoria proposamena eta erregelamendu proposamena aurkeztu zituen.

2019ko urtarrilaren 30ean, txosten juridikoa sinatu zuen Administrazio Orokorreko teknikariak, eta besteak beste, honako hau ondorioztatu zuen:

“Udal titulartasuneko zerbitzua sortu, eta haren araubide juridikoa onartzea, udalbatza plenoari dagokio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber,



erabaki horiek korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar dute, aipatu den Legearen 47.2.k) artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz.

Beraz, Tolosako udaleko udalbatza plenoari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

LEHENA.- Bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko harrera eta eguneko arretarako udal zerbitzua Tolosako udalak bere gain hartzea, berariazko zerbitzu publiko gisa. Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatzea, zerbitzu-kontratu baten bitartez.

BIGARRENA.- Enperadore 7 kaleko etxabeen dagoen lokala zerbitzu horretara adskribitzea, aurrez Elizarekin hura erabiltzeko kontratua sinatuta.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu publiko honen oinarrizko araubideari, Memoria eta txostenei hasierako onarpena ematea, informazio publikoan jarriz hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onartutzat joko da.

BOSTGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Zerbitzu Sozialei eta kontuhartzaitza Departamentuei. “

2019ko otsailaren 15ean sinatu zuen alkateak erregelamenduaren proposamena informazio publikoan jartzeko iragarkia, eta beraz, aurretiko kontsulta publikoko tramitea egin zen 2019ko otsailaren 19tik 2019ko martxoaren 1era bitarte. Epe horretan ez zen iradokizunik, alegaziorik edota ekarpenik jaso, 2022ko maiatzaren 11ko datarekin Tolosako Udaleko idazkariak ziurtatu duen moduan.

2022ko apirilaren 29an, azterketa ekonomikoa aurkeztu zuen AGEM aholkularitza-enpresak, “Etixerik gabeko pertsonen eguneko arreta eta gaueko harrera emateko zerbitzuari buruzko konparazio-azterlana” izenekoa. Bertan, jasotakoarekin ondorioztatzen da zerbitzua emateko modurik eraginkorra eta iraunkorra zerbitzuaren zeharkako kudeaketa dela, eta horrela egiteak ahalbidetu dezakeela egungo proiektuan diharduten langileen jarraikortasuna. Kontuhartzaitzak horren inguruko txostena emango duen arren, aurreratu du ondorio horiek ontzat dituela.

2022ko maiatzaren 11n eguneratu egin zuen Administrazio Orokorreko teknikariak txosten juridikoa. Bertan honako hauek jaso zituen:

“

ARAUBIDE JURIDIKOA:

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarena: Euskal Autonomia Erkidegoak autogobernurako duen ahalmena adierazten du Lege horrek. Hala, lege horren arabera, EAEk eskumen eskusiboa izango du gizarte-asistentziaren arloan (10. art.), baita gizabanakoen eta taldeen artean askatasuna eta berdintasuna zinez eta modu eraginkorrean lortzen lagunduko duten neurriak ezartzeko ere.

12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa: Erakundeek gizarteratze-beharrei erantzuteko dituzten ardurak eta erantzukizunak arautzen



ditu, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan zehazten diren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko bermeak ezartzen ditu. Nabarmentzekoak dira zenbait artikulua; besteak beste, Esku hartzeko oinarritzko prozedura arautzen duena (19. art.), eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa arautzen duena (22. art.). Katalogo horren xehetasunak 185/ 2015 Dekretuan jaso dira gerora. Proiektua gauzatzeko beharrezko babesa izate aldera, honako artikulua hauek azpimarratu behar dira:

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzen du 23. artikulua, eta Administrazio publikoek bermatu beharreko zerbitzu eta diru-prestazioak zehazten eta identifikatzen ditu.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua eta egitura arautzen ditu 27. artikulua, eta bereizi egiten ditu lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eta bigarren mailako arretakoak, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehazten ditu zein diren batzuk eta besteak.

32. artikulua beharrezko betekizun bat zehazten du: langileek zer lanbide-profil izan behar duten eta haien ratioa, langileen eta kudeaketarako egituraren arloan Gizarte Zerbitzuen Maparekin bat etorri.

39. artikulua eskumenak norenak diren zehazten du, eta Gizarte Zerbitzuen arauak eta horien garapen-arauak betearaztea EAEko Udalei eta Foru Aldundiari dagokiela xedatzen du.

42. artikulua, berriz, 39. artikuluan adierazitakoa jasotzen du xeheago, eta EAEko Udalen eskumenak zein diren zehazten du. Udalek Gizarte Zerbitzuen arloan dituzten eskumen gehienak zehazten ditu artikulua horrek, eta lehen mailako arretako eredia duten zerbitzu guztietan eskumen zuzena dutela xedatzen du.

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa: Arestian aipatutako 12/2008 Legearen osagarri sortu zen dekretu hau, eta bertan jasotzen dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan zehaztutako zerbitzu eta diru-prestazioen inguruko zehaztapen guztiak.

Zehaztapen horien artean, Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak zerbitzu eta prestazioen arloan dituzten eskumenak zehazten ditu Dekretuak. Haietako bakoitzak eman beharreko zerbitzu edo prestazioen definizioa eta helburuak ere zehazten ditu. Eta, bestalde, zerbitzu motak, nori zuzenduak dauden eta horiek zuzen betetzeko eta eskuratu ahal izateko kontuan hartu behar diren baldintzak eta betekizunak ere jasotzen ditu.

Alde horretatik, eguneko arretarako zerbitzuak (1.7) eta gaueko harrera-zerbitzuak (1.8). arau izaeraz mugatzeko beharrezkoa den informazioa jasotzen du. Bi zerbitzuen betekizunak hitzez hitz zehaztuta daude I. Eranskinean.

Bestalde, arretarako eredu batzuen eta besteen arteko koordinazioa eta zeharkakotasuna ere aipatzen ditu Dekretu horrek, eskainitako zerbitzuen egokitasuna ahalbidetzeko (12. art.). Horretarako, protokolo dinamiko eta malguak erabiltzeko proposatzen du, plazak modu desegokian betetzea saihestu ahal izateko (34. art.).

Dekretu honek eskaintzen dituen zerbitzuen nahiz prestazioen egokitzapena behar bezala justifikatu ahal izateko, preskripzio teknikoak erabiltzeko beharra adierazten da 9.4.artikuluaren Betebehar hau erreferentziako profesionalen eskutik egin behar dira (12.4.artikuluak), eta harrera momentuan bertan ere egin daiteke,



horregatik komenigarria da zerbitzuan bertan profesionalak egotea; modu honetan, 20. artikuluan espezifikatzen diren atentzio pertsonalizatutako planak (APP) zein esku-hartze segimenduak in situ egin daitezke.

Prestazio eta zerbitzu zorroak 2/2016 Legeari erreferentzia egiten dio (18. art), profesionalak balorazioak egiteko tresna komunak erabil ditzaten.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, eskumenei buruzko hainbat alderdi argitu nahi ditu, eta udalerrriak erakunde gisa eta finantzaketa arloan duen eginkizuna indartzen du, tokiko erakundeen iraunkortasuna bermatze aldera.

Zuzenean udalerriei eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan EAEko udalerrri horien presentzia indartzen du legeak; hala, testuak udalen posizio instituzionala zehazten du, bai jardun publikoan bai finantzaketaren esparruan.

I. Tituluan, 2. eta 3. artikuluetan, toki-erakundeak, haien ahalak eta eskumen-tituluak zehazten dira; bestalde, II. Tituluan, 8. eta 9. artikuluetan, legitimitate demokratiko zuzena ematen zaie EAEko udalerriei, eta Udalei autonomia aitortzen zaie tokiko interes publikoko gaiak antolatu eta kudeatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean, honako artikulua hauek nabarmendu ditzakegu hemen planteatutako proiektuari loturik. Udal eskumenei buruzko III. Tituluan jasota daude artikuluoak:

- 14. artikulua toki-erakundeen eskumenen sailkapena zehazten du. Udalek eskumen propioen bidez bermatzen dute batez ere beren autogobernua. Era berean, eskumen horietan jaso gabeko beste jarduera, zerbitzu edo prestazio batzuk egiteko eta emateko ahalmena ere izango dute, beti ere ez badute arriskuan jartzen toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna.

- 17. artikulua Udalen eskumen propioetat jasotzen ditu gizarte zerbitzuak eta gizarteratze arloko ekimenak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.

- 18. artikulua udalerrien eskumen propioak esleitzeko bete beharreko eskakizunak zein diren jasotzen du, behar besteko finantzaketa eta beharrezko zerbitzuen zehaztapena oinarrian direla.

- 19. artikulua aukera ematen die Udalei elkartzeko formulak gauzatzeko, horien bidez eskumen propioak betetzen direla bermatzeko; orobat, udalen arteko **formula** instituzionalak ere eratu ditzakete, modu osagarri eta subsidiarioan, berme hori emateko, baldin eta eraginkortasuneko eta eskalako ekonomiako arazoak baldin badaude.

Eskumenak eskuordetzeari eta transferitzeari buruz, 20., 21. eta 22. artikuluek aukera ematen dute eskumenak eskuordetzeko eta transferitzeko, beti ere prestazioa emateko behar adinako zuzkidura bermatzen bada. Horretarako, 23. artikuluan nabarmendutako baldintza eta prozedura jakin batzuk bete behar dituzte Udalek.

93. eta 94. artikuluek bereziki aipatzen dituzte tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa eta kudeaketa hori gauzatzeko moduak; arau horiek aukera ematen dute zerbitzuak eta prestazioak zuzeneko eta zeharkako modalitateen bidez kudeatzeko.

Hemen aipatutakoaz gain, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, jarraibide egokia da udalen esku-hartzea gidatzeko, eta, beraz, ezin dira alde batera utzi gainerako artikulua.



353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa: Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak (19.1 art.) beharrezkotzat jotzen du segimendua eska dezaketen esku-hartzeak egitea. Horrelakoetan, jarduketa-prozedura bati ekingo zaiola esaten du, eta prozedura horren baitan diagnostiko bat egin beharko dela.

Behar horretan oinarrituta, eta 20. artikuluan xedatutakoarekin ere bat etorritik, Legeak esku hartzeko prozedurak eta tresnak zehazten ditu modu homogeneoan. Hauek dira oinarritzko esku-hartze prozeduretarako deskribatutako faseak: lehenik eta behin, erabiltzaileari harrera egiteko fasea; bigarrenik, eskatutako beharrezkoen balorazio soziala egitea; eta, azkenik, egoeraren diagnostikoa. Prozedura horretan, gizarte-langilearen eginkizuna eta rola funtsezkoa da prozesuan beharrezkoa den informazio guztia biltzeko.

EAEko Lurralde Historikoan balorazio profesionalerako eta diagnostikorako tresna komunak modu bateratuan aplikatu ahal izateko baliatzen dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa (1. art.).

Bestalde, 353/2013 Dekretuaren I. eta II. eranskinek zehazten dituzte bi kasuetan (fitxa eta gizarte-diagnostikoa) zer adierazle erabili behar diren.

3/2018, abenduaren 5eko Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestu eta zuzenbide digitala babesteari buruzkoa:

Lege Organikoan jasotzen den lege-esparruak izaera pertsonaleko datuen eta horien tratamenduaren babesa bermatzen du.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. artikulua:

1. Tokiko zerbitzu publiko dira toki-erakundeek beren eskumenen baitan betetzen dituztenak.

2. Toki-eskumenerako zerbitzu publikoak modu jasangarrienean eta eraginkorrean kudeatu beharko dira, zerrendatutakoen artean:

A) Zuzeneko kudeaketaz:

a) Toki-erakundearen beraren kudeaketaz.

b) Tokiko erakunde autonomo baten bidez.

c) Tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez.

d) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, bere sozietatearen kapitala ente publikoren batena bada.

c) eta d) letretan aurreikusitako erak soilik erabil daitezke, baldin eta justifikazio-memoria baten bidez egiaztatzen bada jasangarriagoak eta efizienteagoak direla a) eta b) letretan ezarritako erak baino, eta horretarako kontuan izan beharko dira irizpide hauek: errentagarritasun ekonomikoa eta inbertsioaren berreskurapena. Gainera, jasotako aholkularitzaren justifikazio-memoriak espedienteetan jasota geratu behar du eta Osoko Bilkurara eramango da onar dezan, eta sartu behar dira, era berean, zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak eta jasotako laguntza teknikoa, zeinak publikitate egin beharko baitira. Horretarako, udal kontuhartzaileari txostena eskatuko zaio eta planteatu diren proposamenen jasangarritasun finantzarioa baloratu beharko du, 2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.



B) Zeharkako kudeaketa, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetarako aurreikusitako moduetan (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Hautatzen den kudeaketa-erak kontuan izan beharko du 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 9. artikuluan ezarritakoa, modu eskusiboan funtzionario publikoenak diren zereginen dagokienez.

Sektore Publiko Kontratuaren Legea, 312. artikulua. Herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu kontratuak izan beharreko berezitasunak:

Herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzu kontratuetan, honako betebeharrak bete beharko dira:

- a. Izaera horretako zerbitzu bat kontratatu aurretik, zerbitzu horren araubide juridikoa zehaztu beharko da, zeinaren bidez berariaz adierazi beharko baita Administrazioak jardura propio gisa hartzen duela jardura jakin hori eta, halaber, administratuek zer prestazio jasoko dituzten zehaztu eta zerbitzu-prestazioaren ezaugarri juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautuko baitira.
- b. Mota horretako zerbitzu kontratu baten esleipendunak hitzartutako jarraitutasunarekin eskaini behar du zerbitzua eta partikularrei aurrez zehazturiko baldintzak bermatu behar dizkie – hala badagokio, finkatutako kontraprestazio ekonomikoaren bidez–; zerbitzua egoki eskaintzen dela zaindu behar du; zerbitzuarekin loturiko jarduerak hirugarrenei eragindako kalteak ordaindu behar ditu –Administrazioari egotz dakizkiokeen arazoengatik sortutakoak salbu–; eta, hala dagokionean, kontratuaren arabera entregatu beharreko obra eta instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu behar ditu.
- c. Artikulu honetan arauturiko zerbitzuei atxikitako ondasunak ezingo dira bahitu.
- d. Kontratataren ez- betetzeak kalte larriak eta beste bitarteko batzuen bidez konponezinak diren kalteak eraginez gero zerbitzuari eta Administrazioak kontratua indargabetzea erabakitzen ez badu, kontratua bahitu edo kontrolatzea erabaki dezake, kalte hori desagertu artean. Kasu guztietan, benetan sorturiko kalte- galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.
- e. Administrazioak mantenduko ditu herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzuen jardura egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia - ahalmenak.
- f. Oro har, herritarrei prestazio zuzenak emateko zerbitzuak administrazio kontratatzaileak erabiltzen ez dituen areto edo instalazioetan eskainiko dira. Hori posible ez bada, horren arazoi objektiboak azaldu beharko dira. Kasu horietan, lan-taldeak ez nahastearren, enpresa kontratataren langileak Administrazioaren zerbitzura dauden langileen espazio eta leku beretan egon ez daitezzen saiatu beharko da, eta enpresa kontratataren langileak eta bitartekoak dagozkion zeinu bereizgarriekin identifikatu beharko dira (adibidez, uniformeak eta errotulazioak).
- g. 313. artikuluan adierazitako indargabetze- arazoiez gainera, artikuluan honetan aipatutako zerbitzu-kontratuak indargabetzeko kausak izango dira 294. artikuluko c), d), eta f) letretan adierazitakoak».



-7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena:

25.2.e) artikulua "Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

1.- Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

2. - Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

e) Gizarte-beharreko egoerak ebaluatzea eta horiei buruz informatzea, eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenei berehalako arreta ematea."

2/16 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei Buruzkoa: 17. artikulua: "Udalerrien eskumen propioak"

"1.-Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

13) Gizarte zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.

14) Diru sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea"

2.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

9/2017 Legearen 312.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak, berariazko zerbitzua aitortzeaz gain, zerbitzuen oinarritzko araubide juridikoa zehaztu behar du. Hona hemen proposamen den araubidea:

I.- Kapituluak. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Helburua.

Araudi honen helburua da Tolosako "Gaueko Harrera eta Eguneako Arretarako Udal-Zerbitzua bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat" zerbitzua arautzea. Zerbitzu hori Tolosako Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Sailak eskaintzen duen baliabidea da, herrian dauden eta ostatu, mantenu eta higiene arloko oinarri-oinarritzko prestazioak eskuratzeko ezintasuna duten pertsonen arreta ematen diena.

2. artikulua. Zerbitzuaren helburuak.

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarte-bazterketa egoeran edo jasateko arriskuan dauden pertsonen oinarri-oinarritzko beharrei erantzuteko arreta eskaintzea, gizarte-kohesiorako eremuak sortuz, eta gizarte-arreta ematearekin batera, gizarteratze-prozesuak ahalbidetuz. Eguneko arreta-zerbitzua eta Gaueko arreta-zerbitzua uztartuko ditu, zerbitzu profesionala eskainiz.

3. artikulua. Emango diren zerbitzuak.

- Eguneko arreta-zerbitzua: Bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat eguneko baliabide bat eskaintzea da zentro horien helburua, pertsona horiek jateko eta norberaren garbiketarako oinarritzko beharrak non bete



izan dezaten. Hortaz, egoera horiek premia larrikotzat hartzen dira. Horrez gain, kalean beharrean beste leku batean egoteko eta topo egiteko aukera eskaintzen die zerbitzu horrek etxerik gabeko pertsoneri; hau da, harreman sozialak izateko bestelako esparru bat.

- Gaueko harrera-zerbitzua: intentsitate txikiko baliabidetzat hartzen dira, bazterketa-arriskuan eta egoeran dauden pertsoneri laguntzeko, eta batez ere iragaitzako bidariei eta etxerik gabeko pertsoneri zuzendurik daude. Baliabide horren xedea da gaua igarotzeko eta beharizanak berehala asebetetzeko leku bat eskaintzea; hori dela eta, oinarrizko prestazio hauek eman behar dira: lotarako lekua, mantenua eta norberaren garbiketarako aukera.

- Boluntarioak: Boluntarioen parte-hartze iraunkorra planteatzen da, Abegi Elkartearen jarduera hasi zenetik hainbat boluntario aritu izan direlako lanean, eta elkartearen funtzionamendurako motor eta barne-filosofiaren euskarri izan direlako, herritarren artean solidaritatea eta boluntariora mailako baloreak sustatuz modu naturalean.

-Besteak: komenigarria dela ondorioztatzen bada, zerbitzu honen bidez bideratu ahal izango dira beste zerbitzu osagarri batzuk ere. Hala nola, hotzaren programa, ibiltariak botikak eskuratzeko laguntzak,

II.- Erabiltzaileei dagokienez.

4. Erabiltzaileen baldintzak.

a) Eguneko arretako zerbitzuaren erabiltzaileek bete beharreko baldintzak:

- Adin nagusikoa izatea.

- Intentsitate txikiko laguntza behar izatea horrelako zerbitzuen bidez zenbait beharizan bete ahal izateko.

- Dagokion tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun infekzioso edo kutsakorra eta/edo buruko gaixotasuna izanez gero.

- Osasun-arreta espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuak eskura dituen edo berez eskaini ditzakeen baliabideetatik kanpo.

- Zerbitzura bertaratzeko plaza eskatu izana, edo, horrela badagokio, berritzeko eskaera egin izana.

- Zerbitzuko langileek adierazitako arauak eta jarraibideak betetzea.

- Eguneko arreta-zerbitzutik eta gaueko harrera-zerbitzutik aurrez kanporatu ez izana.

- Zerbitzuan sartu aurretik substantziak kontsumitu ez izana.



- Gaueko harrera-zerbitzua eta eguneko arreta biak aldi berean ez baliatzea, non eta zerbitzuko profesionalek ez duten horrela agintzen.

b) Gaueko harrera-zerbitzuko erabiltzaileek bete beharreko baldintzak:

- Adin nagusikoa izatea.

- Langileek norberaren garbitasunari eta zentroaren beraren higieneari buruz emandako argibideak betetzea.

- Jokabide-arazorik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo bertako bizikidetzaren normala modu larrian nahasi dezakeen jokabiderik edota norberarentzat eta beste pertsonentzat arriskua sor dezakeen jokabiderik ez izatea.

- Ospitaleratzea eska dezakeen gaixotasun fisiko edo psikikorik ez izatea.

- Osasun-arreta espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuak eskura dituen edo berez eskaini ditzakeen baliabideetatik kanpo..

- Erreserbak egiteko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 10:30era) zerbitzua eskuratzeko plaza eskatu izana.

- Zazpi gaueko egonaldiaren muga gainditu ez izana (profesionalek emandako luzapenen kasuan izan ezik).

- Gaueko azken harreraz geroztik hiru hilabeteko epea (araudian zehaztutakoa) igaro izana, non eta ez dagoen bestelako preskripzio teknikorik.

- Zerbitzuko langileek adierazitako arauak eta jarraibideak betetzea.

- Eguneko arreta-zerbitzutik eta gaueko harrera-zerbitzutik aurrez kanporatu ez izana.

- Zerbitzuan sartu aurretik substantziak kontsumitu ez izana.

- Gaueko harrera-zerbitzua eta eguneko arreta biak aldi berean ez baliatzea, non eta zerbitzuko profesionalek ez duten bestelako preskripzio teknikorik eman.

c) Boluntarioek bete beharreko baldintzak:

- Izaera solidarioa izatea.

- Askatasunez egitea, betebeharrak pertsonal edo juridikorik gabe, eta nork bere borondatez onartuta.

-Ordainsari ekonomikorik edo materialik gabe egitea ekarpena.



- Genero-indarkeria delituengatik eta besteen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta moralaren eta askatasunaren aurkako erasoengatik aurrekari penalik ez izatea (ikus 8. art.). Hori egiaztatzeko, delitu horien ondorioz aurrekari penalik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

-Adin nagusikoa izatea, arraza, sexua, erlijioa, baldintza sozial eta ekonomikoa edozein izanik ere.

-Osasun nahikoa izatea boluntario gisa eskatutako lanak betetzeko eta denbora aldetik prestutasun jarraitua izatea.

-Elkartasun, eskuzabaltasun eta konpromisozko espirtua izatea, eta, era berean, onuradunen duintasuna modu aktiboan babesteko gai izatea.

-Talde-lanerako heldutasuna, oreka emozionala, egokitzekoa gaitasuna eta erraztasuna izatea.

-Berdinen arteko errespetuan oinarrituta harremanetarako gaitasuna izatea (hizkuntza sexistarik eta arrazistarik erabili gabe...).

5. Erabiltzaileen eskubideak.

a) Eguneko arretako zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

Zentroaren barne-funtzionamenduko arauen berri jasotzekoa.

Bere sinismen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatuak izatekoa.

Ondoko prestazio hauek jasotzekoa, beti ere ezarritako ordutegi eta baldintzak errespetatuz:

-Gizarte zerbitzuak: Informazioa, Bitartekaritza, Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea Esku-hartze psikosoziala (entzuketara aktiboa eta emozioei eustea).

-Osagarriak: Mantenua, Norberaren garbiketa eta Arropak garbitzeko zerbitzua.

Arreta profesionala jasotzekoa eta gizarteratze arloko balorazioa egin ahal izatekoa.

Kexa eta iradokizunak egitekoa.

Izaera pertsonaleko datuak eta informazio pribatuaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzekoa.

b) Gaueko harrera-zerbitzuko erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

Zentroaren barne-funtzionamenduko arauen berri jasotzekoa.

Bere sinismen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatuak izatekoa.



Ondoko prestazio hauek jasotzekoa, beti ere ezarritako ordutegi eta baldintzak errespetatuz:

-Gizarte Zerbitzuenak: Informazioa, Premien hasierako balioespena edo jarraipen-balioespena, Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, Arlo psikosozialeko esku-hartzea (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

-Osagarriak: Gaua igarotzea, mantenua, higiene pertsonala, ikuztegia, urgentziazko oinarritzko arropa.

Arreta profesionala jasotzekoa eta gizarteratze arloko balorazioa egin ahal izatekoa.

Kexa eta iradokizunak egitekoa.

Izaera pertsonaleko datuak eta informazio pribatuaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzekoa.

c) Boluntarioen eskubideak:

Honako prestazio hauek jasotzekoa:
Prestakuntza eta formazioa

Profesionalen orientazioa eta babesa

Antolatutako promozio eta sentsibilizazio kanpainetan parte hartzeko aukera

d) Profesionalen eskubideak:

Indarrean dauden eta aplikagarriak diren lan-hitzarmenetan eta gainerako araudian jasotzen diren eskubide guztiak.

6. Erabiltzaileen betebeharrak.

a) Erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

Zentroan ostatu hartuta daudenen edo lana egiten dutenen sinesmen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatu.

Zentroko funtzionamendua arautzen duten barne-arauak ezagutu eta bete.

Elkarbizitza, higieena eta garbitasun arauak bete, bai pertsonalak eta baita zentrokoak ere.

Zentroan lan egiten dutenak eta boluntario dihardutenak errespetuz tratatu.



Gaixo egonez gero, medikuak emaniko botikak hartu, baita posologia eta gainontzeko zainketari dagozkionak ere.

Ezarritako ordutegiak bete.

Gizarte-langilearekin adostutako hitzorduak errespetatu, eta zerbitzuko profesionalen eta boluntarioen adierazpenei kasu egin.

Betebehar hauek bete ezean, erabiltzaileari dagozkion eskubideak bertan behera geldituko dira; baita zerbitzua eta bertako arreta jasotzeko eskubidea ere.

c) Boluntarioek betebehar hauek izango dituzte:

Hartutako konpromisoari dagozkion zereginak betetzea (beti ere boluntarioen zereginen artean jasota daudenen artean): eguneroko lanetan laguntzea sukaldeko langileei (mahaia jarri, zerbitzatu, jaso, txukundu...); erabiltzaileak hartzeko eta agurtzeko fasean parte hartzea; ...); espezializatua ez den bidelaguntza erabiltzaileekin:

- Adiskide boluntarioen artean integrazioa, prestakuntza eta parte-hartzea bultzatzea eta zerbitzuko profesionalekin lokarriak sortzea eta estutzea.
- Profesionalei jarduerak eta hobekuntzak proposatzea eta banakoen artean nahiz taldean gertatu diren aldaketen edo arazozen berri ematea.
- Zerbitzuaren antolaketarako deitutako bileretara modu aktiboan bertaratzea.
- Zerbitzua eta boluntarioritza sustatzeko lanetan parte hartzea.
- Kolektiboa sentsibilizatzeko kanpainetan laguntzea.
- Zerbitzuko edonork eragindako desoreka-egoerak, errespetu faltak edo arauen urraketak jakinaraztea eta salatzea beharrezkoa denean.

III. Kapituluia. Sartzeko Prozedura.

7. artikulua. Sartzeko modua.

Sarrera zuzeneko zerbitzuak izango dira, eta bertako profesionalak baimenduko dute sarrera eskaera.

Izena ematea:

a) Eguneko arretako zerbitzuan izena emateko ordutegia: 10:00etatik 10:30era

b) Gaueko harrera-zerbitzuan izena emateko ordutegia: 10:00etatik 10:30era.
Plaza libreraren bat geratzekotan, 19:00-19:30.



c) Boluntariotza: Zerbitzuaren koordinatzailea arduratuko da boluntarioak biltzeko kanpainak antolatzeaz eta norbanakoez egiten dituzten eskaintzak aztertu eta lantzeaz.

8. artikulua. Egonaldia.

a) Eguneko arretako zerbitzua:

Gehienez ere bost egunetarako izen-emateak egingo dira; egonaldiaren iraupena ez da mugatua, eta bi egunetik behin berriro daiteke, non eta ez den baldintzaren bat urratzen. Egonaldi bereziko egoerak sor daitezke, preskripzio teknikopean.

b) Gaueko harrera-zerbitzua:

Erabiltzaileek gehienez ere 7 eguneko egonaldia egin ahal izango dute. Hiru hilabete igaro arte ezingo dute berriro gaueko harrera-zerbitzua baliatu.

Arrisku egoera sortarazi dezakeen eguraldia dagoenean, hau da, gaueko temperatura 5º edo baxuagoa izango dela aurreikusita dagoenean, azken egonalditik igaro beharreko epeari dagokion baldintza hori betetzen ez duten erabiltzaileei ere arreta egin ahal izango zaie, beti ere gaueko zerbitzuan plazak libre dauden kasuan.

c) Boluntariotza: Zerbitzuaren beharren eta boluntarioen prestasunaren arabera erabakiko da.

IV. Kapitulua. Funtzionamendua.

9. artikulua. Barne-funtzionamenduko arauak.

Bazterkeria egoeran daudenentzako Udalaren Eguneko eta Gaueko Arreta Zerbitzuak, ABEGIk, barne funtzionamendurako arautegia izango du, eta bertako erabiltzaile, boluntario eta profesional guztiek ezagutu eta errespetatu beharko dute.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Araudi honetan jaso ez diren egoerak gertatuz gero, Tolosako Udalak zerbitzuak emateko oro har aurreikusita dituen arauak hartuko dira aintzat.

a) Zerbitzuaren arautegia onartu aurretik:

1) Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 129. artikuluan honako hau jaso du:



“129. artikulua. Erregulazio onaren printzipioak:

1. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Zioen azalpenean edo atarikoan —lege- aurreproiektua den edo erregelamendu-proiektua— behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela.

2. Premia- eta efikazia-printzipioen arabera, araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua izan, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan.

3. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsoneri betebeharrak gutxiago ezarriko dienik.

4. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasuneko, araugintza-esparru egonkor, auresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Administrazio-prozeduraren gaien araugintza-ekimenak izapide gehigarriak edo lege honetan aurreikusitakoez bestelakoak ezartzen dituenean, haiek justifikatu beharra dago gaiaren berezitasunagatik edo proposamenean lortu nahi diren xedeengatik.

Lege baten erregelamendu-garapenerako gaikuntzak, oro har, dagokion gobernuari edo gobernu-kontseiluari emango zaizkio. Salbuespenezkoa izango da zuzenean Gobernu ministroen edo kontseilaritzen titularrei esleitzea, edo haien mendeko edo haiei subordinatutako beste organo batzuei, eta esleipen hori justifikatu egin beharko da gaikuntza ematen duen legean.

Legeek gaikuntza eman ahal izango diete zuzenean agintaritza independente batzuei edo ahal hori esleitua duten beste organismo batzuei, legeok garatzeko edo aplikatzeko arauak onesteko, gaiak hala eskatzen duenean.

5. Gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek erraztasunak emango dituzte irispide erraza, unibertuala eta eguneratua izan dadin indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritako moduan; argi definitutako dituzte araugintza-ekimenen helburuak eta justifikazioa, arauen atarikoan edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten arauen prestakuntzan.



6. Efizientzia-printzipioa aplikatuz, araugintza-ekimenak saihestu egin behar ditu karga administratibo alferrikakoak edo ezinbesteko ez direnak, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu aplikatzeko orduan.”

b) Arautegia onartzeko prozedura:

Azpimarratzekoa da 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honela diola:

132. artikulua. Arau-plangintza.

1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.

133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan daitezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

2. Ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dituztenak, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunearan argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketan ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusitu zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

3. Artikulu honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa halako moldean egin behar dira non arauaren hartzaile potentzialak eta hari buruz ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, haien esku jarri behar dira behar diren dokumentuak; dokumentu argiak, zehatzak eta gaiari buruz iritzia emateko informazio guztia biltzen dutenak.



4. Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi astunak daudenean.

Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen.

hartzaileri betebeharrak handirik ezartzen ez dienean edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenean, egin gabe utz daitezke artikulu honen lehenengo zenbakian araututako kontsulta publikoa. Administrazio batek legegintza-ekimena edo erregelamenduak egiteko ahala baliatzea erregulatzen duen araudiak aurreikusten badu prozedura horiek presaz izapidetu behar direla, horregatik izapidea kenduz gero hartan dioenari jarraituko zaio.”

-Bestalde, Erregelamendua arautzeko prozedura honako arautegi honetan dago xedatuta:

*Toki Araubidean Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d), 25, 49 eta 70.2 artikulua.

*Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56.artikulua.

Behin landutako Erregelamendu proiektua jasoz gero, eta Batzorde Informatiboak irizpena egin ondoren, Udaltzaren izango du hari hasierako onarpena emateko eskumena (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua), eta jendaurrean jarriko da, gutxienez, hogeita hamar egunez, interesdunen aurkezten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizunak. Hasierako onarpenaren erabakia argitaratuko da Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan: tolosa.eus.

Jendaurrean ikusgai egoteko aldia bukatutakoan, erreklamazio eta/edo iradokizunak aurkeztu badira, ebatzi egin behar dira, eta alegazioen ebazpenaren ondoriozko aldaketak testuari erantsi. Behin betiko onarpena Udaltzari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

Jendaurrean ikusgai egoteko aldiaren Erregelamenduaren hasierako onarpenaren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da behin betiko hartuta dagoela ordura arte behin-behinekoa zen Erabakia.

Erregelamendua behin betiko onartzeko Erabakia, ordenantzaren testu osoa duela, Udaleko iragarki-taulan eta Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da jende guztiak haren berri izan dezan, hala xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua.



Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan: tolosa.eus.

130. artikulua honela dio:

1. Administrazio publikoek berrikusi egingo dute aldi berean beren araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko ea indarrean diren arauak lortu dituzten aurreikusitako helburuak eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostu eta kargak.

Ebaluazio horren emaitza txosten batean jasoko da, eta txosten hori publiko egingo da, dagokion administrazioaren araudi erregulatuak erabakitzen duen xehetasunarekin, maiztasunarekin eta organoaren bidez.

2. Administrazio publikoek sustatu egingo dute erregulazio onaren printzipioak aplikatzea, eta laguntza emango dute araugintzaren analisi ekonomikoa susta dadin eta, bereziki, ez dadin justifikaziorik gabeko edo neurritz gabeko murrizketarik ezarri jardura ekonomikoan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikuluekin bat etorruta, lege-mailako arauak, erregelamenduak eta administrazio-xedapenak dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko. Horretaz gain, aukerako moduan, beste argitarabide osagarri batzuk ezarri ahal izango dituzte administrazio publikoek.

Egunkari edo aldizkari ofizialak administrazio, organo, erakunde publiko edo entitate eskudunaren egoitza elektronikoetan argitaratzeak edizio inprimatuaren ondorio berak izango ditu, administrazio publiko bakoitzak erabakitzen duen baldintzetan eta bermeekin.

Udalak Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko dagokion Departamentuari bidali behar die, onartu eta hamabost egun igaro baino lehen, Onarpenaren behin betiko erabakiaren eta Ordenantzen testu osoaren kopia bana, edo, bestela, hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela egiaztatzen duen ziurtagiria eta dokumentu horien kopia osoa autentifikatua.

Arautegi horren onarpenari buruz, beraz, honako Konklusio hauek prozedurari buruz:

Lehena.- Aipatutako ordenantzei hasierako onarpena emango zaie. Proiektua webgunean argitaratuko da.

Bigarrena.- Jendaurrean jarriko da, gutxienez, 30 hamar egunez, interesdunek aurkez ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da. Testua argitaratuko da Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean; baita web orrian ere.



3.- FINANTZIAZIOAREN AURREIKUSPENA

Dagokion finantziakzioa aurreikusi behar da; izan ere, zerbitzu bat euskarri ekonomikorik gabe sortzeak akordioaren deuseztapena dakar.

2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak, Toki Ogasunen Lege Arautzaileari buruzko testu bategina onartzen duenak, 173.5 artikuluan debekatu egiten du gastu-konpromisoak hartzea, baldin eta ez badute dagokien krediturik, eta deusez deklaritzen ditu akordio horiek.

4.- ESKUDUNTZA DUEN ORGANOA

Udal titulartasuneko zerbitzua sortu, eta haren araubide juridikoa onartzea, udalbatza plenoari dagokio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, erabaki horiek korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar dute, aipatu den Legearen 47.2.k) artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu ondoren, emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 4 (Xarles Iturbe, Joseba Ormazabal, Izarne Iglesias, Joxe Mari Villanueva)

Kontrako botoak:

Abstentzio botoak: 3 (Ander Figuerido, Aitzol Gartzia, Xabier Martinez)

Beraz, Tolosako Udaleko udalbatza plenoari doakio honako

IRIZPENA:

LEHENA.- Bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako udal-zerbitzua Tolosako Udalak bere gain hartzea, berariazko zerbitzu publiko gisa. Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatuko da, zerbitzu-kontratu baten bitartez.

BIGARRENA.- Zerbitzu publiko honen oinarritzko araubideari, memoriari eta txostenei hasierako onarpena ematea, eta jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

LAUGARRENA.-Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta



dagoela ulertuko dela.

BOSGARRENA.- Enperadore kaleko 7.eko etxabeen dagoen lokala zerbitzu horretara atxikitzea, eta izapideak egitea lokalaren erabilera kontratatzeko.

SEIGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako Sailari eta Kontuhartzaitzari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Tolosako Udalak sortzea bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako zerbitzua, berariazko zerbitzu publiko gisa.

10.ONARTZEA TOLOSAKO USABAL KIROLDEGIKO KUDEAKETA KONTRATUAREN 2021. URTEKO USTIAPEN KONTUKO KANON ALDAGAIAREN LIKIDAZIOA.

Izarne iglesia Garcia de Iturrospe zinegotzia irten egin da Pleno aretotik. **Abstentzioa dela eta, bozketan ez du parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23,e) artikulua arabera.**

Herritarrak batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

AURREKARIAK:

2004ko abenduaren 2an egindako bilkuran, Tolosako Udalak Usabal Kirol eta Aisialdi Guneko (UKAG) instalazioen eta funtzionamenduaren kudeaketa integrala prozedura ireki bidez egiteko kontratazio-espeditentea onartu zuen. Lehiaketa horretan arautu beharreko Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria ere onartu zuen, eta esleipen-prozedura irekitzea erabaki zuen.

2005eko otsailaren 25ean, Tolosa Lantzen, SAko Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen aipatutako kudeaketa integrala KIROLZER, SLri esleitzea.



2008ko azaroaren 7an, Tolosa Lantzen, SAko Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen zehaztea Usabal kiroldegia kudeatzeagatik suertaturiko onurak banatzeko formula.

Akordioa bi irizpide nagusitan oinarriturik dago: lehena, «**onura finkoa**» da, eta urteko ustiapenaren % 15aren onurak dira. Bestea «**onura aldagarria**» da, eta kiroldegiaren ustia ketaren urteko onuren % 20koa izan daiteke, gehienez. Onura aldagarriaren emaitza emakidadunak lortutako kudeaketaren adierazgarrien ondorioa izango da, eta lauki honetan laburbiltzen dira:

Edukia	Gehiengo puntuazioa
Erabiltzaile kudeaketa	Gehienez % 5 arte
Garbiketa	Gehienez % 5 arte
Mantentze-lanak	Gehienez % 8 arte
Ebaluazio orokorra	Gehienez % 2 arte

2020ko irailaren 24an, Tolosako Udalak Osoko Bilkuran onartu zuen Tolosa Lantzen, SAren desegitea, eta bide batez, haren eskubide eta betebeharrak bere gain hartu zituen. Beraz, organo eskuduna, 2021etik aurrera, Tolosako Udala da.

Hori dela-eta, onuren aldagaien ehuneko-kopurua hurrengo adierazleen azterketa egiteagatik jasoko du enpresa kudeatzaileak. Hori guztia honako adierazle hauetan zehaztuko dut:

1.- KUDEAKETA-ADIERAZGARRIEN EBALUAZIOA

Datuak jasotzeko bi era erabili dira aurrean.

1.1.- Abonatuen gogobetetze maila

Batetik, urtero bezala, ekainaren bukaeran, ikastaroetan parte hartzen dutenei inkesta pasatu zaie kontrataren balorazioa egiteko. Datuen arabera, abonatuak gustura daudela ematen du; erabiltzaileen gogobetetzea ia % **88,5ekoa** da, inkestaren datuen arabera.

Bestetik, 2019ko urte bukaeran, Kirolzerrek online inkesta pasatu zien abonatuak, eta **650 erantzun jaso zituen** kudeaketa, mantentze-lan, garbiketa eta kirol instalazioei lotutako zenbait galdera biltzen zituen galdetegiak (**Ikus AB20049 1. eranskina**).

1.2.- 2021eko kexak

Azkenik, **idatziz jasotako kexei dagokienez**, guztiak kiroldegiko gerenteak erantzun ditu. Hona hemen azken urteetako bilakaera.



2008	2009	2010	2011	2012
75	97	82	71	65
2013	2014	2015	2016	2017
95	65	64	56	57
2018	2019	2020	2021	
78	55	50	46	

2021eko 46etatik 21 zerbitzuaren edo ikastaroen kudeaketa administratiboaren ingurukoak dira; kuota proportzionalki kentzea eskatzeko gehienetan, kexa guztien % 45,65 (iaz baino **gutxiago**). Aurten, 25 kexak COVID-19aren izurritearekin zerikusia izan dute (% 54,35). Bestalde, mantentze-lanei eta garbiketari dagokien kexarik ez dago.

Usabalen idatziz jasotzen diren **kexak gutxitu egin dira**, eta kexen gaiak ere bai. Ikus ab22014 zenbakidun txosten-laburtua. Edonola ere, emakidadunaren helburua ahal den azkarren erantzutekoa da. Usabal kirolegiko kudeatzaileak zuzenean erantzuten ditu kexa horiek, mugikorrez edo idatziz jasotakoak, eta normalean lehentasunezko kontua izaten da. Erantzuteko epearen inguruko datuak **asko hobetu dira iaztik** (% 74), eta prozedura dezente hobeto egin da.

Idatzizko kexak:

erreg	kexak	GAIA	Edukia	Eskaera	Data	Erantzuna	Data	erreg
1	1	kudeaketa COVID19	Aldageletan korronte handia	Ixtea: garbiketa neurri guztiak betetzen baitituzte	2021-01-08	sms	2021-01-11	2
2	2	kudeaketa COVID19	COVID-19ari buruzko megafoniako zerbitzuak euskaraz	Esatariak euskara egokia erabiltzea	2021-01-27	tel.	?	3
3	3	kudeaketa COVID19	Abonatuaren baja	Hilabete horretako dirua bueltatzea	2021-02-04	whatsapp	2021-02-21	4
4	4	kudeaketa COVID19	Igerileku handi eta ertainean aforo mugak ez dira betetzen	Ezarritakoa aforo mugak betetzea	2021-02-04	whatsapp	2021-02-08	5
5	5	kudeaketa COVID19	Konfinamendu perimetrala ezarrita	Kirolegiko kuota bueltatzea	2021-02-16	whatsapp	2021-02-19	6
6	6	kudeaketa	Familia ugariaren kuota kobratzea	Gehiegizko kuotak bueltatzea	2021-02-04	email	2021-02-21	7
7	7	kudeaketa COVID19	Aldageletako korridoreetan hotza	Atea jartzea korronte ekiditeko	2021-01-09	tel.	2021-01-18	8
8	8	kudeaketa ikast.	Spining ikastarora ezin joan	Kuota bueltatzea	2021-03-03	whatsapp	2021-03-10	9
9	9	kudeaketa COVID19	Erreserba plataformarekin arazoak	Konpontzea eta erabiltzaileei abisatzea arazoa dagoenean	2021-03-19	tel.	2021-03-22	10
10	10	kudeaketa ikast.	Padel ikastaroak eta erreserbak 12 urtekoentzat	12 urtekoiei erreserbatzen uztea	2020-11-25	tel.	2020-12-11	11
11	11	kudeaketa COVID19	Urtarrilaren 18tik otsailaren 15era eremu gorrian Tolosa	Kuota itzultzea	2021-03-21	tel.	2021-03-22	12
12	12	kudeaketa COVID19	Konfinamendu perimetrala ezarrita	Pilateseko 4 asteo kuota bueltatzea	2021-02-16	tel.	2021-03-02	13
13	13	kudeaketa COVID19	Ilea lehortzeko nork bere lehorgailua ekartzeak ez du zentzurik	Erabilera debekatzea	2021-04-18	whatsapp	2021-04-19	14
14	14	kudeaketa ikast.	Yoga ikastarora ezin joan lan aldaketagatik	Azken 3 hilabetekoa bueltatzea	2021-04-26	tel.	?	15
15	15	kudeaketa	Urriak 19-otsailak 21 kuota gaizki kobratuta	Dagokion dirua bueltatzea	2021-03-27	?	?	16
16	16	kudeaketa	2 hilabetez ez ordaintzeak baja ekarri du	Ziurtagiria, zehaztuz noiztik eta zeintzuk zeuden altan	2021-04-30	email	?	17



erreg	kexak	GAIA	Edukia	Eskaera	Data	Erantzuna	Data	erreg
17	17	kudeaketa ikast.	Udal kirol ludoteka asteka egitea	2014an jaiotako umeak sartzea	2021-05-06	whatsapp	2021-05-06	18
18	18	kudeaketa COVID19	Eremu gorrian apirilaren 7tik maiatzak 8ra arte	Epe horretako kuota itzultzea	2021-05-12	tel.	2021-05-12	19
19	19	kudeaketa ikast.	Ikastaroa, aerobik eta zumba eskaintza	udako ikastaroen eskaintza zabaltzea	?	?	?	20
20	27	kudeaketa COVID19	Igerilekuan aforo-mugak ez dira betetzen	Erabakiaren zergatiak eta ardurak	2021-03-21	?	?	21
21	28	kudeaketa ikast.	Pilates ikastarora ezin joan	Kuota bueltatzea	2021-04-27	whatsapp	2021-05-21	22
22	29	kudeaketa ikast.	KFIT ordutegi txarra. Atletismokoekin koordinatzea.	Ez zaie egokia iruditzen. Eskubide berdinak	2021-04-30	whatsapp	2021-05-21	23
23	30	kudeaketa ikast.	GYM aretoan 3 egunetan bakarrik erreserba daiteke. Arazoak mugikorrarekin aldatzeko	Zati proportzionala kobratzea	2021-03-30	?	?	24
24	31	kudeaketa	Igandean ig txikiko temperatura baxuegia	Larunbateko temperatura mantentzea	2021-05-23	whatsapp	2021-05-21	25
25	32	kudeaketa ikast.	Yoga ikastaroan baja	Dagokion dirua itzultzea	2021-04-23		2021-04-30	26
26	33	kudeaketa COVID19	Etzeratuta egon behar izanagatik	Azken 3 hilabetekoa bueltatzea	2021-05-05	whatsapp	2021-05-21	27
27	34	kudeaketa ikast.	Ikastaroan baja	Dagokion dirua itzultzea	2021-05-05		2021-05-21	28
28	35	kudeaketa ikast.	Eskalada ikastaroa	4 umeekin ikastaroa ateratzea	2021-05-17	tel.	2021-06-18	29
29	36	kudeaketa ikast.	Eskalada ikastaroan % 50ean joan naiteke	Zati proportzionala kobratzea	2021-09-17	whatsapp	2021-09-28	30
30	37	kudeaketa	Patinete elektrikoa uzteko lekua	Segurtasunarengatik	2021-09-30	email	2021-09-30	31
31	38	kudeaketa	Padel erreserba sistemarekin arazoak	Funtzio egokia ziurtatzea. Beste erabiltzaileek tranparik egin gabe	2021-10-27	whatsapp	2021-10-28	32
32	39	kudeaketa ikast.	Igeriketa ikastaroan maila arazoak 4 urteko umeak	Ikastaroan baja ematea	2021-10-19	?	?	33
33	40	kudeaketa COVID19	Escola kiroleko partidan ikusleak debekatzea	Zentzuzko arauak normalizazio bidean	2021-11-13	whatsapp	2021-11-18	34
4	41	kudeaketa COVID19	Aurretiko txanda hartzearen arazoia jakin nahi	Aurretiko txanda kentzea. Tolosako arauak non hartzen dira?	2021-11-11	whatsapp	2021-11-18	35
35	42	kudeaketa ikast.	Gaixotasunarengatik ezin igeriketa ikastarora joan	Kuota bueltatzea	2021-11-17	?	?	36
36	43	kudeaketa	Semeak 17 urte izanik, 18 balitu bezala kobratu zaio	Kuota egokitzea	2021-10-26	whatsapp	2021-10-29	37
37	44	kudeaketa COVID19	Relax gunean aforoa gaintuta astelehenean	Asteazkenerako gaia zuzentzea	2021-12-06	?	?	38
38	45	kudeaketa COVID19	Baja COVID ziurtagiria eskatzeagatik	Usabal ixtea	2021-12-20	aurrez aurre	2021-12-28	39
39	46	kudeaketa ikast.	Padel ikastaroan umeak apuntatu, baina gero ia ez dira joan	Zati proportzionala bueltatzea	2021-12-03	?	?	40

Ok erantzuna = % 73,91
 ? erantzuna = % 17,39
 erantzun data = % 65,22

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



Bestalde, **33** kexa jaso dira mugikorretik (jaz baino 22 gehiago).

WHATSAPP ZERBITZUA 2021

	HARREMANA K GUZTIRA	Galderak eta azalpenak	Erreklamazioak	Arazoa
Urtarrila	14	11	3	-Batzuk maskararik gabe fitnessen -Zergatik dutxak itxita? -Erreserba plataforma
Otsaila	11	10	1	-Ikastaro batean diru itzulketa partziala
Martxo	7	5	2	-Berazubiko padel argiei buruzkoa. -Erreserbak zergatik
Apirila	4	3	1	-Zergatik kendu dira rokdromoko poleak
Maiatza	13	10	3	-Zergatik lehorgailuak geldirik. -2 Itxiera perimetrala dela eta itzulketa
Ekaina	18	14	4	-2 Jendea maskara gabe -Zergatik kfit gela itxita? -Ikastaro baten dirua itzultzea
Uztaila	13	10	3	-2 Fitness gelan beroa -Liztorrak solariumean
Abuztua	3	3	0	
Iraila	29	25	4	-Desadostasuna: orain matrikula kentzea konfinamenduan baja eman zutenei. -Gazteak relax gunean. -Maskara gabe fitnessen -Itxiera perimetrala dela eta dirua itzultzea
Urria	16	13	3	-Presatuta -Kfit gelako materialari buruz -Padeleko erreserban jendeak preferentzia izatearen susmoa
Azaroa	9	5	4	-Igeriketa ikastaro bateko dirua itzultzea -Igerilekuko aldagelan arazoak ziklokoekin -Guraso eta seme bat elkar bildu gabe alta emanda. -Ikastaro bateko dirua itzultzea
Abendua	19	14	5	-17etan ilunpetan rokdromoan -Berazubini beti berdina muskorik gabe -Sarrera blokeatu Covid ziurtagiririk gabekoei. -Gazteak span galtzontziloak bainujantziaren azpitik. -Agiria bai, baina betikoak muskorik gabe Berazubini
	156	123	33	

Udal webguneko “Parte hartzen” ataletik 2 kexa jaso dira:

1-

udako umeen igeriketa ikastaroak

Irukin berri bat gehitu

Egunon! Gaur ekainak 2 ireki dituzte udako umeen igeriketa ikastaroetarako inskripzioak. ONLINE EGITEKO POSIBILITATERIK EZ, telefonoz deitu eta haimaiketarik aurrera deitzeko bertan ilarak daudelako inskripziorako. Urte osoko abonatuak garenok ez dugu preferentziarik, nola da posible? bereziki urte honetan izan ditugun baldintzetan urte osoan mantendu izanak ere ez duzute kontutan hartzen? pilaketak saiestu behar direla eta jendea ilaran??? Ordugegi horretan bertaratzerik ez dugunik eta bazkide garenak inskripzioa egiteko beste biderik ez izatea LOTSAGARRIA iruditzen zait. Mesedez kontuan hartu bazkide garenok esfortzu bat egiten dugula urte osoan mantetzean eta bizi izan dugun egoeran bikoitza. Eskerririk asko.

L.E.S. 2/6/2021 09:38

Tolosako Udala: Kirol Teknikaria

Egunon! Gaur ekainak 2 ireki ditu udako umeen igeriketa ikastaroetarako IZEN-EMATEAK eta Usabal kiroldegiko kudeatzaileak ez du ondo neurtu izango zen eskaera-maila. Bestalde, IZEN-EMATEA ONLINE edo TLF-z egiteko aukera eman da eta halaxe egin behar zen. Bistan da ez dela informazioa eta zerbitzu egokia eman lehen orduan, baina egia da ere, zuen laguntzari esker jakin dugula arazoaren berri eta neurriak jarri direla: 2 pertsona izen-emateak aurrez aurre egiten eta beste bat telefonoaren arretan. Esandakoa barkamena eskatzea besterik ez zaigu tokatzen, mila esker idazteagatik Ondo izan

2/6/2021 11:39

Irukin berri bat gehitu



2.-

Aipamen
negatibo
gutxi
aurten.

Kiroldegia, pandemiatik salbu?

Irukin berri bat gehitu

Gero eta gutxiago joaten naiz kiroldegira. Badakit zergatik. Ikaragarriko haserrea eragiten didalako ikusteak nola galdu diogun errespetua pandemiari. Duela urtebete komentatu nuen jende askok ez zuela ondo erabiltzen musukoa. Orain, kontu bera errepikatu behar dut. Gaur, abenduak 1, arratsaldeko bost t'erdietan, goiko fitnes gelan, maskarak kokotspan. Behekoan, gizon bat txirringan, musukua ukalondoan duelarik... Zerbait egin beharko du Udalak, ezta? Eta ez saihestu kontua betiko kontzeptuekin. Arauak betetzen ez direnei, zigorra. Musukoa ez duzula erabiltzen, ba duxara eta etxera edota ta epe batez sarrera galerazita. Tamale, azkenean utzi beharko diot kuota ordaintzeari.

J.S.Z. 1/12/2021 20:08

Tolosako Udala: Kirol Teknikaria

Kaixo, Bai egia da diozuna. Emergentsia egoera amaitu zenetik, gizarteko beste esparruetan bezalaxe lasaitu egin da kiroldegian erabiltzaileen musukoaren erabilera eta bere kontrola. Udal kirol instalazioak kudeatzen duen enpresari jakinarazi diogu kontua. Beraz, epidemiologiko egoera ikusirik, batetik, eta enpresaren eskutik egingo den jarraipen aktiboari esker, bestetik, espero dugu joera aldatzea. Bestela, zuk diozun moduan bestelako neurriak hartzera behartu beharko dugu kudeatzaile enpresa. Edonola, ez ahaztu, norbere bakoitzaren konpromiso indibidualen baita dagoela hau guztia. Mila esker zure kexa idatziz bidaltzeagatik

2/12/2021 13:50

Irukin berri bat gehitu

Hobetzeko ditugunak hauek:

1.- **Musukoa** nahitaez erabiltzearen araudia ez betetzea, batez ere gimnasioko guneetan. Nahiz eta pertsona bakoitzaren erantzukizuna izan, ez betetzeak zerbitzuaren irudi onean du eragina. Une honetan, **SEGURTASUNA** bilatzen du banakako abonatuak. Abonatuak **KONTROL** gehiago eskatzen du.

2.- Udal kirol instalazioetan **PASS-COVID ziurtagiria eskatu beharra** izan da aurtengo neurri zailena. Desadostasuna azaldu dute erabiltzaile batzuek, eta egoera deserosoak jasanarazi dizkiete harrerako langileek.

Bi aipamen horiek emakidadunari baino abonatuaren erabilera desegokiari leporatu diezazkiokegu, baina garrantzia handikoa da kontuan hartzea.

3.- **Berazubi estadioko instalazioan gimnasioaren erabilera bateratua.** Berazubiko taldeko gimnasioa enpresa kudeatzailearen eta atletismo taldearen artean partekatzeak ez du zentzurik. Bi eskaintzak dezente handitu dira azken urte hauetan, eta gimnasio bakarrarekin arratsaldeetan ez da nahikoa zerbitzu egokia emateko.



Kasu honetan, arratsaldeko kontrol falta dela eta, abonatuaren eta atletismo taldekoen artean liskar bat baino gehiago sortu da, abonatuaren eta taldearen arteko espazioetan ez delako errespetatzen erreserbatutakoa. Ez da gai berria.

Datu positiboak

Itzulketak eta bajak COVID-19ko pandemiak eragindakoak izan dira gehienak. 2020 urtean (altak eta bajak zenbatuta) 1.788 baja izan genituen, eta **2021 urtean 63 alta izan ditugu.**

Bestalde aipatu beharrekoa da, 2021 urtearen hasieran Usabal kiroldegiko **telefonoaren kudeaketan** genuen **ahulezia konpondu dugula.** Harrerako langileek telefonoa hartzeko zitzuten ohiturak eta prozedurak aldatu dira, Udaletxetik bultzatuta, eta aldaketa nabarmena izan da zerbitzuan.

1.3.- Hauek dira, laburbilduta, telefonoaren kudeaketako 2021eko datuak:

USABAL: TELEFONO ZERBITZUAREN KONTROLA

2021	Guztira	Hartutakoak	Komunikatzen	Hartu gabeak
GUZTIRA	13552	11471	1533	557
		% 84,64	% 11,31	% 4,11

Usabal kiroldegiak duen dei bolumena handia da: 13.552 urtean, 31 dei egunero, eta % 4 bakarrik gelditzen da hartu gabe. Alegia, dei bat egunean, batez beste, ez dena hartzen.

BERAZUBI: TELEFONO ZERBITZUAREN KONTROLA

2021	Guztira	Hartutakoak	Komunikatzen	Hartu gabeak
GUZTIRA	593	451	105	37
		% 76,05	% 17,71	% 6,24

Berazubi estadioan, aldiz, dei kopurua mugatua da, baita aurrez aurreko zerbitzua ere.

1.4.- Balorazioa:

Kontutan hartuz, eguneko **1.500**etik gorako erabilera-kudeaketa 361 egunetan eginda hamaika gertakizun suerta daitezkeela, eta oinarri hartuta, batetik, kudeaketaren inguruko **idatzizko kexak**, whatsapp erabilera eta "Parte hartzen" ataletik jasotako kexak, eta bestetik, ditugun beste datuak, honako hau proposatzen dut:



Edukia	Emandako puntuak	Gehienezko puntuak
Kudeaketa	% 5	Gehienez % 5

2.- GARBIKETAREN ADIERAZGARRIEN EBALUAZIOA

2.1.- Garbitasun maila

Urtariletik abendura bitartean egindako ikuskapenen ondorioz esan genezake Usabal kiroldegia garbi irekitzen dela.

Zerbitzu honi beste bi eraikin erantsi zitzaizkion 2017an, eta une honetan, 50.000 m² dira garbitzeko. Uzturpe eta Beotibar frontoiak garbiagoak daude orain lehen baino. Berazubi estadioan eta Usabal kiroldegian arratsaldeko txandak indartu dira.

2.2- COVID-19

Une honetan, erabilitako instalazioak desinfektatzeari garrantzia kendu diogu, eta aldiz, egoki aireztatzeari eman diogu indar handiagoa.

Aipatu behar da, datozen urteei begira COVID-19aren krisi honek zerbitzuan aldaketak ekarriko dituela: etorkizuneko inbertsioetan, zerbitzua emateko moduan eta eremuan aldaketa ekarriko duela.

Kirol instalazioak inoiz baino garbiagoak eta desinfektatuak daude. Kirol taldeen erabilera hainbeste mugatu denez, gutxiago zikintzen dira eta taldeen protokoloan desinfekzioa sartuta dagoenez, ondorioa da garbiago daudela instalazioak. Urte zail honetan, plangintza eta antolakuntza egokia egin da garbiketaren aldetik, eta abonatu kopuruen eta zerbitzuen murrizketak kontuan izanda, ontzat eman behar da atal hau.

2.3- Kexak

Aipatu behar da, urte osoan ez dela jaso **kexa idatzi bakar bat ere**.

Horregatik, eta egindako ikuskapenak kontuan hartuz hauxe proposatzen dut:

2.4.- Balorazioa:

Edukia	Emandako puntuak	Gehienezko puntuak
Kudeaketa	% 5	Gehienez % 5



3.- MANTENTZE-LANEN ADIERAZLEEN EBALUAZIOA

Urtarrietik abendu bitartean egindako ikuskapenen ondorioz (2. eranskina), esan daiteke Usabal kiroldegiaren handitasuna, inbertsioa, konplexutasuna, erabilera eta eskari energetikoa dela-eta, **zaintza berezia** behar duela.

Mantentze-lanei dagokienez, abonatuaren eskutik **idatzizko kexarik ez dago** (iaz 4). Lan bikaina mantentze-lanetako taldea egiten ari dena, kontuan hartuta udal kirol eraikinen antzintasuna gora doala. Nabari da, baita ere, zerbitzu hau indartzea erabaki zela 2019. urtean, jabetzaren eskaerak lehenago bidera zitezen.

Bestalde, 25 errekerimendu (iaz 22) bidali ditut emailearen bitartez, **255 eskaera** (iaz baino 43 gehiago). **Erantzuteko abiadura hobetzen ari da urtez urte.**

Kontuan hartu behar da nahitaezkoa dela instalazio honetan mantentze-lanak egitea eta gero eta nabarmenagoa izango dela behar hori. Beraz, garrantzitsua da bi aldeen artean koordinazioa eta efizientzia egotea. Nahitaezkoa da eragile pribatu eta publikoaren artean harremana ona eta koordinatua izatea kirol ekipamenduetan eta zerbitzu publikoaren kudeaketan eraginkorrak izateko.

Atal honetan esan beharra dago **hilabeteko epean** konpontzen diren arazoak % **85,86** direla. **Iazkoarekin alderatuz 10 puntu hobetu da.** Hiru hilabeteko epean % 91,76 ingurukoa da.

Urte bukaeran, egingarriak diren eskakizunen % **90etik gora** osatu dira.

2.1.- 2021eko geldiuene teknikoa:

COVID-19aren 4. olatuak harrapatuta, ez genituen inauteriak ospatu, eta ondorioz, geldiuenerik ez egitea erabaki zen. Usabal kiroldegia ireki egin zen eta udarako utzi zen igerileku handia husteko lana.

Bestalde, kogenerazioaren mantentze-lanen kudeaketa 2015etik aurrera asko hobetu du kontratak. Beroa ekoizteko erabilgarritasuna, eta ustiapen kontuaren onura ekonomikoa ere bai.

Kontuan hartzen baditugu, batetik egindako ikuskapenak, bestetik, bildutako datuak, eta, aurrean dugun superabita (5.417,45 €) kogenerazioaren salmenta dela eta:

2.2.- Balorazioa:

Edukia	Emandako puntuak	Gehienezko puntuak
Kudeaketa	% 8	Gehienez % 8

ESKU184068de-735b-4b12-9c8d-177a4141efb4



4.- ADIERAZLE OROKORRAK

4.1.- Kontratua luzatzea:

2021 urtea luzapeneko urtea izan da. Pandemiari aurre egiteko berronkatze ekonomikoa onartu zen eta luzapena 16 hilabetez egin zen. Gero bigarren aldiz, Udalak beste 3 hilabetez luzatu zuen kontratua eta zegoen kopuru ekonomikoa ordainduz kontratuaren emakidadunari, lizitazio berria ateratzeko denbora izateko.

4.2.- Lizitazio berria:

Behin betiko udal kirol instalazioen kudeaketa integralaren lizitazioa 2021eko iraileko Osoko Bilkuran onartu zen: Kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuaren emakidaz gauzatzea eta 10 urterako esleitzea onartu zen. Azpiegiturak egoera onean edukitzeko enpresa esleipendunak instalazioak mantentzeko, berritzeko eta hobetzeko inbertsioak egin beharko ditu, 1.730.000 euroko aurrekontuarekin.

Bestalde, balio zenbatetsia, guztira, 4.570.531,22 eurokoa da; urteko ustiapen aurrekontua 2 milioi ingurukoa izango dela aurreikusi da. Modu honetara, Udalak, kirol instalazioak egoerarik onenean mantendu nahi ditu, herritarrei eskainitako zerbitzu eta azpiegiturak egokiak eta kalitatezkoak izan daitezen. Zerbitzuak hobetzen jarraitzeko helburuarekin, hainbat hobekuntza ere txertatu dira lizitazioan, bereziki ordutegiari lotutakoak. Ordutegia zabaldu egingo da, astean zehar 07:00etatik 22:00etara, eta jai egunetan 08:00etatik 14:00etara egongo dira irekita kirol instalazioak.

4.3.- 2021eko balorazio ekonomikoa:

Balorazio ekonomikoa, gutxiatik bada ere, **positiboa da aurten, nahiz eta COVID-19ak hiru aldiz kolpatu duen jarduera**. Datu ekonomikoak ez dira onak ohiko urteekin alderatuz, baina ezta txarrak ere. Abonatuen kopuruan jaitsiera geratu da eta ikastaroetako parte hartzaileen kopurua, aldiz, hainbesteko edukiera mugekin (% 35-50) nahiko ondo joan da.

Aurten nahitaezko gastuetara mugatu da kontrata, halaxe adostu dugulako, eta honek inpaktu negatiboa txikitu du urteko kontuen itxieran.

4.4.- 2021eko inbertsioak:

2020 urtean bi inbertsio nagusi egin zituen udalak: Usabal futbol zelaia berritzea eta Uzturpeko estalki osoa aldatzea. 2021. urtean ez da inbertsio nabarmenik egin.

Bestalde, kontratak duen publikotasunaren ikuspegi eraginkorra aipatu nahiko nuke aurten ere. Nahiz urte zaila izan, ez die muzin egin Udalak eskatutakoei.

4.5.- Abonatu kopurua:

Jabetzak kontuan hartzen du Euskal Herriko handienetakoa den kiroldegia kudeatzeaz gain, pandemia urtean **oreka finantzarioa lortu dela**, nahiz eta 3. 4. 5. eta 6. olatuen



eragina zuzena jasan. Mugikortasuna eta edukierak erabat murrizturik egon izanak ez du kalte gehiago eragin eta Tolosaldeko herritarrek kirola egitearen aldeko apustua egin dute. **2021. urtean 63 alta egon dira.** Horiek horrela, 11.921 abonatu izatetik 9.798 izatera pasa ginen 2020 urtean, eta **2021 urtean 9.861era.** Horietatik % 71,51 tolosarrak dira, eta **herritarren % 35 Usabal kiroldegiko abonatuak** dira. Ohiko ratioen oso gainerik.

Sexuari erreparatzen badiogu, % 46,72 emakumezkoak eta % 53,18 gizonezkoak dira udal kirol instalazioetako abonatuaren artean. Jaitsiera nabarmena gertatu zen iaz emakumeen artean, % 3koa, baina aurten ez da horrelakorik gertatu. Zuzendutako jardueretan emakumeen parte-hartzea % 90 ingurukoa da.

Familia ugarien ehunekoa beste kiroldegietakoa baino handiagoa da Usabalen, ditugun tarifek hori hobesten dutelako: 2.175 pertsona dira guztira (iaz baino 90 gehiago), abonatuaren % 22,06.

Kirol instalazioak COVID-19 pandemiara egokitzeak **lan eskerga** ekarri du Usabalgoguneko kudeaketan; baita bere gastuen orekan ere.

4.6.- Baja kopuruak eta arrazoiak:

Urteko bajak 1.319 dira, (2.180 iaz) eta 1.382 altekin konpentsatu da abonatuaren kopurua. Abonatu izateari uzteko arrazoi nagusia COVID-19 da. % 42,83 (iaz 77,16). Erabilera eza % 40 (6,4 iaz), ez ordaintzea % 15,10koa (iaz 7,5). Azkenik, esan behar da ez dagoela zerbitzuari loturiko bajarik.

4.7.- Kirol taldeei lekua:

Irailaren erdialdera kirol talde guztiekin bildu ginen 2021-2022 denboraldiko erabilerak adosteko. Egoera erraza ez izan arren, kirol taldeek harmailetan ikusleak izateko borondatea agertu zuten, baita aldagelak erabiltzeko asmoa ere. Beraz, Kirol Sailean erabaki genuen baiezkoa ematea, beti ere, harmailak eta aldageletako sarbideak kudeatzeko erantzukizuna klubak hartuz gero.

Aipatu behar da, Klubetako kirolariak abonatuak direla edo entrenamendu-kuota ordaintzen dutela. COVID-19aren murrizketen ondorioz ere urte berezia izanik, emakidadunak klubeko kirolarien sarreraren kontrolaren jarraipena malgutu du, batez ere pandemiaren arriskuak txikitzeko erabileren sektorizazioaren aldeko apustua egin delako.

4.8.- Eskakizun kopurua:

130 email bidali ditut, iaz baino 141 gehiago, **1.160** whatsapp jaso eta bidali ditut arazoak zuzentzeko, egindakoak eskertzeko edota eginbeharren aholkuak emateko. Nire ustez, horrela jarraitu behar dugu gure eskakizun mailarekin.



Bestalde, kontuan hartu behar dugu langileen batez besteko adina gora doala, batez ere udal langileen artean. Dagoeneko 2 kirol monitorea hartu dute erretiroa.

4.9.- Langileen baja kopurua:

Aurten, langileen baja kopurua nabarmen handitu da iazkoarekin alderatuta, eta bi aldeetan teoriar onartuta dugun ohiko % 3tik urruti gabiltza. Langileen batez besteko adina gora doa eta kontuan hartzeko kontua da hori.

Lan uzteen ehunekoak: 2021: Udal langileak % 40,69 Kontratako langileak % 7,7	Lan uzteen ehunekoak: 2019: Udal langileak % 4,57 Kontratako langileak % 4,77
Lan uzteen ehunekoak: 2020: Udal langileak % 22,81 Kontratako langileak % 6,41	Lan uzteen ehunekoak: 2018 Udal langileak % 13,5 Kontratako langileak % 8

4.10.- Beste datu batzuk:

Eguneroko erabilerak: 820 (iaz 650) lagunek erabili dute Usabalgo kiroldegia egunero batez beste. Ohiko datuak berreskuratzen.

Eguneko sarrera kopuru handiena 2021ean: 1.533 (iaz 1.450) izan da.

Usabal eta Berazubi udalaren kirol eraikinak 3 egunetan besterik ez dira egon itxita: abenduaren 25 eta 31n, eta urtarrilaren 6an. Aldiz, Uzturpe eta Beotibar, 3 egun horiez gain, abuztuan ere itxita egon dira.

Itxaron zerrendarik ez dago aurten.

Zerbitzuari dagozkion datu gehiago eman ditugu: ezohiko ekintzak, erabilerak, mantentze-lanak, hobekuntzak, istripuak, uraren kalitatea, erreklamazioen kudeaketa eta abar. 2021eko memorian kontsulta daitezke. Aurtengoa urte oso gogorra izan da alde guztietatik ikusita. 3. 4. 5. eta 6. olatuek kolpatu dute zerbitzua. Pozteko bakarra da ez dugula istripu larririk izan.

Edonola ere, goraiatu behar da Kirolzer, SLeK 2021 urtean Tolosako Udalaren eskakizunak betetzeko, bere betebeharren gainetik egindako lan ona.

Horiek guztiak kontuan hartuta, honako puntuazioa proposatzen dut:

4.11.- Balorazioa:

Edukia	Emandako puntuazioa	Gehienezko puntuak
E. Orokorra	% 2	Gehienez % 2 arte



Adierazleen puntuazio laburpena:

Edukia	Emandako puntuazioa	Gehieneko puntuazioa
E. kudeaketa	% 5,0	% 5 arte
Garbiketa	% 5,0	% 5 arte
Mantenua	% 8,0	% 8 arte
E. Orokorra	% 2,0	% 2 arte
GUZTIRA:	% 20	% 20 arte

Beraz, onura finkoa %15 + Kudeaketa lan onarengatik % 20 = **GUZTIRA: % 35**

KANON ALDAGARRIAREN LIKIDAZIOA	LIQUIDACIÓN CANON VARIABLE
<p>Likidazioa kalkulatzeko formula: onura finkoa (% 15) + onura aldagarria (% 20) = % 35.</p> <p>Usabal kiroldegiaren 2021eko ustiapen-kontua ikuskatu ondoren, lortutako emaitza ekonomikoa 19.308,30 euroko irabazi garbia izan da: 2021eko emaitza (182.401,70 euro) eta 2020ko galera (-163.093,40 euro) bame.</p> <p>Horiek horrela, Kirolzer, SL enpresarentzat % 35eko zatia litzateke, alegia, 6.757,90 euro. Aldiz, Tolosako Udalarentzat, % 65; alegia, 12.550,40 euro.</p>	<p>Fórmula para el cálculo de la liquidación: beneficio fijo (15%) + beneficio variable (20%) = 35%</p> <p>Auditada la cuenta de explotación del polideportivo Usabal del año 2021, el resultado económico obtenido es de un beneficio neto de 19.308,30 euros: Incluido el resultado del año 2021 (182.401,70) euros y la pérdida del año 2020 (-163.093,40) euros.</p> <p>Siendo esto así, se propone una liquidación de beneficios del 35% para Kirolzer, S.L., es decir, 6.757,90 euros; y del 65% para Tolosako Udala; es decir, 12.550,40 euros.</p>
<p>PROPOSAMENA:</p> <p>Beraz, Kirolzer S.L. enpresak Tolosako Udalari ordaindu behar dion 2021eko kanon aldakorra 12.550 eurokoa da.</p>	<p>PROPUESTA:</p> <p>Por tanto, el canon variable correspondiente al año 2021 que debe abonar Kirolzer S.L., al Ayuntamiento de Tolosa es de 12.550 euros.</p>

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu ondoren, emaitza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 7 (Xarles Iturbe, Joseba Ormazabal, Joxe Mari Villanueva, Ander Figuerido, Xabier Martinez, Aitzol Gartzia)
- Kontrako botoak:
- Abstentzio botoak:



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Usabal kiroldegiko kudeaketa kontratuaren 2021. urteko ustiapen kontuko kanon aldagaiaren likidazioa.

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe zinegotzia aretoan sartu da.

11. BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO GOBERNANTZA, PARTE HARTZE ETA GARDENTASUN ORDENANTZARI.

Herritarrek batzorde Informatiboaren 2022ko maiatzaren 18ko irizpena

AURREKARIAK

2021eko urriaren 28an, Udaleko osoko bilkuran, Tolosako Udalean ordezkaritza politikoa duten alderdi guztien aldeko botoarekin onartu zen Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri zen 2021eko azaroaren 29an. Iragarkia publiko egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hogeita hamar eguneko epea zabaldu zen herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez zitzaten.

Epe horretan, Tolosako Udaleko idazkariak, Begoña Garmendiak, "alegazio eta iradokizunen idatzia" aurkeztu zuen zenbait zuzenketa eta aldaketa proposamenekin, urtarrilaren 10eko datarekin, idazkariaren iritziz herri-kontsultak eta galdeketak arautze dituen atalean aldaketa batzuk egin behar zirelako, indarrean dagoen legea betetzeko.

Komunitate eta Gobernantzako teknikariaren txosten teknikoaren bitartez dokumentu horretan egindako alegazio eta iradokizunei behin betiko erantzuna eman nahi izan zaie, alegazio eta iradokizun horiei emandako erantzunaren arabera ordenantza egokituz eta behin betiko erredakzioa proposatuz, beti ere azken erabakia Tolosako Udaleko Udalbatzari baitagokio.



ALEGAZIOAK

LEHENA.- Erregelamenduaren 52. artikulua Sinadurak biltzea, autentifikatzea eta aurkeztea arautzen du. Artikulu horrek, besteak beste, sinadurak plataforma digitalaren bidez jaso daitezkeela arautzen du. Hala ere, plataformak bete behar dituen gutxieneko baldintzak ez dira inon jasotzen. Izan ere, artikulua ez du inolako xedapenik aurreikusten honako hauek bermatzeko: sinaduraren benetakotasuna, aldaezintasuna eta osotasuna, data eta ordua, onartutako sinadura-ziurtagiriak, komunikazioen traza... Idazkariak balidatzeaz gain, arauak xedatu behar ditu plataformak bete behar dituen gutxieneko baldintzak.

Adibide moduan, Donostiako Udalak, herritarren kontsultak arautzen dituen Erregelamenduan, honako xedapenak zehaztu ditu:

“Sistema horrek alderdi hauek bermatu behar ditu beti nahitaez: a) Parte hartzailea identifikatu ahal izateko ziurtasuna. b) Pertsona berberak behin baino gehiagotan parte hartzeko ezintasuna. c) Pertsona berak sinatuko duelako ziurtasuna. d) Behar besteko gardentasuna, behaketa eta gainbegiraketa independente (sic) eta funtsatua egin ahal izateko.”

Erantzuna / Soluzioa: Plataformak bete behar dituen gutxieneko baldintzak zehaztuko dira 52. artikuluan.

BIGARRENA.- 53.artikulua sinadurak modu eraginkorrean biltzearen ondorioak arautzen ditu. Erregelamenduaren 53.1.c) artikulua ezarri duenez, osoko bilkurak onartu egin behar du herritarren ekimen baten bidez egindako herri-kontsultaren proposamena. Xedapen horrek urratu egiten du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 80.4 artikulua. Izan ere, artikulu horrek hau xedatzen du: Udal-talde politikoaren ekimenak gorabehera, lehenengo paragrafoan aipatzen diren herri galdeketen eskaerak osoko bilkuraren oniritzipean jarri beharko dira, abiapuntua herritarren ekimena izan bada. Udalerriak 5.000 biztanle baino gehiago baditu, errolatutako auzotarren % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dute ekimena, eta 5.000 biztanle edo gutxiago baditu, auzotarren % 20k. Hori eginez gero, udalak tramitea emateko prozedura irekiko du eta prozedura zehaztuko. Beraz, herri-kontsultarako ekimenaren ondorioa da **espedientea izapidetzea eta plenoaren aurrean aurkeztea, ondoren udalbatza osoak dagokion erabakia har dezala, gehiengo absolutuz.**

Erantzuna / Soluzioa: 53.1.c artikuluan osoko bilkurak “onartu” esaten duen lekuan **“espedientea izapidetzea eta plenoaren aurrean aurkeztea, ondoren udalbatza osoak dagokion erabakia har dezala, gehiengo absolutuz”** jartzea.

*60.2 artikuluan: % 10 jartzen duen tokian % 20 jarri behar da.

HIRUGARRENA.- Hasiera batean onetsitako Erregelamenduak, 54. artikuluan, bi kontsulta mota daudela onartu arren (hiru dira, egia esan), ia batere desberdintasunik gabe arautzen ditu kontsulta orokorrak, hala sektorekoak, nola lurralde-eremu partzial batera mugatutakoak.

Lehenik eta behin, gogoratu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 80., 81. eta 82. artikuluek hiru kontsulta-mota arautzen dituztela:

1. Erreferendum izaerako herri-kontsulta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 71. artikuluan eta ETELen 80. artikuluan arautua. Herri-kontsultak deituko diegu, eta gainerakoei, hiri-kontsultak, termino bereizgarri bat



ezartzeko.

2. 81. artikuluan araututako kontsulta sektorialak edo lurralde-eremu mugatukoak.

3. Toki-izaerako herri-kontsulta irekiak, politika publikoei edo garrantzi bereziko erabaki publikoei buruzkoak, 82. artikuluan arautuak.

Xedapen horiek Lurralde Administrazioetarako Estatu Idazkaritzaren 2017ko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez interpretatu behar dira. Ebazpen horren bidez argitaratzen da Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Erabakia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeari buruzkoa (2017ko otsailaren 17ko BOE):

«• En relación con la participación de los mayores de 16 años y menores de 18 años en las consultas populares de los arts. 80 y 71: Ambas partes entienden que el citado apartado del artículo 80 de la Ley, de conformidad con el bloque de la constitucionalidad y la normativa estatal de aplicación, ha de interpretarse en el sentido de que el aludido carácter excepcional del supuesto previsto en el apartado 5 debe entenderse referido a las consultas sectoriales o de ámbito territorial limitado, cuyo destinatario no incluya el conjunto de ciudadanos que tienen reconocido el derecho de sufragio activo en un determinado ámbito territorial, es decir, el cuerpo electoral de dicho ámbito. Por tanto en los supuestos del artículo 80.5 debe entenderse de aplicación el régimen previsto en el artículo 81 de la Ley. Por tanto, en las consultas populares del art. 80 solamente pueden votar las personas mayores de edad inscritas en el **censo electoral**.

• Con respecto a las consultas ciudadanas abiertas: Ambas partes consideran que el artículo 82 de la Ley del País Vasco 2/2016, de 7 de abril, de conformidad con el bloque de la constitucionalidad y la normativa estatal de aplicación, ha de interpretarse en el sentido de limitar su aplicación, en este caso respecto de las consultas locales, a las consultas municipales a que se refiere el artículo 81, es decir, a las consultas de naturaleza sectorial o de ámbito territorial limitado, excluyendo por tanto la aplicación de lo dispuesto en los artículos 81 y 82 a aquellas consultas cuyo destinatario incluya el conjunto de ciudadanos que tienen reconocido el derecho de sufragio activo en un determinado ámbito territorial, es decir, el cuerpo electoral de dicho ámbito.»

Konstituzio Auzitegiak kontsultek **erreferendum izaera** duten ala ez jakiteko jurisprudentziak egindako interpretazioan du jatorria akordio honek, eta biak bereizten ditu **hautetsontzietara deitutako subjektuaren arabera**. Horrela, udalerrri baten kasuan, kontsulta batek erreferendum izaera izango du hautesle guztiei, hau da, **errolako hautesle guztiei, botoa emateko deitzen zaienean**. Eta ez da erreferendum izaerakoa izango, edo sektoriala, edo lurralde-mugatua, hautesle-kidegoaren zati bat bakarrik deitzen denean, dela biztanleriaren sektore jakin bati eragiten diolako, dela kontsulta udalerrriaren zati batera mugatzen delako.

Erantzuna / Soluzioa: *Jakinda ere hiru kontsulta mota bereizten dituela legeak, arautegi honetan, sinplifikatzearen, bi bereiztearen aldeko hautua egin zen, errolako hautesle guztiei botoa ematekoak eta bestelakoak; hau da, herri osoa deitzeko kontsultak eta herri osoari zuzenduak ez direnak. Aldiz, legeak ezarritakoa kontuan hartuz eta alegazioak zehaztutakoari jarraituz, egokiena hiru kontsultak bereiztea da, legearekiko zintzotasuna eta legea eta ordenantzaren arteko koherentzia mantentze aldera. Hiru kontsulta motak sartu dira bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz.*



ERREFEREDUM IZAERAKO KONTSULTAK (TAOL 71. artikulua, ETEL 80. artikulua)

Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25eko 31/2015 Epaiak honela adierazten du: : FJ OCTAVO, *in fine*: **La STC 103/2008, de 11 de septiembre (EDJ 2008/143563), identificó la noción de referéndum por referencia al cuerpo y al procedimiento electorales, esto es, al censo, a la Administración electoral y a unas “garantías jurisdiccionales específicas” (FJ 2). Pero no se colige de ello que la eventual desfiguración legislativa de lo dispuesto en la LOREG impidiera reconocer que una determinada consulta o tipo de consulta tuviera, conforme a su naturaleza intrínseca, la condición efectiva de referéndum, por irregular que su ordenación legal pudiera ser. La acomodación a la legislación electoral general es condición, como la propia Sentencia dijo, de que la voluntad del cuerpo electoral pudiera estimarse “válida y legítimamente” manifestada (FJ 2). Pero dicha acomodación no puede ser, sin contradicción con el sentido del art. 149.1.32ª CE (EDL 1978/3879), condición para la identificación de una consulta como referendaria.**

En definitiva, por cuerpo electoral debe entenderse el órgano formado por el conjunto de personas a las que se les reconoce derecho de sufragio, no en atención a sus particulares intereses, sectoriales o de grupo, sino para manifestar la voluntad generalEn esta línea, el “Registro de participación en consultas populares no referendarias” (art. 6) es materialmente un censo, del mismo modo que el “procedimiento de las consultas populares no referendarias” (arts. 10 a 29) y las “reglas especiales para las consultas populares no referendarias de iniciativa ciudadana” (arts. 30 a 39) constituyen un procedimiento de naturaleza electoral; y, asimismo, es una organización administrativa de carácter electoral la conformada por la Comisión de Control, las comisiones de seguimiento y las mesas de consulta electorales (arts. 13 a 20). Por lo demás, la ausencia de previsión expresa de una garantía contencioso-electoral no impediría la intervención de la jurisdicción contencioso-administrativa, al tener que actuar siempre la Administración “con sometimiento pleno a la ley y al Derecho” (art. 103.1 CE (EDL 1978/3879)), al tiempo que el art. 106.1 CE (EDL 1978/3879) establece que “los Tribunales controlan la potestad reglamentaria y la legalidad de la actuación administrativa, así como el sometimiento de ésta a los fines que la justifican”, “auténtica cláusula regia del Estado de Derecho” (STC 103/1996, de 11 de junio, FJ 7) (EDJ 1996/3446). En definitiva, la Ley analizada entra a regular con otro nombre los institutos jurídicos que califican a la consulta popular como referendaria.....FJ NOVENO: De cuanto acaba de exponerse se alcanza la conclusión de que la Ley del Parlamento de Cataluña 10/2014, de 26 de septiembre (EDL 2014/154920), regula -bajo la denominación de “consultas generales”- una verdadera consulta referendaria, articulada como llamamiento al cuerpo electoral a través del voto.....Por el contrario, las consultas sectoriales reguladas en la misma Ley presuponen el llamamiento a un sujeto jurídico más restringido que el cuerpo electoral, en cuanto articulan voluntades particulares o colectivas, pero no generales, esto es, no imputables al cuerpo electoral, por lo que son cauces de participación cuya regulación por el legislador autonómico catalán resulta posible en consideración al título competencial establecido en el art. 122 EAC..... Acontece que el legislador catalán no ha articulado cauces diferenciados para una y otra clase de consultas, sino que, en su generalidad, las disposiciones del Título II de la Ley resultan aplicables a ambas. Siendo esto así, nuestro enjuiciamiento habrá de concluir en la declaración de inconstitucionalidad de aquellos preceptos cuya inteligencia esté indisolublemente ligada a los elementos definidores de las consultas generales, quedando a salvo del reproche de inconstitucionalidad tanto los preceptos



que sólo guarden relación con las consultas sectoriales.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 71. artikuluko udal-galdeketa herrikioen kasuan, Konstituzio Auzitegiak berak ezarri du, urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoak, erreferendum motak arautzeari buruzkoak, arautzen ez baditu ere, aipatutako prozesuek hauteskunde-prozedura bat behar dutela, izapideak lotuz eta prozedurari bermeak ematen dizkion hauteskundeetako administrazio-erakunde batek esku hartuz, emaitza gisa aldarrikatzen dela. Konstituzio Auzitegiaren irailaren 11ko 103/2008 Epaian (EDJ 2008/143563) adierazitakoaren arabera, prozedurazko betekizun hori hiru alderditan adierazten da: hauteskunde-errola bat egitea eta kudeatzea, botoa emateko eskubidea baliatzeko baldintzak betetzen dituzten herritarrak barne; hauteskunde-prozesua behar bezala garatzen dela eta, halaber, botere judiziala, egiazkotasuneko eta benetakotasuneko berme juridikoak ematen dituen; eta berrikuspenerako organo espezifikoak soilik barne hartzen dituen eta jurisdikzio-sistema bat ezartzea. Kasu honetan, udalerriek ez dute berezko gaitasunik herri-kontsulta arautzeko.

Konstituzio Auzitegiaren epai horiek lotu egiten dituzte erreferendum bidezko kontsulta orokorrak eta indarrean dagoen hauteskunde-araudia; izan ere, araudi horrek arautuko ditu hasiera batean onetsitako erregelamenduaren 54.2.A) artikuluan araututako kasuak. Beraz, ezin zaizkio aplikatu 61., 66., 67., 68., 69. eta 71. artikulukoak, bozketa ez presentzialari dagokionez, eta 72. eta 74. artikulukoak. Hortaz, hauteskunde-legeriaren arabera arautuko dira, beste batzuen artean:

- Hautesleen errola egitea eta onartzea. Estatistikako Institutu Nazionalak egindako hauteskunde-errolan izena emanda dauden adin nagusikoek bakarrik eman ahal izango dute botoa.
- Hauteskunde- edo kontsulta-mahaien osaera.
- Kontsulta-prozesua prestatzeko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko lanak.
- Hauteskunde-administrazioaren antolaketa eta funtzionamendua
- Herri-galdeketa zuzenduko duen organoa –Hauteskunde Batzordea– eratzea.
- Kontsultari buruzko informazio- edo eztabaida-kanpaina.
- Kontsulta egitea eta udal-langile laguntzaileen esku-hartzea.
- Kontaketa egitea.
- Kontsultaren emaitzak aldarrikatzea

Erantzuna- Soluzioa: *Proposatutako prozedura zehaztu da arautegian.*

KONTSULTA SEKTORIALAK EDO LURRALDE-EREMU MUGATUKOAK

Kontsulta horiei dagokienez, sinatzailearen ustez, ezinbestekoa da hiru alderdi bermatzea:

1. Hauteskunde-administrazioa edo kontsultaren administrazioa osatzen dutenen independentzia, profesionaltasuna, inpartzialtasuna batetik, eta hauteskunde-araudia eta kontsultak ezagutzen dituztela bermatzea, bestetik.

2. Botoa sekretu- eta askatasun-berme handienekin emango dela bermatzea.

3. Pertsona eta erakunde interesdunek (kontsulta sustatu duten pertsona fisiko edo juridikoek) prozesurako sarbidea eta kontrolatzeko ahalmena izango dutela bermatzea. Hala ere, azken berme horrek ezin du kontsulta-prozesua hutsaldu, azken finean, hauteskunde-prozesua baita. Kontsulta bat sustatu nahi dutenek ezin dute hauteskunde administrazio bihurtu, araudia interpretatuz, ebazpenak hartuz eta boto-emaitzen datu pertsonalak eskuratuz.

Azaldutakoagatik, idazkari honek adierazi du ez dagoela ados Jarraipen eta Kontrol



Batzordearen osaerari buruzko 67. artikularen eta hurrengoek edukiarekin:

- Bere eginkizunak, 69. artikuluan araututakoak, edo teknikoak dira soilik, edo hauteskunde-administrazioari esleitutakoak dira (beste kasuetan Hauteskunde Batzordeei esleitutakoak), eta indarreko legediak funtzionario publikoei oro har edo gaitutako funtzionarioei esleitzen dizkie (aholkularitza juridikoa, kontsulta prozesuarekin lotutako kontsulten ebazpena, hauteskunde-araudiaren interpretazioa, hauteskunde-prozesuaren kontrola eta jarraipena, aktak onartzea...).
- Funtzio horiek indarrean dagoen araudia ezagutzea eskatzen dute, ez bakarrik onartzen den erregelamendua, baita beste arau batzuk ere; batez ere, administrazio arlokoak eta hauteskundeak buruzko legeria.
- 67. artikulua berak baieztatzen du Batzorde horrek autonomiaz eta independentziaz jardungo duela bere eginkizunak betetzean.
- Hala ere, Batzordearen osaera arautzerakoan, 68. artikulua irizpide teknikoetatik ihes egiten du, korporazioaren indar korrelaziora joateko; hau da, irizpide politikoetan oinarritzen dela dirudi.
- Ez da zehazten nor izendatzen dituen batzordekideak, zer baldintza bete behar dituzten, zer ezagutza mota edota esperientzia izan behar duten.... Hala ere, bere eginkizunak Hauteskunde Batzordeak dituen antzekoak dira.
- Ez da xedatzen kide izateko hautaezintasun- edo bateraezintasun-arrazoirik. Era honetan, interes gatazkarik ez gertatzeko inolako prebentzio-neurririk.
- Formulazio honekin, kontsulta prozesuaren kontrolak ihes egiten dio hauteskunde administrazioari, eta prozesuaren kontrola berme juridikorik gabeko erakunde batera pasatzen da.

Ondorioz, hauteskunde-administrazioaren organo izan beharko lukeena —funtzio tekniko argiekin eta irizpide teknikoetan oinarrituta— beste mota bateko erakunde bihurtzen da, **dirudienez, kontsultan interesa duten talde politiko eta erakundeetatik abiatuta**. Horretaz gain, ez da eskatzen indarrean dagoen hauteskunde-araudiari buruzko ezagutzarik edo esperientziarik, eta ez da ezartzen bateraezintasun- edo hautaezintasun-arrazoirik. Bertako kideek bereziki babestutako datu pertsonalak eskuratuko dituzte, hala nola herritarren botoa, eta hainbat kasutan botoaren sekretua urratuko da. Gainera, existitzen ez den eta eman ezin zaien fede publikoa onartzen zaie (hauteskunde-mahaietako aktak). Sinatzen duen idazkariak, fede publikoko eta lege-aholkularitzako eginkizunak betetz, eta indarrean dagoen legeriak ematen dion eginkizuna kontuan hartuta, adierazi du erakunde horri ematen zaizkion ahalmenek urratu egiten dutela funtzio publikoari buruzko legerian, hauteskunde-arloko legerian eta gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat indarrean dagoen araudian ezarritakoa, baldin eta bere osaketarako orain arteko irizpideak mantentzen badira.

Eskema horrek erabat hausten du prozesua zuzendu eta kontrolatu behar duen hauteskunde-administrazioaren eta interesdunen parte-hartze eta kontrolaren arteko bereizketa, eta kontsulta-prozesuak segurtasun juridikorik ezaren esparrura irekitzen ditu, guztiz arbuigarria dena, sinatzen duenaren iritziz. Alegia, kontsultaren antolaketa, zuzendaritza eta kontrola administrazio antolatzaileko funtzionario publikoei dagozkie, eta herritarren partaidetzarako egokiak diren tresnak diseinatu behar dira, aurrekoen zereginetatik at.

Aukera gisa, honako tresna hauek proposatzen dira erreferendum izaerarik gabeko kontsultetarako:

1. Kontsulta-prozesuko hauteskunde-administrazioa honako hauek osatuko dute:
 - a) A. Batzorde tekniko bat, udal-idazkariak, Gobernantzako eta Partaidetzako



teknikariak eta kontsultaren eraginpeko udal saileko arduradunak osatua. Arlo juridikoko teknikari bat ere batzordekide izango da. Denak funtzionario publikoak izango dira.

b) B. Hauteskunde-mahaietan laguntza emateko langileak, hauteskundegaietan prestakuntza dutenak eta kontsulta-mahaiko kideei laguntza eta lankidetzak eskainiko dietenak.

c) C. Kontsulta-mahaia: hiru pertsonak osatuko dute, eta hauteskunde-legeriaren arabera, zozketa bidez aukeratuko dira hiru kide horiek. Posible izango litzateke udal funtzionarioekin osatzea ere, baina aukera horrek ondorioak izango lituzke kontsultaren araubide ekonomikoan. Izan ere, UDALHITZ akordioa aplikatu beharko litzateke. Mahaietan honako hauek bakarrik egongo dira: mahaikideak eta kontsultako sustatzaileen eta udal talde politikoen ordezkariak. Ezin da beste inoren presentzia onartu:

- Izaera pertsonaleko datuetara legez kontrako sarbidea izango lukeelako.
- Botoa ematera joaten diren pertsonak presionatzea ekidin behar delako.
- Kasu guztietan, boto-kontaktak publikoak izango dira.

2. Kontsulta-prozesua kontrolatzeko tresnak:

a) Kontsulta sustatzen duen erakunde bakoitzak eta udal-taldeek ordezkari bana izendatu ahal izango dute mahai bakoitzean, baita boto elektronikoa emateko prozesurako ordezkari bat ere. Ordezkari horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta haien iritzia eta aurkaratzeak bilkuraren aktan jasoko dira. Aurkaratze horiek Batzorde Teknikoak ebatzi beharko ditu, eta ebazpen horiek arrazoitu egin beharko ditu beti. Halaber, Batzorde Teknikoak modu arrazoituan azertu eta ebatziko ditu boto elektronikoi dagokionez egindako aurkaratzeak.

b) Berme Batzordea, honako hauek osatuta: aurreko atalean aipaturiko funtzionarioez gain (Kontsultako Batzorde Teknikoa), kontsulta sustatzen duen erakunde bakoitzak eta udal talde politiko bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du Kontsultako Batzordearen aurrean, honako zeregin hauetarako:

- Kontsultako prozesuari buruzko informazioa lortzeko.
- Izan diren erreklamazioak eta haien ebazpenak ezagutzeko, beti ere izaera pertsonaleko datuak bereizi ondoren.
- Gai orokorrei edo kontsulta-mahai bati baino gehiagori eragiten dieten gaiei buruzko erreklamazioak jartzeko
- Eraginpeko erakundeen eskubide edo interesei eragiten dieten gai guztiei buruzko proposamenak egiteko.
- Berme Batzorde honetan, Kontsultako Batzorde Teknikoko kideek (funtzionario publikoek) gehiengoa izango dute.
- Halaber, Batzorde hauetako kideek Hauteskunde- eta administrazio-legeriaren arloan, oro har, ezagutza egiaztatuak izan beharko dituzte.
- Bai Kontsultako Batzorde Teknikoko kidea izateko, baita Berme Batzordeko kidea izateko bateraezintasun eta debeku arrazoiak zehaztuko dira Erregelamenduan.

Beraz, eskatzen da Erregelamenduko atal hau birformulatzea, irizpide hauek kontuan hartuta.

Erantzuna- Soluzioa: Iradokizun hauen arabera birformulazioa egin da.



IRADOKIZUNAK OROKORREAN

1. Dokumentuak ordenantza eta erregelamendu izaera adierazten du, bi terminoak parekatuz. Edukiak Tolosako Udalaren antolamenduari eta funtzionamenduari eragiten diola kontuan hartuta, **dokumentuari Araudi edo Erregelamendu izena** eman behar zaio, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.1.a) eta 43.1 artikuluetan, eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

Erantzuna: Ados

2. Era berean, dokumentuaren gaztelaniazko bertsioak "normativa" terminoa erabiltzen du. Termino generikoa dela kontuan hartuta, edozein arau motari (legea, dekretua, ordenantza, erregelamendua...) aplika dakiokiena, termino orokor horren ordean erregelamenduaren termino espezifiko erabiltzea gomendatzen da, termino generikoa noizbehinka erabiliz errepikapenak saihesteko.

Erantzuna: Ados

3. 10. artikuluan c) idatz-zatiak xedatzen du informazio AGREGATUA emango dela zerrendatzen diren udal-zerbitzuei buruz. Ulertu behar dugu informazioa modu DESAGREGATUAN emango dela, hau da, datu pertsonaletatik bereizita.

Erantzuna: Ados

4. 24. artikulua eskaera-eskubidea arautzen du. 4. atalean, eskatzaileek bete beharreko baldintzen artean, Nortasun Agiri Nazionala ezartzen du nortasuna egiaztatzeko aukera bakartzat; 3. atalean, berriz, pasaporte aipatzen du. Komenigarria litzateke, eskatzaileen nortasuna egiaztatze aldera, irizpideak bateratzea eta herritar baten nortasuna modu ofizialean egiaztatu dezaketean dokumentu guztiak aipatzea (NAN, gidabaimena, AIZ, pasaporte edo atzeritarraren identifikazio-txartela, Europako Erkidegokoa ez dena), AIZrekin batera. Era berean, 5. paragrafoak ezartzen du eskubidea ez dela onartuko, zuzentzeko 10 eguneko epea igaro eta zuzenketa egin ez bada. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da herritarrek eskaeran atzera egin duela ulertzea, horretarako ebazpena eman ondoren.

Erantzuna: Ados

5. 27.2 artikulua ezartzen duenez, osoko bilkuretan hitza hartu ahal izateko eskaera gutxienez 8 ordu lehenago egingo da, eta gai-zerrendako puntu gisa jasoko da Idazkaritza Nagusiak horren berri duenean, osoko bilkura egin baino 72 ordu lehenago. Epe horiei dagokionez, Erregelamenduak arautu behar du eskaera zein bitartekoren bidez egingo den, eta hori Sarrerako Erregistro Orokorra baino ezin da izan. Bestalde, 8 orduko epeari dagokionez, kontuan izan behar da bilkurak arratsaldeko 19:30ean egiten direla, eta, beraz, gerta daiteke eskaera Idazkaritza Sailari ez jakinaraztea bilkura egin eta hurrengo egunera arte. Bestalde, osoko bilkuren gai-zerrenda bilkura egin baino bi egun baliodun lehenago banatu behar da (adibidez, astelehenean, ostegunerako), eta beraz, gerta daiteke aztergaien zerrenda herritarrek hitza eskatu aurretik eginda eta banatuta egotea. Azkenik, osoko bilkuren gai-zerrenda egitea Alkatezaren eskumen eskusiboa da, eta, beraz, Erregelamenduak ezin du ahalmen hori murrizten duen inolako baldintza edo betebeharririk ezarri.

Erantzuna: 72 orduko epea zehaztu da.

6. 27.5 artikulua ezartzen du edozein herritarrek parte hartu ahal izango duela osoko bilkuretan, galde-eskeen txandaren bidez. Xedapen horrek urratu egiten du Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.a) eta 46.2.e) artikuluetan



ezarritakoa, korporazioa osatzen duten talde politikoei baitagokie eskaeren eta galderen atala, beren kontrol-ahalmena baliatuz. Herritarren esku-hartzea, nolana ere, puntu hori amaitu ondoren egin behar da.

Erantzuna: Ados

7. Informazio-batzordeetan parte hartzeko eskaerarekin lotuta, berriz ere azpimarratzen da eskaera modu frogagarrian egin beharko dela, Sarreren Erregistro Orokorraren bidez. Epea ez da egokia; beraz, gutxienez 24 ordukoa izatea eskatzen da, egindako eskaeraren berri izateko. Era berean, deialdia webgunean argitaratuko da, ez gardentasun-atarian.

Erantzuna: Ados

8. Erregelamenduaren 32.2 artikulua ezartzen duenez, edozein udal-araudi egin aurreko kontsulta-prozesuak 38. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako partaidetza-prozesuen erregulazioa oinarri hartuta izapidetuko dira. Neurri horrek neurritz kanpokoak dira araudiak garrantzi txikia duen kasuetan, edo hura onartzea premiazkoa den kasuetan. Gainera, proposatzen den prozedurak nabarmen gaintzen du 133/2015 Legea, web-atariaren bidezko kontsulta publiko bat soilik arautzen duena. Proposatzen da izapidetzeak 38. artikulua osatzea, aukerakoa izatea, eta "ahal" terminoa sartzea.

Erantzuna: Ados

9. 32. artikulua 3. paragrafoa zuzendu egin behar da, arauak idatzi aurreko eztabaida- eta kontsulta-izapideak eta onartu aurreko izapideak nahastu egiten baitira. Kasu honetan, arauak idatzi aurreko izapideei buruz ari gara.

Erantzuna: Ados

10. 55. artikuluan, Tokiko Gobernu Batzarra aipatzen da, baina horren ordez "organo eskuduna" jarri behar da. Izan ere, Kontsultaren emaitzan adierazitakoaren interpretazioa edo betetzea organo desberdinei egokitu dakieke, toki-eremuan esleitutako eskumenen arabera.

Erantzuna: Ados

BEHIN BETIKO DOKUMENTUA

Hasierako izaeraz onartutako dokumentua berraztertu egin da idazkariaren alegazioak eta alegazioez gain egindako iradokizunak kontuan hartuz.

Iradokizunak eta alegazioak onartu egin dira txosten teknikoaren arabera eta horien arabera behin betiko testua ondu da.

Alegazio eta iradokizunen edukia ahalik eta modu zintzoenean azken dokumentuan txertatzeko asmoz, idazkariarekin batera landua izan da dokumentazioa bere osotasunean, honako urrats hauei jarraituz:

- 1.- Alegazio eta iradokizunak kontuan hartuz, lehen zirriborro bat landu eta aldaketak nabarmendu ditugu.
- 2.- Aldaketak jasotzen dituen dokumentua idazkariarekin kontrastatu dugu berriro eta azken nabardura edota aldaketak erantsi dizkiogu.



3.- Guztia kontuan hartuz, azken dokumentua, behin betikoa, landu dugu. Jatorrizko dokumentua euskaraz landu dugu eta gerora gaztelaniara itzuli da.

Txosten teknikoaren eranskin gisa (I. Eranskina), Udalbatzak behin betiko izaeraz onartzea proposatzen den Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza behin betikoa jaso da. Euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenez hurren.

Beraz, hona hemen Tolosako Udaleko udalbatzarentzako

PROPOSAMENA:

LEHENA.- Behin betiko izaeraz onartzea Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza, zeina aurkeztutako alegazio eta iradokizunen arabera birformulatu baita.

BIGARRENA.- Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea bere osotasunean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Komunitatea eta Gobernantza Sailari eta Idazkaritzari.

Horiek ikusirik, honako hau proposatzen da:

IRIZPENA:

Herri bezala ditugun gizarte erronka konplexuei ikuspegi berriarekin aurre egitea beharrezkoa da eta horregatik, elkarlan komunitarioaren bidetik jarduteaz gain, elkarrekin hausnartu eta espermentatu beharra dago gizarte berrikuntzaren bidetik.

Horretarako, ezinbesteko balioak ditugu:

HERRIGINTZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA: Agenda publikoan herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea sustatuz. Tolosako gizartearen beharrianak ulertuz, herritarren inplikaziotik gizarte erronkei helduz, eragile ezberdinen arteko elkarlanetik abiatuta.

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA: Erakunde, herritar eta gizarte antolatuaren arteko lankidetzaren sarea indartuz bakarrik erantzun ahal izango diegulako gizarte gisa ditugun erronkei. Erakundeen eta gizarte antolatuaren artean gobernantza eredu berriak esploratuz, gizarte berrikuntzatik ikuspegi berriak txertatuz.

GOBERNU IREKIA: Kalitate instituzionala indartzeko eta Udalaren eta herritarren artean esparru berri bat ezartzeko bidea da gobernu irekia.

Hauek dira gobernu irekia bermatzeko bitartekoak:

a) Gardentasuna sustatzea eta ordenantza honetan eta gardentasunaren arloko oinarrizko legerian jasotako publizitate aktiboko betebeharrak betetzea.

b) Informazio publikoa eskuratzea gardentasunaren arloko oinarrizko legeriak eta ordenantza honek aurreikusitakoarekin bat etorrira.

c) Informazio publikoa datu ireki gisa eskueran jartzea; hau da, halatan non datuak eskueran eta irigarri egon ahal izan daitezzen erreproduzio, aldaketa edo beste datu



batzuekiko integrazioarako arrazoizko kostuarekin, eta ahalbidetu dadin informazio hori pertsona orok askatasunez erabiltzea, berrerabiltzea eta birbanatzea, erabat errespetatuz pribatutasun, segurtasun edo jabetzagatiko eman daitezkeen murrizketak.

d) Herritarren partaidetzarako tresnak eta bideak garatzea.

d) Lankidetzeta Udalaren eta herritarren edo herritarren kolektiboen artean.

f) Kontuak ematea udal jardueren balantze ekonomikoa eta soziala ezagutu ahal izateko.

Hauek guztiak kontuan hartu dira ordenantza hau lantzerakoan, izan ere, udala da herritarrengandik gertuen dagoen erakunde publikoa, eta, horrexegatik, egoera pribilegiatuan dago balio guzti hauek aintzat hartu eta sustatzeko politika publikoak garatzeko unean.

Aurrekariak

Tolosako Udala ez da hutsetik hasten, ibilbide luzea du egina herritarren partaidetzaren esparruan, azken hamarkadan aurrera eramandako egitasmoen bitartez: partaidetzeta prozesu desberdinak, auzo galdeketak, Tolosatzen 2017-2027 plangintza estrategikoa, Tolosatzen aurrekontu partehartzaileak, Tolosatzen Eskola Irekia, Tolosako Jabetze Eskola, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamendua diseinatzeko eta kudeatzeko parte-hartze prozesua, eta berriki martxan jarritako eta herritarrekin landutako Tolosatzen Aliantza dira horren adibide.

Aurrera eramandako egitasmo guztien asmoa gobernantza eredu berri baten eraikuntza ahalbidetzea izan da, herritarren eta udalaren arteko zubiak eraikitzen lagunduz eta udal politiken kudeaketa parte hartzaileagoei bidea emanez. Eta horixe da ordenantza honen helburua, esparru horiek guztiak zehaztu eta arautzea eta herritarren ahalduntzea sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta herritar guztien irisgarritasun unibertsalaren printzipioetan oinarrituta.

Ekindako bideari jarraipena emateko eta gobernantza eredu berrietan sakontzeko mugarri garrantzitsua da erregelamendu baten bidez zerbitzuak eta prozedurak zehaztea partaidetzari, gardentasunari, informazioari, kontu emateari eta herritarren ahalduntzeari begira.

Bide hau, baina, ez du bakarrik egin nahi Tolosako Udalak. Parte-hartze soziala eta tokiko elkarte eta kolektiboen jakintza eta praktikek Tolosako historiari egin dioten



ekarpena aitortu nahi du Udalak, herri mugimendu bizia izan duen eta duen herria da Tolosa, eta, bereziki, mugimendu feministaren, emakume-taldeen eta genero-berdintasunaren alde lan egiten duten kolektiboan legatua aitortu nahi du, eta ikasgai horiek ordenantza honetan barneratu nahi izan ditu. Izan ere, prozesuaren hasieratik kontuan hartu nahi izan da genero ikuspegia eta emakumeek eremu publikoan parte hartzeko egiturazko oztupoak kontuan hartuz eta hauek eraisteko helburua ere baduelako ordenantza honek.

Metodologia

Lan-prozesuari dagokionez, eta koherentziaz, ordenantzaaren garapena metodologia parte-hartzaile eta kolaboratiboarekin planteatu da hasieratik.

Udal barneko lanketaren gidaritzarako talde eragile bat sortu da berariaz, eta bertan egon dira alkatea, idazkaria, Komunitatea eta Gobernantza arloko zinegotzia eta teknikaria eta Berdintasun arloko teknikaria.

Era berean, epe luzeko begiradarekin lan egin nahi izan da eta horretarako ezinbestekoa izan da udalean ordezkari politikoak duten alderdi guztietako ordezkariekin elkarlanean jardutea, ordenantza honetan jasotzen denak ikuspuntu politiko guztien oniritzia izan dezan. Helburu horrekin hainbat elkarlan bilera egin dira prozesuan zehar.

Honekin aski ez, eta udal langile eta teknikariekin ere kontraste bilerak egin dira behin eduki guztiaren lehen zirriborroa prestatu denean.

Kanpora begirakoa herritarrekin egindako kontrasteen bidez egin da. Behin zirriborroa landuta herritarrekin partekatu eta lantzeko bi lan saio ireki egin dira edukia ezagutzera emateko eta proposamenak eta hobekuntzak jasotzeko. Aurrez aurreko saioez gain, telematikoki ekarpenak egiteko aukera zabaldu da eta jasotako ekarpenen guztien azterketa burutu ondoren, azterketaren emaitzaren deboluzioa burutu da eta beharrezko aldaketak erregelamenduan txertatu dira behin betiko ordenantza idazteko.

Ildo berritzaile nagusiak

Ordenantza honen lan ildo berritzaileak bi dira nagusiki:

Genero ikuspegiaren lanketa: horretarako, bi bide erabili dira; prozesuaren abiatu



aurretik proposamenaren lehen kontrastea egin zen Tolosako Mugimendu Feministako kide batzuekin, eta, ondoren, dokumentua berdintasun saileko teknikariek elkarlanean landu da bilera monografikoen bidez, estrategiak adosteko eta puntu zehatzak lantzeko.

Izan ere, Tolosako Udala kontziente da emakumeek oztopoak izan ohi dituztela gizonen baldintza beretan espazio publikoan parte hartzeko, hainbat faktore direla eta; hala nola, generoaren eraikuntza soziala, lanaren sexu-banaketa, denboraren erabilera desberdina, eta emakumeek zaintza-lanetan ematen duten denbora handiagoa gizonekin alderatuz. Ondorioz, emakumeen benetako parte-hartze eraginkorra bermatu eta sustatzeko, ezinbestekotzat jo da genero-berdintasuna zeharkakotasunez lantzea ordenantza garatzeko eta ebaluatzeko prozesu osoan zehar.

Gainera, kontuan hartu behar da toki-administrazioek berdintasun-printzipioa txertatu behar dutela beren arau- eta administrazio-jardueran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera. Lege horren 19. artikuluan, administrazioei eskatzen zaie generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, administrazio-arau edo -egintza bat egin aurretik. Horregatik, Tolosako Udalak, ordenantza hau onartu aurretik, udalaz kanpoko erakunde independente bati agindu dio erregelamendu hau aztertzeko eta genero eraginaren berri emateko. Beraz, txosten honen aholkuak jarraituz, ordenantza honek jasoa du azterketa horren oniritzia. Txosten horrek eragin positiboa aurreikusten du emakumeen eta gizonen berdintasunean; izan ere, ordenantzak esplizituki jasotzen du helburu hori, berdintasunaren arloko zeharkako aginduak betetzen direla ziurtatzen du eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak proposatzen ditu.

Era berean, ertzetako begirada honi esker, ikuspegia zabaldu egin da eta espazio publikoan azpi-ordezkatuta egon ohi diren bestelako giza taldeen parte hartzeko bideak kanalizatu nahi izan dira. Horretarako, begirada interseksionala lagungarria izan da: adina, hizkuntza, klase soziala, jatorria, sexu- eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala... ordenantza honen bidez hauek guztiak kontuan hartuko dituen parte hartze eredu inklusibo eta eraldatzailearen oinarriak finkatu nahi izan dira, kontuan hartuta honek bide bat markatzen duela eta, egun batetik bestera lortuko ez bada ere, norabidea markatzeko lagungarria izango zaigula.



Zentzu honetan, aipagarria ere bada euskararen normalizazioaren bidean ordenantza honek egin nahi izan duen ahalegina eta informazioaren kudeaketa oro eta ekitaldi publikoen bidez edo partaidetza prozesu orotan euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko egin den ahalegina.

Era berean, herritar guztien aniztasun funtzionalak kontuan hartuta, pertsonen parte hartzea oztopatzen dituzten mugak ezabatze alderako neurriak hartu ditu Tolosako udalak; hala nola, gor-mutuentsako interprete zerbitzuak aurrez aurreko harremanetan zein webguneko informazioan.

Bigarren ildo berritzailea garapen komunitarioaren ikuspegia barnebiltzea izan da: partaidetza arautu ohi duten ordenantzetan elkartegintzaren babesa eta laguntza jaso ohi dira. Tolosako Udalak hori jaso eta zabaldu nahi izan du, bi aspektu berri gehituz: herritarren trebakuntza eta formazioa, alde batetik, Tolosako Eskola Irekiaren bidez gauzatzen ari dena 2020tik, eta elkarlan publiko sozialaren bidez, bestetik. Kasu honetan, gai publikoei buruzko kudeaketa eta inplikazio modu berriak bilatu nahi dira, komunitatea eta zibilaren inplikazioa eta elkarlana bilatuz guztion ondare diren gaien kudeaketari dagokionez.

Egitura

Ordenantzaren edukiari erreparatuta, erregelamendu honetan jaso dira gardentasuna eta herritarrekiko informazioaren kanalizazioa, herritarren parte-hartzearen aukerak eta komunitatearen ahalduntze eta garapenaren biderako aukerak.

Lehen titulua da "Gardentasuna eta informaziorekin kudeaketa Tolosako udalean". Lehen atal honetan, informazio publikoa eskuratzeko bideak arautu dira eta herritarrek beren eskubideak gauzatzeko duten gaitasuna aztertu da.

Tolosako herritarrek udalarekin harremanetan jartzeko dituzten informazio eta komunikazio bideak ere zehaztu eta arautu dira.

Bigarren titulua "Herritarren partaidetza artikulatzeko bideak" du izena. Atal honetan tolosarrek parte hartzeko dituzten eskubideak, Tolosako Udalak parte hartzea bideratzeko eratuta dituen organoak eta espazioak, herritarren ekimen bidezko egitasmoak gauzatzeko prozedurak, parte hartze prozesuek bete beharreko baldintzak eta herri kontsultak gauzatu ahal izateko prozedurak zehaztu dira.



Hirugarren eta azken tituluan, "Komunitatearen garapena bultzatzeko egiturak" du izena. Bertan, ulertzen da komunitatearen garapenerako eta kalitatezko partaidetza eman dadin, herritarren ahalduntzea, trebakuntza eta formazioa ezinbestekoak direla, herritar aktibo eta antolatuen elkartegintza sare osasuntsuarekin batera.

Horretarako, egiturak sortu behar dira eta herriko elkarte sarea sustatu, herriko elkarte eta herriko kolektibo desberdinei esker baita Tolosa herri aktiboa eta parte-hartzailea, eta, hortaz, herri ondarea diren heinean horiek guztiak sostengatzeko baliabideak arautzea eta lankidetzak publiko-soziala sustatzeko borondatea arautu nahi izan du Udalak atal honen bidez. Herri modura, bakoitza bere eremutik, baina elkarlanean, elkarren arteko aliantzatik, etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu bateratuan.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

1.- Ordenantza honen xedea da Tolosako Udalaren eta herritarren arteko harremanak eta parte hartzeko bideak arautzeko modu, bitarteko eta prozedurak zehaztea, eta, horrenbestez, herritarrak ardatz dituen gobernantza ereduari sostengua ematea.

2.- Horrekin batera, Tolosako udalak gardentasun arloa betetzea eta herritarrekiko informazio eta komunikaziorako egiturak zehaztea du xede.

3.- Ordenantza honetan ere zehazten dira Tolosako komunitatearen garapenerako funtsezkoak diren arloetarako moduak, bitartekoak eta prozedurak: hala nola, gizabanakoen eta giza taldeen ahalduntzeari buruzkoak, elkartegintzaren sostenguari buruzkoak eta elkarlan publiko-sozialerako markoak eta bitartekoak.

4. Azkenik, ordenantza honetan jasotakoak printzipio hauetan oinarrituta daude: interes komunaren lehentasuna, aniztasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, inklusioa, irisgarritasun unibertsala, datu pertsonalen babesa, eskuragarritasuna, gardentasuna, ulergarritasuna, publizitate aktiboa eta kontuak ematea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

1.- Gardentasunari dagokionean, Tolosako udalari berari eragiten dio, bai eta bere menpeko erakunde autonomoei eta udal titulartasunpeko sozietateei ere, barne egituran izan dezakeen eraginarengatik.



2.- Gainerako alorre dagokienean, ordenantza honen aplikazio esparrukoak dira, kasu bakoitzean ezarritako berezitasunekin, Tolosako biztanleak eta bertan jarduten duten herritarren elkarte eta kolektiboak.

Arau honetan arauturiko eskubide batzuk erabili ahal izateko, udalerriko biztanle izatea eskatuko da, edo herritarren elkarte, kolektiboen eta erakunde juridikoen kasuan, helbidea, egoitza edo jarduera esparrua Tolosan dutela egiaztatzea, eta beharreko ordezkagarritasuna izatea.

3.- Ordenantza honen ondorioetarako, bertako biztanletzat hartuko da Udaleko biztanleen erroldan inskribatua dagoen pertsona oro. Halaber, Tolosako herritartzat hartuko da udalerrian bizi den pertsona oro.

4.- Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarte edo kolektibotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen oro. Halaber, arau honetako eskubideak egikaritzeko, herritarren elkarte eta kolektiboek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bete beharko dute.

5.- Arau honen ondorioetarako, erakunde juridikotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen entitate oro.

6.- Udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak, kolektiboek edo langileek ere parte hartu ahal izango dute aurrera eramaten diren parte hartze prozesuetan, kasu bakoitzerako finkatuko diren baldintzen arabera.

3. artikulua. Helburuak

Honako helburu eta jarduera printzipio hauek ditu ordenantza honek:

1. Gobernantza onaren bidean zerbitzuak eta prozedurak definitzea partaidetza, gardentasuna eta informazioa eta ahalduntze eta trebakuntzaren bidean.
2. Partaidetzarako ordenantza esparrua zehaztea.
3. Herritarren eskubideak bermatzea.
4. Organo iraunkorren izaera eta funtzionamendua gaurkotzea Tolosako udalaren antolaketa instituzionala kontuan hartuz.
5. Partaidetzan oinarritutako prozesuen kalitatea bermatzea.
6. Lankidetzaren publiko-sozialeko formulak zabaltea eta sendotzea.
7. Gardentasun eta komunikazio eskubideak eta prozedurak definitzea
8. Udal teknikari eta politikarien prestakuntza eta trebakuntzan aurreratzea.



9. Herriarrak eta eragileen ahalduntzean eragitea udalarekin izan behar dituzten jardueren inguruan.

10. Ordenantza hau eratzeko partaidetza prozesuan zehar eta ordenantza honetan bertan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta interseksionalitatea aintzat izatea eta bere tresna eta prozedura desberdinen baitan, emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko neurriak edota mekanismoak aurreikustea, modu errealean eta eraginkortasunez aplikatuak izan daitezen.

Zeharkako helburuak:

1. Tolosako udalean partaidetza kultura garatzeko beharrezko aldaketak sartzea.
2. Partaidetzaren eragina behartzea udal politiketan eta erabaki hartzean.
3. Gobernantza publikoan berrikuntza sustatzea ondorengo lau ardatzetan:
 - Berrikuntza demokratikoa.
 - Berrikuntza soziala.
 - Berrikuntza zerbitzu publikoetan.
 - Berrikuntza metodologikoa.

4. artikulua: Jarduteko printzipio etikoak Tolosako udalean

Tolosako Udalaren zerbitzura ari diren pertsona guztiek, eta bereziki, dagozkien udal organoetan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenek, ondoko jokaera printzipio hauen arabera jardungo dute: zintzotasuna, eredugarritasuna, inpartzialtasuna, gardentasuna, zuzentasuna, berdintasuna, errespetua, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa eta kontuak ematea. Funtzio publikoaren eta toki erregimenaren alorreko legeriak eta gobernu egokiaren, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen alorreko araudi espezifiko osoak haiei buruz egiten duen definizioaren arabera interpretatuko dira printzipio etiko horiek.

I. TITULUA: GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOAREN KUDEAKETA TOLOSAKO UDALEAN

I. KAPITULUA: GARDENTASUNA EKINTZA PUBLIKOAN

5. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

1.- Informazio publikoa da toki-erakundeen esku dagoen informazio oro, beren eginkizunen barruan landu edo eskuratu dutena, edozein dela ere informazio horren euskarria eta adierazpidea.



2.- Tolosako Udalak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko du toki erregimeneko legeriak eta gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko legeria espezifikokoak jasotako baldintzetan.

3.- Herritar guztiek dute informazio publikoa jasotzeko eskubidea, dagokion eskabidea egin ondoren eta baita informazio hori jasotzeko hizkuntza hautatzeko eskubidea ere, EAeko bi hizkuntza ofizialetako batean.

4.- Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa eramango du Udalak. Informazio publikoaren eta gardentasunaren arloan sustapen eta koordinazio eskumenak dituen sail edo udal zerbitzuaren mende egongo da erregistroa.

5.- Era berean, gardentasunaren alorrean eskumena duen sail edo udal zerbitzuak urteko txostena egingo du, eta bertan, aurkeztutako eskaeren kopurua aipatuko du eta eskaera horiek nola erabaki diren zehatz azalduko du (zenbakia eta onartzeko, zati batean onartzeko, atzera botatzeko eta ez onartzeko arrazoiak); era berean, eskatzaileen profila azalduko du, sexua eta komunikazioan erabili duten hizkuntza barne.

6. artikulua. Gardentasuna

1.- Gardentasuna da herritarrei Tolosako udalaren esku dagoen informazio publikoa erraz ulertzeko moduan eskuratzeko bidea ematea.

2.- Gardentasunak udaleko jarduera publikoa ikustaraztea du helburu: antolaketari, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari, araudi erregulatzailerari eta jarduera-datuei buruzko informazioa. Hartara, herritarrek jakin ahal izango dute Udala nola gobernatu eta administratzen den, zer erabaki, nola eta zergatik hartu diren eta baliabide publikoak zertan erabiltzen diren, jarduera publikoa ebaluatu ahal izateko eta boterea arduraz baliatzen dela bermatzeko. Horrez gain, informazioa eta gardentasuna funtsezko baldintza dira herritarren partaidetzarako.

3.- Gardentasuna bi modura ahalbidetu daiteke: publizitate aktiboaren bitartez eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzearen bitartez.

4.- Gardentasuna bermatzeko, Tolosako Udalak bere jarduera ezagutzera emango du, betiere, aplikagarria zaion legeriak ezarritako esparru eta mugen barruan. Udal sail bakoitzak ziurtatu beharko du argitaratzen duen informazioa eguneratuta dagoela uneoro.



5.- Herritarren eskura jartzen den informazioa kalitate handienekoa izan dadin honako printzipioak zainduko ditu Tolosako Udalak: informazioa egiazkoa, objektiboa, argia, koherentea, denboran egokia, materialki nabarmena, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segurua, erraz erabiltzeko modukoa, irisgarria, kanal anitzekoa, konparagarria, formatu anitzekoa, eta elkarreragingarria eta berrerabilgarria izatea, legeak ezartzen duen baldintzetan. Informazio horrek ez du hizkuntza sexista erabiliko eta Tolosako Udalak ezarrita dituen hizkuntza irizpideak beteko ditu.

6.- Eten digitala gainditzeko, egiturazko hainbat arrazoi medio direla eta; hala nola, adina, generoa, klasea edo jatorria, teknologiarako irisgarritasun neurriak ezartzea sustatuko da, eta, posible den neurrian, ordezeko bitartekoak jartzea aztertuko da.

7.- Tolosako Udalak gardentasunerako estrategia definituko du eta gardentasun-betebeharren jarraipena eta kontrola egingo du.

7. artikulua. Publizitate aktiboa

1.- Publizitate aktiboa herritarren interesekoa den informazio publiko guztia aldizka, eguneratuta eta modu ulergarrian publiko egitean datza, konpromisoak nola betetzen dituen modu frogagarrian ezagutaraziz eta tokiko botere publikoek herritarrei kontuak ematea gauzatuz, komunikazio-interakzioko prozesua sustatu ahal izateko.

2.- Udalak modu jarraituan, sortu ahala, zabalduko du herritarren interesekoa den informazio garrantzitsuena Interneteko atariaren, udal informazio zerbitzuen edota administrazio zerbitzuen bidez. Hori guztia herritarrek jakin dezaten tokiko gobernua eta administrazioa nola antolatzen diren, zein eginkizun dituen, bere erabakietan zein esparru eta politika lehenesten dituen, eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketan baliabideak nola esleitzen dituen.

3.- Garrantzi publikoko eta herritarren interesekotzat hartzen da gutxienez toki erregimeneko araudiak eta gardentasunaren alorreko legeria espezifikokoak jasotzen duen informazio guztia, eta baita udal arduradunek, ofizioz edo herritarren interesak ordezkatzan dituzten erakundeek eskatuta, egokitzen hartzen duten informazio guztia.

- a. Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.
- b. Informazio juridiko-normatiboa.
- c. Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.



- d. Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.
- e. Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.
- f. Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa.
- g. Interes orokorreko informazioa.

4.- 3. Puntuan zehaztu den informazio guztia datuak sexuaren arabera bereizita argitaratuko da Tolosako Udalak, hala dagokionean.

5.- Ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere argitaratuko den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan.

6.- Artikulu honetan azaldu den informazio guztia euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) argitaratuko da.

8. artikulua.– Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.

1.– Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Udalaren organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), horiek betetzen dituzten eginkizunak eta horiei aplikagarri zaizkien arauak. Era berean, publiko egingo dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
- b) Udalean eta gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsoneri buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
- c) Publiko egingo dira udaleko gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana eta bakoitzaren betetze-maila. Agintaldi plana agintaldiaren lehenengo urtean egingo da publiko eta urteko jarduera plana ekitaldi bakoitzaren hasieran argitaratuko da, eta jarduera planaren betetze maila ekitaldi bakoitzaren itxieraren aurretik argitaratuko da.
- d) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
- e) Udalean eta bere menpeko erakundeetan behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
- f) Udal ordezkarien ondasun eta jardueri buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.
- g) Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa.



- h) Toki-erakundeko arlo eta sailen antolamendu-egitura eguneratua; berariaz aipatu beharko dira zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
- i) Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.
- j) Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
- k) Antolamendu-egituren plan eta programak –beren xede zehatzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabideak eta epea identifikatuz–, eta plan eta programon betetze-maila eta emaitzak, zeinak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko baitira, toki-administrazio eskudunak zehazten duen eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.

9. artikulua.– Informazio juridiko-normatiboa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Udal ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira.
- b) Publikoak izango dira, halaber, udal-organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- c) Tolosako udaleko aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
- d) Herritarren partaidetzako prozesuen txostenak eta ondorioak, halakorik baldin badago.
- e) Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

10. artikulua.– Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Tolosako udalak modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko du zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko du zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen zenbatekoa den horien kostua, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
- b) Era berean, publiko egingo ditu zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik dagoenean, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatze prozesuak.



c) Eskaintzen den zerbitzu bakoitzaren ordutegia eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal-tasak zehaztuko dira.

d) Gainera, informazio ez agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:

- Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua (U DATE).
- Hiritarren Segurtasuna.
- Hirigintza.
- Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa.
- Obrak eta Zerbitzuak.
- Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Sustapena.
- Gizarte zerbitzuak
- Ekonomia-jarduerak eta lizentziak
- Turismoa, Merkataritza eta Azokak
- Euskara eta Euskaltegia.
- Hezkuntza Politika.
- Kirolak
- Kultura eta festak
- Gazteria
- Komunitatea eta Gobernantza
- Berdintasuna

11. artikulua.– Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaillearen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratuko dira.

b) Datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.




- c) Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez betetzeengatik.
- d) Suntsiarazitako kontratuen zerrenda. Bereziki, publiko egingo dira kontratuetan atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak.
- e) Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
- f) Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko ehunekoa hartzen duten adierazten duten estatistika datuak argitaratuko dira.
- g) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
- h) Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
- i) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.

12. artikulua.– Toki-erakundearen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxienezko betebeharrak honakoak dira:

- a) Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.
- b) Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaroak eta prestakuntza-programak.
- c) Sindikatu ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatuko da zer ordu-kreditu duten.
- d) Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jasoko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari indibidualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.
- e) Bateragarritasun-adierazpenen arloan eskumena duen organoaren ebazpenak.





13. artikulua.– Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa.

Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

- a) Tolosako Udalaren aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuko dira eta informazio zehatza emanaz beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.
- b) Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
- c) Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
- d) Diru-sarrera eta gastuei buruzko oinarritzko informazioa.
- e) Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
- f) Ondareko ondasun higiezin zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat duenena.
- g) Kontzeptu guztiak hartuta toki-erakundeko ordezkari politikoei eta zuzendaritzako langileek jasotzen dituzten ordainsariak, eta kargua edo eginkizuna utzi ostean jasotzen dituzten kalte-ordainak –halakorik izanez gero–.

14. artikulua.– Interes orokorreko informazioa.

1.– Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion araudi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.

2.– Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.

15. artikulua.– Datuen irekitasuna.

Ordenantza honen aplikazio-eremuak eragindako subjektuek beharrezkoak diren ekintzak sustatu beharko dituzte beren eskura dauden datuen benetako irekitasunerako,



berrerabiliak izan daitezzen, betiere pribatutasun-, segurtasun- eta jabego-murrizketak erabat errespetatuz. Datu-irekitasuntzat ulertzen da datuak eskueran jartzea web-bidez eskuragarri izango den formatu digital, estandarizatu eta irekian, egitura argi eta esplizitu bati jarraituta, herritarrek eta agente konputazionalek ulertu eta berrerabili ahal izateko eran.

16. artikulua.– Informazioaren berrerabilpena.

1.– Tolosako udalak informazio publikoa berrerabil dadin bultzatuko du, sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen inguruko oinarrizko legeriarekin bat, herritarrek toki-erakundeen esku dauden eta nahi erara erabiltzeko diren datuak baliatu ahal izan ditzaten.

2.– Berrerabilpena da Tolosako Udalaren esku dauden datuak eta informazioa herritarrek erabiltzea helburu komertzial edo ez-komertzialekin, betiere erabilera hori administrazio publikoaren jarduera bat ez bada eta arlo horretan aplikatu beharreko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik burutzen bada.

II. KAPITULUA: HERRITARREKIKO INFORMAZIO, KOMUNIKAZIO ETA ORIENTAZIO EGITURAK

17. artikulua. Herritarrekiko informazio, komunikazio eta orientazio bideak

1.- Tolosako Udalak informazio, komunikazio eta orientazio kanalak jarriko ditu herritarren eskura, udal jarduerak eta zerbitzuak ezagutu ditzaten, eta edozein pertsonaren eskariak modurik egokienean asetzeko orientabideak eman ahal izateko.

2.- Herritarrei behar duten informazioa zabaltzeko Udate zerbitzuak oinarrizko bide hauek erabiliko ditu, Tolosako udaleko Herritarren arreta zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 16. artikuluan zehazten den bezala:

- a) Aurrez aurreko arreta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.
- b) Telefono bidezko arreta
- c) Udaleko webgunea
- d) Udaleko iragarki-taula



e) Argitalpenak, buletinak, bandoak, informazio panelak.

f) Sare sozialak, SMSak, aplikazioak eta bestelakoak.

3.- Informaziorako eskubidea bermatze aldera, Tolosako Udalak behar diren mekanismo guztiak ezarriko ditu informazioa zabaltzeko sistemak berdin irits daitezzen emakume eta gizonengana, bai eta erregistroan inskribatuta dauden herritarren talde, kolektibo eta erakunde guztiengana ere, eta hizkuntza inklusiboa erabiliko du horretarako.

4.- Era berean, Udalak beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu arrakala digitalaren ondoriozko desberdintasunak eta gizarte-, ekonomia-eta lurralde-baldintzatzaileak zuzentzeko eta gainditzeko.

5.- Tolosako Udalean indarrean dauden hizkuntza irizpideak beteko dira informazioa zabaltzeko eta herritarrekiko komunikazioa eta orientazio lanak gauzatzeko. Hau da, euskaraz edo ele bitan bideratuko dira, betiere herritarrak aukeratutako hizkuntzaren arabera.

18. artikulua. Herritarrei zuzendutako arreta integrala eta zentralizatua

1.- Herritarrek Udalarekin duten harremana hobetu eta arintzeko, Tolosako Udalak arreta integrala eta zentralizatua eskainiko die herritarrei, Udateren (HAZ) bitartez.

2.- Herritarrentzako erreferentziazko zerbitzua da Udate, eta bertatik eskainiko zaizkie herritarrei esku-hartze tekniko espezializatua behar ez duten udal zerbitzu gehienak: udalerrari eta udalari buruzko informazioa eman, izapideak egin eta kudeatuko dira bertatik.

3.- Herritar guztien ezaugarri eta beharretara bermatzeko asmoz, zerbitzu honek kanal anitzeko formulak erabiliko ditu. Horretarako, aurrez aurreko, telefono bidezko eta bitarteko elektronikoen bidezko arreta moduak konbinatuko ditu.

4.- Informazio guztia euskaraz egongo da, eta aurrez aurreko zerbitzuan, udal langileak lehen hitza euskaraz egingo du. Nolanahi ere, herritarraren hizkuntza aukeraren arabera arreta egingo da.

5.- Era berean, beharrezkoa izanez gero, pertsonen komunikazio eta informazio eskubideak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu Tolosako Udalak, hala nola, zeinu hizkuntza bidezko interpreteak edo bestelakoak.



19. artikulua. Interneteko ataria

1.- Tolosako Udalak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzeko betebeharra du, espediente elektronikoaren eta bere udal webgunearen garapenaren bidez, honako hauek lortzeko:

- a. Udal administrazioarekiko kudeaketak ahalik eta gehien erraztea.
- b) Erakundearen eta gobernu organoen jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.
- c) Administrazioaren eta herritarren artean komunikabide interaktiboa ahalbidetzea.
- d) Herritarren parte hartzea bultzatzea, herritarren ekarpenak jasotzeko eta erantzunkidetasun soziala bultzatzeko proiektu garrantzitsuetan erabakiak hartzeko.
- e) Interneteko atariko informazio guztia EAEko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eta erabiltzaileak aukeratu ahal izateko nahiago duen hizkuntza.

20. artikulua. Egoitza elektronikoa

1.- www.tolosa.eus helbide elektronikoa finkatu da udal Administrazioaren egoitza elektronikoro orokor gisa, eta bertatik zuzeneko sarbidea egongo da Udalak herritarrei zerbitzu elektronikoak emateko sortzen dituen egoitza espezifiko guztietara, bai eta aurrez aurreko (Udate) eta telefono bidezko (010 zenbakia) informazio eta kudeaketa sistemen osagarri gisa ere.

21. artikulua. Udal komunikabideak

1.- Tolosako Udalak udal mailako komunikabideak sustatuko ditu herritarrentzako informazio esanguratsua argitaratzeko baliabide gisa. Argitalpenerako kanal konbentzionalak zein informazioaren teknologia berrietan oinarrituriko bideak baliatuko dira haien erabilera eta garapena ahalik eta gehien bultzatzeko.

2.- Hiru hilean behineko maiztasunarekin udal aldizkaria argitaratuko du udalak interes publikokoa den udal informazioa herritarrengana helarazteko.

3.- Komunikabide hauetako edukietan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

4. Komunikabide hauetan euskararen presentzia bermatuko da Tolosako Udalean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko hizkuntza irizpideak jarraituz.



22. artikulua. Udal ordezkariengana iristeko aukera

- 1.- Alkateak eta haren ordezkariak ordenantza honetan jasotako baldintzetan erantzungo diete hitzordu eskaerei.
- 2.- Udal Taldeen bozeramaileak eta kideak, planteatzen zaizkien hitzordu eta elkarrizketa eskaerei erantzungo diete, dituzten giza baliabideak eta baliabide materialek horretarako aukera ematen duten heinean.
- 3.- Udal ordezkariengana telefono bidez edo bide telematikoen bidez iritsi ahal izateko, Udalak harremanetarako telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko pertsonalaren helbide bat jarriko ditu gutxienez eskura, hitzorduak zehazteko helburuarekin.

II. TITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA ARTIKULATZEKO BIDEAK

I. KAPITULUA. HERRITARREN ESKUBIDEAK

23. artikulua. Parte hartzeko eskubidearen edukia

- 1.- Pertsona guztiek udal eskumeneko gai publikoetan norbanako nahiz kolektibo gisa parte hartzeko eta esku hartzeko eskubidea dute, arau honetan ezarritakoa betez.
- 2.- Udalari dagokio parte hartzeko eskubidea bermatu eta bultzatzea eta erabaki politikoak hartzeko prozesuetan herritarren esku-hartzea erraztea. Horretarako, bide eta tresna nahikoak sustatu behar ditu, irekiak, malguak eta denboraren erabilerara egokituak, ahalik eta jende gehien eta askotarikoagoa parte hartu ahal izateko egokiak, eta genero ikuspegiarekin diseinatuak; bide eta tresna horiek zailtzen dituzten oztopoak kendu behar ditu, eta bitarteko bereziak jarri behar ditu, inguruabar edo baldintzengatik zailtasun gehiago izan ditzaketen pertsona eta taldeengana iristeko.
- 3.- Tolosako Udalak emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bermatuko du berdintasun-baldintzetan, modu erreal eta eraginkorrean. Arreta berezia jarriko du eremu maskulinizatuetako edo talde, kolektibo eta erakunde mistoetako emakumeek parte har dezaten.
- 4.- Udal gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen barnean honako eskubide hauek sartzen dira, gutxienez:
 - a) Eskatzeko eskubidea.



- b) Entzuna izateko eskubidea.
- c) Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.
- d) Osoko Bilkurretan eta bestelako udal organoetan hitz egiteko eskubidea.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskuratu eta erabiltzeko eskubidea.
- f) Biltzeko eskubidea.
- g) Herritar ekimenerako eskubidea.
- h) Kontsultarako eskubidea.
- i) Parte hartze eskubideak eraginkortasunez sustatzeko eskubidea.

24. artikulua. Eskatzeko eskubidea

1.- Pertsona guztiek Tolosako Udalaren eskumeneko edozein gairi buruz eskaerak edo eskabideak egin ahal izango dizkiote udal gobernuari, edo udalaren jardueren gainean argibideak eskatu, bai eskatzaileari bakarrik dagozkion gaietan eta baita interes kolektibo edo orokorra dutenetan ere. Eskaerek, jarduera zehatzen inguruko proposamenez eta argibideez gainera, bakarkako edo taldekako iradokizunak eta ekimenak jaso ditzakete.

2.- Eskaera egiten duen pertsonaren edo kolektiboaren nortasuna eta eskaeraren gaia modu fede emailean jasota uzteko baliozko edozein baliabide erabiliz gauzatu daiteke eskubide hori.

3.- Eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira, idatziz eta administrazio prozeduraren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera baliagarria den edozein bide erabilia, izan aurrez aurre nahiz telematikoki. Horretarako, argi adierazi beharko dira izena, abizenak, jakinarazpenerako helbidea eta modua, helbide elektronikoa, nortasun agiri nazionala, gidabaimena, pasaportea edo atzerritarren identifikazio txartela Europa Erkidegokoa ez denarentzat, eta baita eskaeraren helburua ere.

4.- Taldeka egindako eskabideetan, aurreko baldintza horiek betetzeaz gainera, eskatzaile guztiek sinatu egin beharko dute, eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen abizenak eta Nortasun Agiriaren zenbakia, gidabaimena, pasaportea edo atzerritarren identifikazio txartela Europa Erkidegokoa ez denarentzat aurkeztu behako dute. Pertsona horien datuen konfidentzialtasuna ziurtatuko du udalak.

5.- Udalak eskabidea jaso izanaren agiria egingo du aurkezten den unean eta gehienez ere 10 eguneko epean onartuko du tramiterako, eta eskatzaileari jakinaraziko dio,



nortasuna behar bezala egiaztatzea ez den kasuetan ezik. Horrelakoetan, 10 eguneko epea emango da okerra zuzentzeko, eta ohartaraziko da epe hori igarotakoan ez bada erantzunik jaso ulertuko dela herritarrak eskaeran atzera egin duela.

6.- Eskaerak ez dira onartuko honako kasu hauetan:

- a) Eskaeraren gaia Tolosako Udalaren eskumenekoa ez denean.
- b) Eskaerak berriazko administrazio tramitea duenean.

Azken bi kasu horietan, legeak ezarritako epean, eskaera aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, ebazpen arrazoitua emango da eskaera ez dela onartu adierazteko.

7.- Eskaera tramiterako onartzen bada, Udalak gehienez ere hiru hilabeteko epean erantzun beharko du, eta hala badagokio, horretarako hartutako neurrien edo aurreikusten diren esku hartzeen berri emango du.

25. artikulua. Entzuna izateko eskubidea

1.- Legezko interesa duten edo nolabait ere ukiturik suertatzen diren pertsona guztiek dute udal prozeduren tramitazioan edo udal ekintzak egitean entzunak izateko eskubidea.

2.- Entzuna izateko eskubidea ondorengo bideen bidez gauza daiteke:

a) Alkatearen ekimenez edo udalbatzako kide kopuruaren gehiengo soilak hala eskatuta, topaketen edo berriazko bilkuren bidez.

b) Herri ekimenaren bidez, herritarren elkarte eta kolektiboek eskatuta, baita herritar partikularrek eskatuta ere, baldin eta, gutxienez, 16 urtetik gorako herritarren %2-n sinadurak aurkezten badira.

3.- Entzunaldi publikoa eskatzen dutenek arrazoiak, eta, hala badagokio, eskaerak biltzen dituen idazki bat aurkeztu beharko dute administrazio prozeduraren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera baliagarria den edozein bide erabilita. Eskabideari jorratu nahi den gaiari buruzko txostena erantsiko diote, baita lortutako sinadurak ere, bertan sinatzaileen nortasuna adierazita.

4.- Agiriak jaso ondoren, Alkateak Entzunaldi Publikorako deia egingo du hurrengo 30 egunen barruan. Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 eguneko tarte izango da.



5.- Topaketa edo bilkurek honako funtzionamendua izango dute:

a) Eskatzaileak aztertu beharreko gaiari buruzko azalpena ematea, gehienez ere hogeita hamar minutuz.

b) Udal arduradun politikoez iritzia eta jarrera agertzea, gehienez ere hogeita hamar minutuz.

c) Bertaratuek beren iritzia eman dezaten hitz-txanda irekia, 30 minutu gehienez ere, hitza hartu nahi dutenen artean banagarriak; denbora hori laburtu daiteke hitza eskatu nahi duten pertsonen kopuruaren arabera, saioak ez dezan bi ordu eta erdi baino gehiago iraun.

d) Udal arduradunek erantzuteko txanda, hala nahi izanez gero, eztabaidan agertu diren gaiak argitzeko; gehienez ere hamar minutuko iraupena izango du.

e) Ondorioak, halakoak egonez gero.

6.- Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztiek, ordezkariak txikienetik handienara ordenatuta, esku har dezakete, hitzen txanda irekiaren ondoren eta errepikaren aurretik. Aldez aurretik adostu behar da talde bakoitzak zenbat denboran esku hartuko duen, gainerako denborak errespetatuz.

7.- Eztabaida horiek plataforma digitalaren bidez egiten direnean, ez da aipatutako denboretara egokitu behar, haien funtzionamendua etengabea baita. Deialdi zehatzak zehaztuko du bere dinamikaren erregulazioa, eta, nolabait ere, diskriminaziorik ezaren eta adierazpen askatasunaren printzipio demokratikoa errespetatuko du. Debatututa dago iraingarriak izan daitezkeen adierazpenak egitea edo pertsonen buruzko oinarriko arauak errespetatzen ez dituztenak egitea.

8.- Entzute publikoaz gain, Alkateak eta udal gobernu esparru jakin baten Ordezkarikargua dutenek hilean gutxienez 8 ordu izango dituzte Tolosako Udalak ezarritako aurretiko hitzorduen agendaren bidez herritarrak artatzeko. Hala ere, udal ordezkarik politiko orok prest egon behar du herritarrekin eta haien ordezkariekin hitzorduak eta bilerak hitzartzeko, gaiak behar bezala kudeatzeko premiazkotzat edo/eta beharrezkotzat hartzen badira. Hori guztia beren irizpide askearen arabera telefonoz edo telematika bidez pertsonekin edo erakundeekin izan dezaketen komunikazioaren kalterik gabe.



26. artikulua. Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

1.- Pertsona guztiek dute bakarka nahiz taldean udalaren eta tokiko zerbitzu publikoen jardueraren aurrean kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.

2.- Abisuak, kexak eta iradokizunak aurkezteko, Tolosako Udalak, Udate zerbitzuaren (HAZ) bidez, leihatila bakarraren kanal anitzeko sistema ezarria du eta honako hauek jasotzen ditu: aurrez aurreko bidea, Herritarren Arreta Zerbitzuaren bulegoetan; bide telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez; eta telefono bidea, 010 telefonoaren bidez.

3.- Udatek (HAZ) kexak, erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta dagokien organora edo zerbitzura bideratuko ditu, bertan azter ditzaten.

4.- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunerako eskubideak erabiltzen dituzten pertsonak erantzun idatzi bat jasoko dute, arrazoiak azalduz, 3 hilabeteko gehienezko epean. Edozein kasutan, 10 eguneko epean, kexa, erreklamazioa edo iradokizuna aurkezten den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, komunikatuko zaio eskatzaileari bere idatzia dagokion sailera bideratu dela.

27. Osoko Bilkuretan hitza eskatzeko eskubidea

1.- Udalbatzaren Osoko Bilkurak publikoak dira.

2.- Edozein herritarrek hitza eskatu ahal izango du osoko bilkuretan, idatziz aurkezten badu bere eskaera Sarrerako erregistro orokorrean osoko bilkura baino gutxienez 72 ordu lehenagotik. Epe honetan sartuko ez balitz, galderen eta eskarien txanda amaitutakoan hitza hartzeko aukera izan dezake herritarrak.

3.- Eskaeran argi adierazi beharko dira izena, abizenak, nortasun agira edo pasaportea eta jakinarazpenerako telefonoa eta helbide elektronikoa.

4.- Eskaera egin duen pertsonak 10 minutu izango ditu eta alkateak edo dagokion zinegotziak erantzun ahal izango dio, erantzuteko eta erantzunari erantzuteko aukera bakarrarekin, hurrenez hurren. Eskatzaileak denbora gehiago beharko balu, eskaerarekin batera adierazi beharko du zenbateko denbora tarte estimatua beharko duen, artikulua honetako bigarren puntuan adierazten diren baldintzetan.

5.- Publikoan dagoen edonork hitza hartzeko eskubidea izango du korporazioa osatzen duten talde politikoaren eskaeren eta galderen tarte amaitu ondoren, bilkura amaitu eta gero.

6.- Osoko Bilkura berezietan herritarrek ezin izango dute hitz egin.



28. artikulua. Batzorde informatiboetan hitza eskatzea

1. Udaleko Batzorde Informatiboetako kide egonkorak politikari hautetsi eta udal teknikariak dira. Beren garapenari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikulua hartuko da kontuan.

2.- Gai-zerrendak, bileretan eskuarki parte hartu ohi dutenei bidaltzeaz gainera, webgunean argitaratuko dira deialdiarekin batera, 2 lanegun lehenago. Gai zerrenda horretako punturen baten inguruan hitza hartzeko interesa duen herritarrak edo kolektiboak, dagokion eskaera aurkeztuko du Udal Erregistroan gutxienez 24 ordu lehenagotik, hartan parte hartzea. Lehendakaritzak parte hartzeko aukera eman edo ukatu ahal izango dio horren arrazoiak emanda.

3.- Eskaera egin duen herritarrari hitz egiteko tartea utziko zaio eta batzordekideek erantzungo diote.

4.- Premiazko tramitearen bidez deitutako batzordeetan herritarrek ezin izango dute hitz egin.

29. artikulua. Biltzeko eskubidea

1.- Herritar orok du biltzeko eskubidea helburu edo interes publikoko gaiak gauzatzeko udal lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, horiek lehenesteko irizpide gisa espazioen erabilgarritasuna izanik. Haietan biltzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baldintzatzaile bakarrak espazioaren ezaugarriak eta udal arautegiak dira; baita jendea ibili ohi den leku publikoetan biltzeko eta/edo manifestatzeko eskubidea arautzen duen estatuko eta autonomia erkidegoko araudia ere.

2.- Aretoen erreserba aurrez-aurre zein telematikoki egin ahal izango da udalaren web atariaren bitartez.

3.- Udalak, ahal duen neurrian, bilerak egiteko behar bezala prestatutako ekipamenduak izango ditu. Haiek erabiltzeko baldintzak ezagutzera emango ditu herritarrek haietarako sarbidea izan dezaten eta ahalik eta hoberen erabili ditzaten.

30. artikulua. Herritarren ekimenerako eskubidea

1.- Herritarren ekimena Udalak interes orokorreko eta udalaren eskumeneko jarduera jakin bat sustatzera bideratutako herritarren esku hartzea da.



2.- Ekintza zehatzak eskatzen dituzten ekimenak, bakarkakoak eta taldekakoak izan ahalko dira, beste asmorik eta formalitaterik gabe, eskaeratzat hartuko dira eta ordenantza honen 24. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

31. artikulua. Herri kontsultarako eskubidea

1.- Herritarren kontsultekin, Udalak herritarren iritzia eskatzen du bere eskumenekoak diren garrantzizko gaien inguruan. Iritzi hori boto zuzen, aske, berdin eta isilpekoaren bidez adierazten da, horretarako ezarritako hautestontzi presentzial edo elektronikoetan, indarrean dagoen udal, autonomia eta estatu mailako araudiaren esparruan.

32. artikulua. Udal ordenantzak edo araudi proiektuei buruz informazioa jaso eta iritzia emateko eskubidea

1.- Udal ordenantza edo araudi proiektu bat prestatu aurretik, eztabaida eta kontsulta prozesua eramango da aurrera ordenantza honetan xedaturiko edozein baliabide edo kanal erabilita eta betiere udalaren Internet atarian gardentasun atalean islatuta; bertan, etorkizuneko araudiak ustez ukituko dituen pertsonen eta erakunde garrantzitsuenen iritzia jasoko da gutxienez. Honako kontu hauek eztabaidatuko eta kontsultatuko dira: arauaren helburuak eta harekin konpondu nahi diren arazoak, hura onartzeko beharra eta aukera, eta betiere, egon daitezkeen soluzio alternatiboak eta haiek islatzen dituzten testuak. Arautegi hauek udalerrarentzat garrantzia berezia duten kasuetan, prozedura hori ordenantza honen 38. artikuluan (eta ondorengoan) arabera antolatuko da.

2.- Artikulu honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa halako moldez egin beharko dira non arauaren hartzaile potentzialek eta hari buruz ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, haien esku jarri beharko dira behar diren dokumentuak; dokumentu argiak, zehatzak eta gaiari buruz iritzia emateko informazio guztia biltzen dutenak.

3.- Administrazio-arau edo egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio- organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina.

4.- Udal ordenantzak eta araudiak idatzi aurreko eztabaida eta kontsulta tramite hori aurrekontu edo antolakuntza arauetan bakarrik baztertu ahal izango da, edo interes publikoko arrazoi larriak daudenean, eta justifikazio hori jasota utziko da Osoko Bilkurari aurkezten zaizkion legezketasun txostenetan.



33. artikulua. Parte hartzeko eskubideak eraginkortasunez sustatzeko eskubidea

1.- Udalak eraginkortasunez sustatuko du kapitulu honetan araututako parte hartze eskubideen erabilera, horiek betetzeko eragozpen diren trabak kenduz.

2.- Legeek zehaztutako esparruaren barnean, emakumeen parte hartzea erraztuko duten berriak hartuko dira gizonek eta emakumeek berdintasunezko baldintzetan parte hartu ahal izan dezaten.

3.- Udalak bereziki kontuan izango ditu haurren eta gazteen parte hartzea egiaz bultzatzen duten neurriak, kasu horretan barne-erregelamendu bat ezarri beharko da, eta haren funtzionamendurako beharrezko tresnak jarri, bai bere jardueretan, bai herritarrek hasten eta garatzen dituztenetan.

4.- Oro har, parte hartu behar duten pertsonen profilek ahalik eta aniztasun handiena izan behar dute, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera, bai eta genero-berdintasun eraginkorra ere.

5.- Parte hartuko duten pertsonak, bai informazioa jasotzeko, eta baita hitza hartzerakoan ere, hizkuntza aukeratzeko eskubidea izango dute, EAEko hizkuntza ofizialen artean. Tolosako udalak sustatuko dituen parte hartze prozesu eta gune guztietan euskararen erabilera ahalbidetuko da.

6.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

II. KAPITULUA: PARTE HARTZEKO GUNEAK

34. artikulua. Herritarren parte hartzeko guneak

1.- Herritarren parte hartzeko gune egonkorak herritarren parte hartzea bideratzeko espazio edo elkargune egonkor eta iraunkorrak dira. Udala eta herritar norbanako zein antolatuak edo bestelako erakundeak elkarrekin erlazionatzen eta lanean aritzen dira sektorekako nahiz lurraldekako ikuspegia duten gaien inguruan.

2.- Arautu edo arautu gabeak izan daitezke. Iraupen mugagabeak edo mugatukoak izan daitezke.



3.- Eginkizun horiek betetzeko, udal-jarduketei edo eztabaidagaiei buruzko informazio nahikoa jaso behar dute, eta udalak zuzenean eman behar du, bere ekimenez edo gune horretako kideek berariaz eskatuta.

4.- Gune horien kalitate demokratikoa eta eraginkortasun-maila neurtzeko, lortutako emaitzak ez ezik, horiek eskuratzeko aukera eta bertaratutako pertsona guztien benetako parte-hartzea ere hartuko dira kontuan. Hori dela eta, udalerrian dauden ahotsen aniztasuna agerian utzi beharko dute, emakumeen eta askotariko kultura-jatorri eta -testuinguruak dituzten pertsonen eta kolektiboen parte-hartzea indartuz. Horretarako, espazio bakoitzak bere berezitasunei erantzuten dieten irizpideak eta estrategiak definitu beharko ditu.

5.- Era berean, genero-desberdintasunari eta beste desberdintasun sozial batzuei aurre egiteko neurriak sartuko dituzte, honako hauen bidez:

a) Herritarren partaidetzarako espazio orok genero ikuspegia duela bermatzea, eztabaidarako, hausnarketarako, kontsultarako eta erabakiak hartzeko eduki publikoetan.

b) Parte-hartzaileen horizontaltasuna, errespetua, adierazpen-askatasuna eta tratuberdintasuna bermatzeko erraztasun-mekanismoak sartzea, eta artatutako herritarrek parte hartzeko espazio ireki eta egokia garatzea, batez ere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

c) Hitza banatzearen eta ahots desberdinen legitimitaterako entzute aktiboaren aldeko dinamikak sartzea.

d) Azpiordezkatuta dauden pertsona eta kolektiboen irisgarritasuna: emakumeak, haurrak eta gazteak, ezgaitasun edo dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonak, jatorri eta kultura desberdineko pertsonak, edo zaintza lanetan erantzukizuna dituzten pertsonak.

e) Gune hauetan berariazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezen, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

f) Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.



35. artikulua. Herritarren partaidetzarako organoak

1.- Herritarren partaidetzarako organoak toki-antolamenduaren kide anitzeko organo osagarriak dira, antolaketa egitura eta funtzionamendu formalizatukoak. Udalaren eta herritar norbanakoen zein antolatutakoen arteko topagune egonkor eta iraunkorrak dira eta nolabaiteko erregularitasunez biltzen dira, udal jarduerari, zerbitzu programei, planei edo politikei buruzko iritzia eta proposamenen gainean dialogatu, debatitu edo eztabaidatzeko. Organo hauek kontsultiboak dira.

2.- Organo horiek lurralde eremukoak izan daitezke, baldin eta beren eginkizunak herri osoarekin edo herriaren zati zehatz eta mugatu batekin lotuta badaude, auzo bat edo batzuk kasu; edo sektore eremukoak, baldin eta beren eginkizunak gizartearen zati batekin, udal-jarduketaren eremu funtzional jakin batekin edo udal ekipamendu edo zerbitzu publikoren batekin lotuta badaude.

3.- Tolosako Udalak neurri egokiak hartu beharko ditu emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ahotsarako sarbidea lortzeko, herritarrek parte hartzeko organoetan ordezkaturik egon daitezzen.

4.- Organo hauek berariazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezzen, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

5.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza ahalbidetzeko.

36. artikulua. Herritarren partaidetzarako organoen funtzioak eta osaera

1.- Organo horiek ondorengo funtzioak izan ditzakete:

a) Auzo eskalako edo sektorekako ikuspegiaren araberako gomendio eta proposamenak egitea.

b) Udalak proposaturiko asmo edo proiektuen gaineko eragozpenak edo aldaketa proposamenak egitea.

c) Proiektu edo gauzatuta jarduerari buruzko txostenak egitea.



d) Jardueraren bat egiten laguntzea.

f) Parte hartze prozesuak sustatzea.

2.- Organo horien osaera, antolamendua, eskumenak eta funtzionamendua beren Arau bereziei jarraituz arautuko da, eta arau horiek Udalbatzak onartuko ditu. Nolanahi ere, Arau honetan xedatutakoa bete beharko dute beti eta ahal den guztietan beren agintaldian lan egiteko plan bat izan beharko dute.

3.- Organo horrek genero-ikuspegia txertatu beharko du bere politika eta ekintza guztietan, halako moduz non guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko helburu orokorra ezarriko duen.

4.- Organo horien funtzionamendu-erregelamenduek, besteak beste, honako hau zehaztu behar dute:

a) Parte hartzeko organoaren izena.

b) Jarduketaren eremua eta xedea.

c) Helburuak.

d) Osaera.

e) Funtzionamendurako oinarritzko arauak: deialdiak, bilkurak, erabakiak hartzeko eta txostenak egiteko modua eta egiten zaizkion kontsultei buruzko erantzunak emateko modua.

f) Kideen eskubideak eta betebeharrak, eta esleitzen zaizkien berariazko eginkizunak.

g) Iraupena.

h) Desegiteko arrazoiak eta modua.

i) Jardueren garatzeko eskura dauden baliabideak.

5- Organo bakoitzaren funtzionamendu-erregelamenduak haren osaera zehatza zehaztu behar du. Nahitaez, udalarekin lotura duten pertsonak eta udalarekin loturarik ez duten pertsonak osatuko dituzte organo horiek.

Udalarekin lotura duten pertsonak ordezkari politikoak eta udal langileak izan daitezke. Udalarekin loturarik ez dutenak beste administrazio publiko bateko kideak edota herritar, antolatu naiz antolatu gabeak, izan daitezke, organoaren xede-eremuarekin lotutakoak. Organo horiek adingabeak ere izan ditzakete kide.



6.- Aukeran, organoaren eremu espezifikoan adituak eta aintzatetsiak diren pertsonak ere izan daitezke kide. Adituen artean generoaren arloko ezagutza dutenak sartzea sustatuko da.

7.- Organo horien izaera parte-hartzailea kontuan hartuta, gehiegizko pisu politikoa saihestuko da.

8.- Oro har, herritarren partaidetza organoen osaerak berdintasun-aukera eta aniztasun-irizpideetan oinarritu beharko du, aukera eta iritzien pluraltasun zabalena ziurtatzeko, betiere bere izaerarekin inkongruentea ez bada; kasu horretan, organoaren xedearekin koherentea izango den osaera berezia bilatuko da.

9.- Kasu guztietan, eta organoko kideen arabera, beharrezkoa izango da kideen esku-hartzea errazteko eta beren eginkizunak garatzeko berariazko tresnak ezartzea funtzionamenduaren barne-erregelamenduan.

10.- Kideen gehiengoak hala erabakitzen duenean, kide ez diren pertsonak gonbidatu ahal izango dira. Hala ere, partaidetza organoak erabakiren bat hartu behar badu, bertako kideek baino ezingo dute hartu erabakia.

11.- Organo horien eraketa herritarren ekimenez zein Udalaren ekimenez gauzatu daiteke. Eratu aurretik, egokitasunari buruzko txosten bat eta hura sortzeko gomendioak eskatuko zaizkio herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen arloari.

12.- Osoko bilkurari dagokio organo horiek sortzeko eta dagozkien funtzionamendu-erregelamenduak onartzeko erabakia hartzea. Sortzeko modu bera erabiliko da hauek aldatu edo ezabatzeko.

13.- Dialogo, debate edo eztabaidetan ahalik eta ikuspegi, iritzi eta interes gehien adieraztea erraztuko da, ahaleginak egingo dira akordioak adostasunez har daitezen. Hori ezinezkoa denean, bozketa bidez hartuko ditu organoak erabakiak. Edonola ere, boto partikularrak ere eman ahalko dira eta hartutako erabakiarekin bat ez datozenek dituzten eragozpenak jasotzea eskatu.

14.- Udalak, zuzenean edo zeharka, ohiko administrazio-laguntza eman beharko die partaidetza organoei, funtzionamendu zuzena eta autonomia handiena bermatzeko. Organo horiek idazkaritza bat izango dute partaidetza organoaren aktibitatearen akta jasotzeko. Horrez, gain, erreferentziako teknikariak izendatuko dira herritarren partaidetzako organo bakoitzerako.



Udalak hala erabakiz gero, Komunitate eta Gobernantza arloak parte hartze organoak sustatu, antolatu, deitu eta artatzeko lanetan lagunduko du.

15.- Alkateari dagokio partaidetza organoen lehendakaritza, edo hark eskuordetzen duen zinegotziari. Partaidetza organoko kideek hautatuko dute nor izango den lehendakariorde kargua beteko duen pertsona, arlo sozial, tekniko edo politikokoa izan ahalko delarik.

16.- Parte hartzeko organoek lantaldeak sor ditzakete, bai eta lanerako gune puntualak ere, gai zehatz bati heltzeko. Lantalde horietan, parte hartzeko organoko kide ez diren baina horretan laguntzeko interesa duten pertsonak parte hartu dezakete. Kasu horietan, organoko kide bat izango da beti talde horien koordinazioaren eta emaitzak partaidetza organoari helarazteko erantzulea.

37. artikulua. Ausaz aukeratutako herritarrekin osatutako eztabaida mahaiak

1.- Tolosako udalak egoki ikusten duen kasuetan, eta eztabaidagai izango den gaiak garrantzia publikoa nabaria duenean, ausaz aukeratutako herritarrekin eztabaida eta deliberazio mahaiak osatuko dira.

2.- Herritarrak aukeratzeko udal errolda erabiliko da oinarri gida, eta sexu-generoa, adina eta bizitokia, edo gaia dela eta interesgarritzat jotzen den beste faktoreen arabera aukeratu da lagina ahalik eta ordezkagarritasun sozial handiena lortzeko asmoarekin.

3.- Eztabaida mahai hauek ez dira inolaz ere erabakitzaileak izango, euren xedea izango delarik gai zehatz baten gaineko azterketa eta deliberazio publikoa gauzatzea Tolosako Udalbatzari bere iritzia emateko. Hala badagokio, azken erabakia Tolosako Osoko Bilkurak hartuko du.

4.- Eztabaida mahaiak hornitzeko, aztergai izango den gaiaren arabera adituak, inplikatuak edo zeresana izan dezaketen agenteak gonbidatu ahal izango dira beharrezkoa den informazioa, ikuspegiak eta ezagutzak mahaikideen esku jartzeko. Era berean, eztabaida bideratzeko erraztaileak egongo dira, hitzak modu orekatuan banatzen direla eta iritzi guztiak mahai gaineratzen direla ziurtatzeko.

5.- Eztabaida mahai hauetan berriazko hizkuntza kudeaketa egingo da herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezen, eta euskaraz parte hartu nahi duten herritarrek horretarako eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.



6.- Era berean, pertsona guztien parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, beharrezkoa balitz, beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira ezintasun funtzionalak dituzten herritarren partaidetza eskubidea ahalbidetzeko.

III. KAPITULUA: PARTE HARTZE PROZESUAK

38. artikulua. Partaidetza prozesuak

1.- Partaidetza prozesuak denbora jakin batean mugatutako prozesuak dira, herritarren artean edo herritarren eta udal arduradunen artean eztabaida eta argudio kontrastea sustatzera bideratuak, udal jarduera jakin bati buruzko iritziak eta proposamenak jasotzeko.

2.- Prozesua abiatu aurretik ondo zehaztu beharko da ekintza hori motibatu duten arrazoiak zeintzuk diren, bai eta zein helburu lortu nahi den prozesuaren bidez eta zein irismen izango duen. Horretaz gain, parte-hartze prozesu horrek generoan izango duen eraginaren berri ere emango dute. Aldi honi definizio fasea deituko zaio. Fase honetan parte hartze prozesu bakoitzaren irismen maila eta azken emaitzekiko konpromiso maila zehaztuko da eta publiko egingo da.

3.- Prozesuaren helburuak bat edo bat baino gehiago izan daitezke, hala nola:

- a) Egoera jakin baten diagnostikoa egitea, dagokion jarduketa publikoa antolatzeko oinarri gisa.
- b) Udal jardun jakin bati buruzko ideia sormena edo ideia berritzaileak bilatzea.
- c) Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak egitea edo baloratzea.

Partaidetza prozesu horiek dimentsio, izaera eta formatu desberdinekoak izan daitezke, gaiaren eta bestelako aldagaien arabera.

4.- Parte hartze prozesuaren emaitzak ez dira lotesleak izango. Hala ere, partaidetza prozesu bakoitzean emaitzak azken erabakian nola aplikatuko diren zehaztuko dira idatzi. Udalak prozesuaren ondorioetatik aldentzea erabakitzen duen kasuetan idatziz arrazoitu beharko du bere posizionamendua.

5.- Udalak partaidetza prozesuetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzearen egokitasuna baloratu beharko du, kasu bakoitza bere aldetik aztertuz. Halaber, logika bikoitz presentziala eta digitala erabiltzen denean, edo soilik ingurune birtualen erabilera, bazterketa digitala murrizteko neurriak ezarriko dira, aukeren barruan.



6.- Parte hartzeko prozesuetako komunikazio eta zabalkunde kanpainetan, aurrez aurreko saioetan nahiz digitaletan, euskara erabiliko da, eta genero-ikuspegia hartuko da kontuan, hizkuntza inklusiboa eta estereotiporik gabeko irudiak erabiliko direla bermatzeko. Era berean, herritar guztiek informaziorako sarbidea izango dutela bermatuko duten komunikazio-bideak sustatuko dira, eta, beharrezkotzat joz gero, baliabide digitalak erabiltzeko prestakuntza ere bai.

6.-Partaidetza prozesuak Udalaren bidez zein herritarren ekimenaren bidez sustatu daitezke.

7.- Herritarren ekimenez sustatutako partaidetza prozesuak, prozesu horietan parte hartzeko legitimazioari dagokionez, prozesu horiek izapidetzeko, eskaera aurkezteko eta sinadurak bildu, autentifikatu eta aurkezteko behar den sinadura kopuruaren arabera arautzen dira, erregelamendu honen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

39. artikulua. Talde sustatzailea eta eginkizunak

1.- Talde sustatzailea.

Udala sustatzailea den kasuetan, prozesuaren izaeraren arabera talde sustatzailearen funtzioak administrazio unitate bati edo gehiagori esleituko zaizkio.

Parte hartze prozesua herritarren ekimenez sustatzen den kasuetan, ekimena sustatzen duen batzordeak izendatutako pertsonak parte hartzeko prozesua sustatzen duen taldeko kide izango dira.

2.- Talde sustatzaileari eginkizun hauek dagozkio:

a) Parte hartzera deitutako pertsonen profilak identifikatzea eta proposatzea, beti ere herritar eta kolektibo anitzen parte hartzeko aukera berdintasuna zainduz eta gizon nahiz emakumeen parte hartzea bultzatuz edota bermatuz.

b) Pertsona horien parte hartze eraginkorrerako genero ikuspegia txertatuta **duten** metodologia egokienak definitzen laguntzea.

c) Jarraipen Batzordeko kide izatea, partaidetza prozesuan sor daitezkeen kexei edo desadostasunei irtenbidea aurkitzen laguntzeko.

d) Partaidetza prozesua ebaluatzeko adierazleak definitzen laguntzea. Adierazle horiek genero-ikuspegia jasoko dute, eta sexuaren arabera bereizitako datuak sortuko direla



bermatuko dute.

e) Aurrez aurreko saioetako hizkuntza kudeaketa definitzea herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

f) Aniztasun funtzionala duten herritarren parte hartzea ziurtatzeko beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak aurreikustea eta aplikatzea.

40. artikulua. Prozesuaren onarpena

1.- Alkatetzari dagokio partaidetza prozesua onartzea, eta tokiko Gobernu Batzordearen, zinegotzien eta administrazio betearazleko organo eta zuzendaritza karguen esku utz dezake eskumen hori.

2.- Onarpen ebazpenak honako hau adierazi beharko du:

a) Prozesuaren xedea, herritarren iritzipean jartzen den jarduera publikoa zein den zehaztuta, eta horren inguruan egin daitezkeen ekarpenak mugatzen edo baldintzatzen dituzten esparru tekniko, ekonomiko, juridiko eta politikoak, baldin badaude.

b) Herritarren ekimena sustatzen duen batzordeak edo Udalak planteatzen dituen alternatibak, halakorik badago.

c) Partaidetza prozesuaren udalerriko eremua.

d) Partaidetza prozesuaren funtzionamenduaz arduratzen den administrazio organoa.

e) EAEko berdintasun legeak eta Tolosako 2008ko Emakumeen eta gizonezkoan arteko berdintasunerako udal ordenantzak zehazten dituen baldintzak betez gero, aurretiazko genero inpaktuaren azterketa egin beharko da.

f) Ez da onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen ez duen prozesurik.

g) Ez da onartuko euskararen normalizazioaren bidean atzerapauso nabarmenik ekarriko duen prozesurik.

41. artikulua. Printzipio gidariak

1.- Partaidetza prozesuen printzipio gidariak honako hauek dira:



- a) Pluraltasun zein aniztasun handiena bilatzea zainduko da, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera, eta aniztasun hori kudeatzeko laguntza bitartekoak ezarriko dira.
- b) Baldintza indibidual edo sozialengatik (adibidez, sexu-generoa, adina, ezgaitasuna, edo jatorria) zailtasun bereziak dituzten pertsonak prozesuan laguntzeko behar diren laguntza-bitartekoak ezarriko dira, eragindako lurralde-eremuaren gizarte- eta biztanleria-osaera kontuan hartuta.
- c) Prozesu guztian zehar hizkuntza eskubideak errespetatuko dira, eta hizkuntza eta iruditegi ez-sexista erabiliko da.
- d) Prozesuen kalitate demokratikoa eta eraginkortasun-maila neurtzeko, lortutako emaitzak ez ezik, prozesuetara iristeko aukera eta bertaratutako pertsona guztien benetako parte-hartzea ahalbidetzeko neurriak hartuko dira.
- e) Horretarako, aldakortasun zabalena kontuan hartuko da, bai komunikazio-motei dagokienez, bai herritarrengana iristeko eta udalerrian dauden ahotsen aniztasuna ikusarazteko hautatutako bideei dagokienez.
- d) Gainera, parte-hartzaileen horizontaltasuna, errespetua, adierazpen-askatasuna eta tratu-berdintasuna errazten dituzten metodologiak txertatuko dira, eta herritarrek parte hartzeko espazio ireki eta egokia garatuko da. Horregatik, prozesu bakoitzak bere berezitasunei erantzuten dieten irizpideak eta estrategiak zehaztuko ditu.
- e) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko parte-hartzea bermatzeko, Tolosako Udalak, parte-hartze prozesuak garatzen diren bitartean, herritarren eskura jarriko ditu partaidetza eta bizikidetzak- eta zaintza-izaerako betebeharrak bateratzeko behar diren zerbitzuak.
- f) Genero-adierazleak eta datuak bereizita bildu eta aztertuko dira, espazio bakoitzaren agertokia genero-ikuspegitik ezagutzeko.

42. artikulua. Faseak

1.- Parte hartze prozesu guztiek fase edo aldi jakin batzuk bete beharko dituzte:

- a) Definizio aldia.
- b) Informazio aldia, zeinaren bidez herritar interesdun guztiei zabaltzen baitzaie zer gairi edo proiekturi buruz eskatu nahi den parte hartzea, bitarteko egokiak erabiliz.



c) Sormen eta eztabaida aldia, metodologia egokiak erabiliz, elkarrizketa eta argudioen kontrastea sustatzeko, eta parte hartzaileen ekarpenak jasotzeko.

d) Itzulera aldia, parte hartzaileei eta herritar guztiei prozesuaren emaitzak jakinarazteko.

e) Ebaluazio aldia.

f) Jarraipen aldia, prozesuaren emaitzen garapenaren jarraipena errazteko.

2.- Fase hauetan guztietan errespetatutako dira herritarren partaidetzaren alorreko ezagutzak ezartzen dituen uneak eta edukiak. Era berean, genero-ikuspegia txertatuko da fasetako bakoitzean, eta sexuaren eta intereseko beste ardatz batzuen arabera bereizitako datuak sortuko direla bermatuko da.

3.- Eztabaidetako edukiek aniztasuna eta genero-berdintasuna ere errespetatuko dituzte

43. artikulua. Jarraipen taldea

1.- Jarraipen taldea eratuko da, eta besteak beste, honako funtzioak beteko ditu:

a) Proposatutako eztabaidarako tresnei eta metodologiari buruzko iritzia ematea eta egokitzat jotzen dituen aldaketak iradokitzea.

b) Eztabaida tresnen funtzionamenduaren eta eraginkortasunaren jarraipena egitea eta hobekuntzak gomendatzea eta kalitate bermeak ziurtatzea.

c) Prozesuaren emaitzen txostena ezagutzea. Aurkeztu beharreko txostenak datuak sexuaren arabera berezita jaso beharko ditu, eta hizkera inklusiboa erabili beharko du.

d) Jarraipen Batzordeko kide izango diren pertsonen hasierako kopurua eta profila kasu zehatz bakoitzerako zehaztuko da, eta ahal den neurrian ahalik eta aniztasun handiena bilatuko da generoari, adinari eta jatorriari dagokienez.

44. artikulua. Aurrekontu parte hartzaileak

1.- Aurrekontu parte hartzaileko prozesuek gastu publikoaren inguruko eztabaidan eta erabakian udal ordezkarietaz gain herritarrek ere parte hartzea ahalbidetzen dute. Ekimen honek herritarrei udal aurrekontuan eragiteko aukera ematen die egituratutako prozesu parte hartzaile baten bidez.

2.- Udal aurrekontuan jaso beharreko egituraketari eta lehentasunei buruzko proposamen, gogoeta eta eztabaida prozesuak egin daitezzen bultzatuko du Udalak,



eta ondorioz, zenbateko ekonomiko jakin batzuk zertarako erabiliko diren zehaztu.

3.- Udal aurrekontuen lanketa eragileekin modu iraunkorragoan jardunez eta gardentasun printzipioa betez burutu dadin, ondoko prozedura jarraituko da:

a) Lehenengo hausnarketa, udal gobernu taldearekin: hurrengo ekitaldiko asmoak eta ideiak zehazteko.

b) Foku-ideia horiek oposizioko taldeekin alderatuko dira.

c) Foku-ideia horiek udaleko sailtako teknikariek eta ordezkari politikoekin alderatuko dira dagokion lege markoa eta eskumen arloa ebazteko.

d) Foku-ideia horiek herritarrekin landuko dira foro-saio ireki bateratuan. Foro horiek herritar orori irekiak izango dira eta hurrengo urterako beharrak eta aukerak identifikatzea izango dute helburutzat. Bertan barneratuko dira Tolosako udalean une horretan lantzen ari diren gainerako plangintzen helburuak, eta baita aurreko ekitaldietan planteatu diren baina landu ez diren fokuak ere. Ondorio guztiak txosten batean jasoko dira.

e) Une horretara arte jaso diren foku-ideien gaineko bilera teknikoa egingo da udaleko sailtako teknikariek.

f) Herritarrei komunikazioa egingo zaie eta bide telematikoen bidez aukerak zabalduko dira ekarpenak jasotzeko. Komunikazio hauek baliatuko dira aurrez jasotakoaren berri emateko eta ekarpen berriak egiteko moduak prestatuko dira.

g) Foku-ideien inguruko txostena idatziko da une honetara arte prozesuan landu eta jaso den guztiarekin.

h) Txostenaren aurkezpena eta lanketa egingo da udal gobernu taldearekin eta udaleko sailtako teknikariek. Aurkezpen bilera honetan ebatziko dira hurrengo ekitaldiari buruzko foku nagusiak zeintzuk izango diren eta erabakiko da saio sektorialak nola antolatu, aurrekontuetara eramateko proposamen zehatzak egitea errazteko asmoarekin.



i) Saio sektorialak: aurreko urratsetan identifikatutako fokuen arabera, gaikako bilerak egingo dira herritarrekin eta eragileekin. Saio horien helburua izango da hurrengo urtera begirako beharrak, fokuak eta aukerak aurrekontuetan txertagarriak izango diren proposamen zehatzera eramatea. Saio horietan udaleko ordezkari politiko eta tekniko baten presentzia ziurtatuko da, gutxienez, eta eurek eramango dute saioaren gidaritza. Saio bakoitzaren txostena idatziko da 7 eguneko gehienezko epean.

j) Saio sektorialen emaitza gisa, egindako egitasmo-proposamenen txosten bateratua idatziko du prozesuaren ardurapeko arloko teknikariak.

k) Prozesuan zehar jasotako egitasmo-proposamenen txostenaren lanketa egingo da udal barruan: departamentuetako teknikariekin, udal gobernuko ordezkariekin eta udalean ordezkarietza duten gainerako alderdien ordezkariekin.

l) Udal gobernu taldeak egitasmo-proposamenen txostenaren lanketa egingo du aurrekontuen prozedura ofizialean proposamen hauek txertatuak izan daitezzen.

m) Prozesuan landu eta jaso den guztiaren komunikazioa egingo zaie Tolosako herritarrei, bai eta aurrekontu proposamen berriarena ere, herritarren partaidetza bidezko ekarpenak barneratuta dituela.

n) Une honetatik aurrera, ohiko aurrekontuen prozedura administratiboa garatuko da Udalean.

o) Aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren fase guztietan errespetatutako dira herritarren partaidetzaren alorreko ezagutzak ezartzen dituen uneak eta edukiak. Era berean, genero-ikuspegia txertatuko da fasetako bakoitzean, eta sexuaren eta intereseke beste ardatz batzuen arabera bereizitako datuak sortuko dira.

p) Era berean, fase bakoitzean azpiordezkaturik egon diren kolektiboen parte hartze errealak eta eraginkorra bermatzeko mekanismoak garatuko dira.

VI. KAPITULUA. HERRI-EKIMENA GAUZATZEKO PROZEDURA

45. artikulua. Kontzeptua eta xede diren gaiak

1.- Herri-ekimena interes orokorreko eta udalaren eskumeneko jardura jakin bat sustatzera Udalak bideratutako herritarren esku-hartzea da. Herri ekimen bidez



jasotzen diren proposamenak bere gain hartzeko derrigortasuna du udalak, kapitulu honetan zehazten diren baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.

2.- Interes orokorraren edo kolektibo zabalaren konkurrentzia egiaztatzea 53. artikuluan zehazten den sinadura-kopuruaren bidez egiten da.

3.- Tolosan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute herri ekimenean.

4.- Herritar ekimenen objektuak udal eskumen arlokoa izan behar du, eta ezingo ditu mugatu edo murriztu oinarrizko giza eskubide eta/edo askatasunak (Espainiako Konstituzioaren I tituluko II kapituluan jasota daudenak). Halaber, ezingo da udal erregelamendu organikoaren berezko gaiei, udal zergeri eta prezio publikoei eta jada onartuta dauden aurrekontuei buruzkoa izan.

5.- Herritarren ekimena xede hauetarako izan daiteke:

a) Entzunaldi publikoa eskatzeko.

b) Ordenantzak edo araudiak bezalako testu artikuludunak aurkezteko, haien onarpena tramita dadin.

c) Ordenantzak edo araudiak egin daitezen proposatzeko.

d) Proiektu teknikoak aurkezteko, haiek onartu eta gauza daitezen.

e) Herri kontsultak egin daitezen proposatzeko.

f) Deliberazio edo partaidetza prozesu jakin bat gauzatu dadin.

g) Partaidetza organo bat sortu dadin.

h) Udal interes publikoko edozein jarduera egin dadin eskaera egiteko, alderdi eskatzaileak baliabide ekonomikoak, ondasunak, eskubideak eta lan pertsonala jartzeko konpromisoa hartuta kolaborazio edo lankidetzaren hitzarmen baten esparruan.

6.- Herri ekimen bakoitzak aurreko atalean adierazitako aukeretako bati bakarrik egin beharko dio erreferentzia. Salbuespen gisa, xedapen orokor bat onartzeko ekimenek xede berari buruzko kontsulta egiteko eskaera ere jaso dezake, Udalak proposatutako xedapen orokorraren onarpena ukatzen badu. Kasu horretan, sinadurak biltzeko pleguak argi eta garbi adierazi behar du sinadurek helburu bikoitza dutela.



46. artikulua. Izapidetzeko sinadurak

1.- Herri ekimen baten tramitaziorako beharrezkoa da Tolosan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen sinadura baliodunen gutxienerako babesa lortzea. Honi dagokionez, kontuan izango da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoa.

Ekimen motaren arabera, baliozko sinaduren gutxienerako sinadurak jaso beharko dituzte:

a) Entzunaldi publiko bat abian jartzea proposatzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleen % 2 gainditu behar du.

b) Ordenantzak edo araudiak bezalako testu artikuludunak aurkezteko bada, haien onarpena tramita dadin, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleen % 10 gainditu behar du.

c) Erreferendum izaerarik gabeko Herri-kontsulta baterako deialdia proposatzea edo xedapen orokor bat onartzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren %10 gainditu behar du.

d) Partaidetza-prozesu baten hasiera proposatzea edo partaidetza-organo bat sortzea bada, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren % 5 gainditu behar du.

e) Udal interes publikoko edozein jarduera egin dadin eskaera egiteko, bildutako sinaduren kopuruak 16 urtetik gorako udal-errolan jasotako biztanleriaren % 5 gainditu behar du.

2.- Erreferendum izaerako herri-galdeketa bat tramitera onartzeko, ezinbestekoa izango da botoa emateko eskubidea duten eta Tolosako hautesle-errolan inskribatuta dauden Tolosako biztanleen %15ek sinatzea, gutxienez.

47. artikulua. Batzorde sustatzailea

1.- Herritarren ekimena sustatzeko batzordea osatu beharko da. Herritarren ekimenaren sustatzaileek Tolosan bizi diren 18 urtetik gorako hiru pertsona izan behar dute, gutxienez. Sustatzaileak adin nagusidunak izan behako dira, sinadura bilketaren prozesuan irregulartasunen bat betez gero, ondorio legal eta penalak egon daitezkeelako. Pertsona hauek ezingo dira izan udal hautetsiak, ez eta Batzar Nagusietakoak, Eusko Legebiltzarrekoak, Gorte Nagusietakoak eta Europako Parlamentukoak ere.



2.- Herritarren kontsulta bat sustatzeko herritarren ekimenaren kasuan, indarrean dagoen legeriak euskal erakundeetako hautetsientzat eta goi-kargudunentzat ezartzen dituen hautaezintasun- edo bateraezintasun-arrazoieta batean erortzen diren pertsonak ere ezin dira Batzorde Sustatzaileko kide izan, ezta Eusko Jaurlaritzako edo Estatuko kideak ere.

3.- Era berean, herritarren ekimenaren sustatzaile izan daitezke edozein herritar-erakunde, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, enpresa-erakundeak, sindikatuak eta Tolosan jarduera-eremua duten elkargo profesionalak, baldin eta haien zuzendaritza-organoak aldez aurretik hala erabakitzen badu, eta ez badute administrazio-zehapen irmorik jaso, ez eta kondena-epai irmorik ere, sexuagatik, generoagatik edo giza eskubideengatik bereizkeriazko jardunbiderik egin edo onartu izanagatik edo beren jardueretan berdintasun-printzipioa ez betetzeagatik.

4.- Sustatzaileek herritarren ekimena sustatzen duen batzordea osatzen dute. Batzorde horrek aurreko artikuluan eskatutako gutxieneko sinadurak biltzeko konpromisoa hartzen du.

5.- Udalak aholkularitza teknikoa eskainiko die herritar ekimenak sustatzeko interesa duten pertsona eta entitateei. Eta landu beharreko eremuaren arabera, genero arloko adituen parte-hartzea sustatuko da.

6.- Udalak laguntza teknikoa eskainiko dio batzorde sustatzaileari bere eginkizuna euskaraz garatzeko helburuarekin, horrela nahi izatekotan.

48. artikulua. Eskabidea aurkeztea eta sinadurak biltzeko pleguak

1.-Herri ekimena onartzeko eskaera ondorengo bideak erabiliz aurkeztu ahal izango da: aurrez aurreko bidea, Udaten; bide telematikoa, egoitza elektronikoaren bidez. Elkarteen edota nortasun juridikorik gabeko kolektiboen kasuan, bide elektronikoa erabili behar dute.

2.- Eskaerarekin batera sinadura presentzialak biltzeko pleguen proposamena edo plataforma digitalaren bidez jasotzeko inprimakia eta artikulua honetan aipatzen diren dokumentuak ere aurkeztu beharko dira.

3.- Sinadura presentzialak biltzeko pleguen proposamenak elementu hauek izan beharko ditu:

a) Sustatzaileen iritziz ekimena onartzea gomendatzen duten arrazoiak azaltzea.



- b) Proposatzen den ekimenaren testu osoa, sinadurak testutik bereiz egon ez daitezten.
- c) Sinatzaileak, sinaduraz gain, bere izen-abizenak, nortasun-agiri nazionala edo, Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, pasaportearen edo atzerritarren identifikatzeko txartela, jaioteguna eta posta-kodea idatzi ahal izateko behar besteko tartea. Aurreikuspen hori ez da beharrezkoa inprimaki digitaletan.
- d) Argi eta garbi ulertzeko moduko informazio-klausula, eskatzen diren datu pertsonalak biltzearen xedeari buruzkoa eta datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzei buruzkoa. Klausula hori datuak biltzeko inprimaki eta formulario digital bakoitzean agertu behar da.
- e) Tolosako udalak sinadurak biltzeko eredu gisa balioko duen txantiloia eskainiko die eskatzaileei, horretarako beharrik izanez gero.

4.- Gainera, eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Herritarren ekimena sustatzen duen batzordea osatzen duten kideen zerrenda eta haien datu pertsonalak, ordezkaria nor den adierazita.
- b) Ekimena bestelako erakundeetatik badator, bere idazkari nagusiak eta erakundeko presidentek sinatutako ziurtagiri bat, bere gobernu-organoren bilera-aktarena, non eskatzen den herritarren ekimena sustatzeko akordioa jasotzen baita.
- c) Espazio publikoa erabiltzeko baimena eskatzea, erabilera hori aurreikusten bada.

49. artikulua. Xedapen orokorraren kasurako baldintza bereziak

1.- Herritarren ekimena xedapen orokor baten onarpena proposatzea bada, ekimenak bere iritzia eman ahal izateko behar diren aurrekariak jaso behar ditu, eta, aurreko puntuetan ezarritakoaz gain, plataforma digitaleko pleguen proposamenak edo eskaera-inprimakiak, non sinadurak jasoko baitira, honako elementu hauek jaso behar ditu:

- a) Xedapenaren testu artikulatua edo xedapenaren xedea zehaztasunez zedarrizten duten oinarrizko ildoak, eta artikulatua inspiratu behar duten printzipioak eta irizpideak.
- b) Sustatzaileen iritziz komenigarriak diren arrazoiak azaltzea, eta xedapen orokorra izapidetzea eta onartzea.



50. artikulua. Udal-kontsulten kasurako baldintza bereziak

1.- Baldin eta herritarren ekimena bada herri-kontsulta bat egitea proposatzea, aurreko puntuetan ezarritakoaz gain, ekimenaren eskaerarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: herritarrek egin nahi dituzten galderak edo proposamenak, parte hartuko duten pertsonak, herri-eremua, eta ekimena gauzatzeko arrazoiak azaltzen dituen memoria, sustatzaileen arabera.

Kontsultaren xedeak eta herritarrei galderak edo proposamenak egiteko moduak ordenantza honen 54. artikuluan ezarritako eskakizunak bete behar dituzte.

51. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta izapidetzea onartzea

1.- Behin eskaera jasota, eta sinadurak bildu aurretik, Udalak egiaztatu beharko du proposatzen den herri ekimena ordenantza honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela, eta eskaerarekin batera beharrezko agiriak aurkeztu behar direla. Errekerimendu formala egin aurretik, Udalak Batzorde Sustatzaileari dei egin diezaioke bere proposamenaren nondik norakoak argitzeko eta izan ditzakeen zirkunstantzia eta baldintzen berri emateko.

2.- Herritarren kontsulta bat sustatzeko herritarren ekimena bada, egiaztatu behar da, halaber, ez dela gertatzen 54.5 artikuluan aurreikusitako kontsultetatik baztertzeko kasuetako bat ere.

3.- Proposamenak Idazkaritza Nagusiaren, Kontu-hartzailearen, eraginpeko sailaren eta Komunitate eta Gobernantza sailaren txostenak izan beharko ditu.

4.- Era berean, tramitera onartu aurretik, Udalak txosten ekonomiko bat eska dezake, kontsultaren emaitzak udal jardueraren aurrekontuan eta plangintzan izan dezakeen eragina neurtu ahal izateko.

5.-Gastuak 500.000 € baino gehiagoko aurrekontua badu, Udalak bi aukera ditu: kontsultaren emaitza gauzatzeak baiezko botoen gehiengoa lortuz gero izan ditzakeen baldintzatzaileak Batzorde Sustatzaileari jakinaraztea eta eskaera izapidetzea ez onartzea.

6.- Aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada, horren berri eman behar dio Udalak Batzorde Sustatzaileari, 10 lan-eguneko epean, gehienez ere, nahitaezko agiriak erants ditzan, eta, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela adierazi.



7.- Eskabideak betekizun guztiak betetzen baditu, aurkeztutako sinadura-pleguak zenbakitu eta zigilatu beharko dira, bilketa aurrez aurre egiten denean. Bilketa modu digitalean egiten bada, aldez aurretik baliozkotu behar dira formularioa eta bilketa sistema.

8.- Gehienez ere hilabeteko epean, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita, Batzorde Sustatzaileari jakinaraziko zaio eskaera onartu dela eta sinadurak aurrez aurre jasotzeko pleguen proposamena eta inprimaki digitala baliozkotu direla, edo, bestela, izapidetzeko onartu ez direla, betiere arrazoituta. Epe hori etenda geratuko da Batzorde Sustatzailea argibide gehiagorako deitzen den bitartean, artikuluko honen 1. puntuan adierazten den bezala, eta, bilerak amaitutakoan jarraituko du zenbaketak.

7.- Eskaera onartua izaten bada, web atarian argitaratu beharko da.

52. artikulua. Sinadurak biltzea, autentifikatzea eta aurkeztea

1.- Sinadurak honela jaso daitezke:

a) Aurrez aurre.

b) Plataforma digitalaren bidez.

c) Aurreko biak konbinatuz.

2.- Herritarren ekimena babesten duten pertsonen aurrez aurreko sinadurak biltzeko pleguetan, izen-abizenak, jaiotze-data, posta-kodea eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia jaso behar dira, edo, erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan, pasaportearena edo atzerritarren identifikazio-txartelarena.

3.- Aurrez aurreko sinadurak honako hauek egiaztatu behar dituzte: notario batek, Justizia Administrazioako abokatu batek, idazkari judizial batek, Udaleko idazkari nagusiak edo hark eskuordetutako pertsonak aurreko puntuan xedatutakoaren arabera. Sinadurak plataforma digitalaren bidez biltzeko sistema idazkariak edo hark eskuordetutako pertsonak baliozkotu behar dute.

4.- Sinadura digitalaren bidez sinatzeko, interesdunek aldez aurretik plataforma digitalean inskribatuta egon behar dute, artikuluko honetan adierazitako dokumentazioarekin. Plataforma erregistro honetan inskribatzeak sinatzailearen nortasuna egiaztatuko du. Sistema honek alderdi hauek bermatu behar ditu beti nahitaez:



- a) Parte hartzailea identifikatu ahal izateko ziurtasuna.
- b) Pertsona berberak behin baino gehiagotan parte hartzeko ezintasuna.
- c) Pertsona berak sinatuko duela ziurtatzea.
- d) Behar besteko gardentasuna, behaketa eta gainbegiraketa independentea eta funtsatua egin ahal izateko.

5.- Batzorde Sustatzaileak bi hilabeteko epean jaso beharko ditu sinadurak, udal-zerbitzuek baliozkotutako agirien lehen multzoa itzultzen dioten egunetik zenbatzen hasita. Alkatetzak, edo hark eskuordetzen duen organoak, epe hori beste bi hilabetez luza dezake, justifikatutako arrazoiengatik.

6.- Sinadurak aurrez aurre eta autentifikazioarekin batera aurkeztu behar dira sortan, ezarritako gehieneko epearen barruan.

7.- Udalak aurkeztu eta gehienez hilabeteko epean egiaztatu behar ditu sinadurak, ahal dela bitarteko elektronikoen bidez. Plataforma digitala eta sinadurak biltzeko aurrez aurreko sistema erabiliz gero, lehenik aurrez aurrekoak egiaztatuko dira, digitalekin gurutzatzeko eta bikoiztuak ezabatu ahal izateko, bakarra zenbatu ahal izateko.

53. artikulua. Sinadurak modu eraginkorrean biltzearen ondorioak

1.- Udaleko Idazkaritza Nagusiak egiaztatu ondoren herritarren ekimenak eskatutako sinadura baliodunen kopurua bildu duela, honako ondorio hauek izango ditu:

- a) Entzunaldi publikoa proposatzeko bada ekimena, Udalak gehienez ere 30 eguneko epean egin behar du deialdia, ez bada kontrakorik adosten talde sustatzailearekin.
- b) Herritarren ekimena xedapen orokor bat onartzea proposatzea bada, hurrengo hiru hilabeteetan izapidetzea agindu behar da, udal-erregelamendu organikoan eta barrutien funtzionamendua arautzen duten arauetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- c) Herritarren ekimena herri-kontsulta baterako deialdia proposatzea bada, proposamen hau tramiterako onartu beharko du Udalbatzak, eta ekimena ordenamendu juridikoarekin bat datorrela egiaztatu beharko du, 50. artikulua araberaren arabera.
- d) Herritarren ekimena partaidetza-prozesu baten hasiera proposatzea bada, Udalak gehienez ere hiru hilabeteko epean deitu behar du, ez bada izango kontrakorik adosten talde sustatzailearekin.



e) Herritarren ekimena partaidetza-organo bat sortzea proposatzea bada, organo eskudunera bideratu behar da. Organo horrek bere erabakiaren berri eman behar du jendaurrean, eta, proposatutako partaidetza-organoa sortzearen aurkakoa bada, ezezkoaren arrazoiak adierazi behar ditu jendaurrean, modu arrazoituan, gehienez ere 30 eguneko epean, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, udaleko araudi organikoan eta barrutien funtzionamendua arautzen duten arauetan ezarritakoa.

Nolanahi ere, ekimena izapidetzeko, txostenak lortu beharko dira, eta dagokion erabakia hartzeko eska daitezkeen prozedurak osatu.

2.- Herritarren ekimena Udaleko Osoko Bilkuraren onespena behar duten jarduketak direnean, Batzorde Sustatzaileko kide bat bilkurara joan daiteke proposamena azaltzeko, udal-erregelamendu organikoan ezarritako eztabaidak antolatzeko sistemaren arabera.

3.- Herritarren ekimenak izaera orokorreko xedapen bat onartzea proposatzean datzanean, Batzorde Sustatzaileak proposamena atzera bota dezake behin betiko onartzeko bozketa egin aurretik, baldin eta uste badu arau-proposamenaren azken edukia funtsean aldatu dela, izapidetzen ari den bitartean hasierako proposamenari dagokionez.

VII. KAPITULUA: UDAL KONTSULTAK GAUZATZEKO PROZEDURA

54. artikulua. Kontzeptua eta xede diren gaiak

1.- Udal kontsultak herritarrek parte hartzeko mekanismoak dira, zeinaren bidez herritarrek iritzia eman dezaketen garrantzia berezia duten udal eskumeneko interes orokorreko gaietara buruz bozketa-sistema unibertsal, zuzen, aske, berdinean eta isilpekoaren bidez.

2.- Toki erregimeneko oinarrizko eta autonomiako legeriak xedaturikoarekin bat, hiru udal kontsulta mota bereiz daitezke:

a) Erreferendum izaerako herri-galdeketak.

b) Kontsulta sektorialak edo lurralde eremu mugatuetako kontsultak.

c) Toki-izaerako herri-kontsulta irekiak, politika publikoei edo garrantzia bereziko erabaki publikoei buruzkoak.



55. artikulua. Erreferendum izaerako herri galdeketak.

1.- Alkateak, osoko bilkurak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzia handia daukaten gaietarako iritzia galde diezaiokete herriari, baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta toki-administrazioaren ingurukoak badira. Tokiko araubideari buruzko legerian debekatuta dauden eremuetako gaiez, ordea, ezin izango da galdeketarik egin.

2.-Horretaz gain, inolaz ere ez dira kontsultaren gai izango honako hauekin loturiko galderak:

a) Pertsonen duintasuna, giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak zein askatasun publikoak urratzearekin edo zalantza jar ditzaketenean.

b) Ez dira onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa urratzen duten ekimenak.

c) Toki Ogasunaren diru sarrera publikoei nahiz Udalaren finantza iraunkortasunari buruzkoak.

3.- Alkateak egingo ditu mota horretako herri-galdeketerako deialdiak, osoko bilkurak hala

erabaki ondoren. Osoko bilkuraren erabakian honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gai den xedapen, politika edo erabakia publikoaren testu osoa, galdeketa-gai diren itaunak eta galdeketa noiz egin behar den. Halaber, galdeketa garatzeko protokoloa onartuko du Udalbatza osoak. Galdeketa-deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 90 egun eta urtebete artean egin beharko da.

4.- Udal-talde politikoen ekimenak gorabehera, lehenengo paragrafoan aipatzen diren herri-galdeketen eskaerak osoko bilkuraren oniritzipean jarri beharko dira, abiapuntua herritarren ekimena izan bada. Tolosako kasuan, botoa emateko eskubidea duten herritarren %15ek, gutxienez, sinatu beharko dute ekimena, ordenantza honetako 63.2 artikuluan adierazten den bezala. Hori eginez gero, udalak tramitea emateko prozedura irekiko du eta prozedura zehaztuko.

5.- Galdeketa batek erreferendum izaera izan dezan hauteskunde legearen arabera arautuko dira eta bertan ezarritako prozedura jarraitu beharko du; bai deitutako herritarrei dagokienez, eta baita galdeketa gaiztatzearen prozedurari dagokionez ere. Ondorioz, erreferendum izaerako herri galdeketa 18tik urtetik gorako herritarrek soilik ahal izango dute bozkatu.



56. artikulua. Sektoreko edo lurralde eremu mugatuetako kontsultak

1.– Gaiaren edo xede duten lurralde-eremuaren arabera, herritarren zati bati bakarrik bideratutako kontsulta bereziak egin ahal izango dira.

2.– Sektoreko kontsultatzat hartzen da arazo jakin bati buruz egiten dena eta herritarren zati bati bakarrik edo udalerriko biztanleen zati bati bakarrik eragiten diona.

3.– Lurralde-eremu bateko kontsultatzat hartzen da udalerrriaren zati batean bakarrik egiten

dena, dela auzo batean, dela toki-erakunde txiki batean, dela udal-barruti batean.

4.– Galdeketa horietarako deialdia egitea alkateari dagokio, behin osoko bilkurak gehiago osoz onartu ondoren.

5.– Galdeketa horietan, gaiaren arabera, udalerrian erroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik

gorako adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte.

6.–Inolaz ere ez dira kontsultaren gai izango honako hauekin loturiko galderak:

a) Pertsonen duintasuna, giza eskubideak edo oinarritzko eskubideak zein askatasun publikoak urratzearekin edo zalantza jar ditzaketenean.

b) Ez dira onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa urratzen duten ekimenak.

c) Toki Ogasunaren diru sarrera publikoei nahiz Udalaren finantza iraunkortasunari buruzkoak.

7.– Prozesuan aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla eta botoa berdintasun-baldintzetan emateko eskubidea zaintzen dela bermatu behar da. Alkatearen eskumena izango da printzipio horiek guztiz errespetatzen direla zaintzea eta prozesuak behar bezala burutzen direla bermatzeko neurriak hartzea.

8.– Kontsulta hauetan paperezko botoaren bidez zein boto elektronikoaren bidez bozkatu ahal izango da. Edonola ere, kontsultaren gaiaren eta honetara deitutako herritarren edo eremuaren ezaugarrien arabera ebatziko da zein sistema ahalbidetuko den kontsulta bakoitzaren hasieran. Tolosako udalak erraztasunak emango ditu parte hartzeko eskubidea duen pertsonak orok behar adina bermerekin parte har dezan.

9.– Tolosako udaleko idazkaritza izango da prozesu hau taxutzeko organo eskuduna, eta organo horrek emango du ateratako emaitzen fede.



57. artikulua. Politika publikoei edo garrantzia bereziko erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri kontsultak

1.- Tolosako Udalak politika edo erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri-galdeketa irekiak egin ahal izango ditu beharrezko eta egoki irizten dion kasuetan.

2.- Galdeketa hauek bozketa bidez burutuko dira, eta botoa emateko epea 15 egunera artekoa izan ahalko da. Osoko bilkuraren erabaki arrazoituaren bidez erabakiko da egun horiek segidakoak izango diren ala ez.

3.- Gaiaren arabera Tolosako Udalak erabaki ahal izango du paperean, sistema telematiko edo bi moduetara egitea bozketa, eta erabilgarri dituen baliabide guztiak jarriko ditu ziurtatze aldera parte hartzeko eskubidea duen pertsona orok bere ikuspuntua berme guztiekin adierazi ahal izatea.

4.- Halaber, udalerrian eroldaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte.

5.- Kontsultaren gaia udalerraren eskumeneko politika publiko, erabaki edo kontuetara mugatuko da. Ezin izango da galdeketa egin diru-sarrera publikoekin lotuta dauden alderdiei buruz, salbu eta galdeketa hizpide baditu tokiko tributuei dagozkien udal-eskumeneko alderdiak.

6.- Edonola ere, ez dira kontsultaren gai izango honako hauekin loturiko galderak:

a) Pertsonen duintasuna, giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak zein askatasun publikoak urratzearekin edo zalantza jar ditzaketenean.

b) Ez dira onartuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa urratzen duten ekimenak.

7.- Ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuetan, posible izango da horrelako kontsultak egitea jendaurreko informazioaren aldiaren.

8.- Galdeketa emaitzek ez dute izaera loteslerik izango toki-gobernuarentzat. Nolanahi ere, azken erabakia galdeketa irekian ateratako emaitzetatik aldentzen bada, berariaz arrazoitu beharko da zerk eragin duen erabaki hori.

58. artikulua. Lotesletasuna

1.- Kontsulta hauek ez dira lotesleak izango Udalaren ordezkari organoentzat, kontrakoa adierazten duen legerik egon ezean. Nolanahi ere, arau honetako 75. artikuluan xedatutakoarekin bat, eskumena duen udal organoak publikoki eta arrazoiak



emanen azaldu beharko du nola eragingo dion horren emaitzak kontsultapean jarritako gaiari, eta posible den kasuetan, kontsultaren lotesletasuna udal plenoaren gehiengo osoaren bidez erabakiko da.

59. artikulua. Printzipioak

1.- Udal kontsultek ondoko printzipio hauek errespetatuko dituzte: hizkuntza eskubideak, gardentasuna, publizitatea, argitasuna, informaziorako aukera, erakunde-neutraltasuna, interes kolektiboaren nagusitasuna, dibertsitatea, deliberazio publikoa, eztabaida publikoa, berdintasuna eta diskriminazio-eza, inklusioa, irisgarritasun unibertsala, eraginkortasuna, izaera pertsonaleko datuen babesa eta kontu-ematea.

2.- Tolosako Udalak herritarren parte-hartze prozesuak bultzatuko ditu, garrantzi bereziko gaiak helburu dituzten arau eta araudien aurreproiektuak egiteko, besteak beste, generoarekin eta berdintasun printzipioarekin zerikusia duten gaiak.

3.- Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorritik, printzipio hauek obligazio dira Udalarentzat, eta eskubide eta berme, aldiz, kontsulta-prozesuan parte hartzeko legitimazioa duten subjektuentzat.

60. artikulua. Mugak

1.- Urtero egin daitezkeen kontsulta-prozesuen kopurua ez da bat baino handiagoa izango, prozesu horietako bakoitzean kontsultapean gai bat baino gehiago jarri ahal izango den arren.

2.- Kontsulta-ekimen desberdinak kontsulta-prozesu beraren baitan biltzen ahaleginduko da Udala, baliabide publikoak eraginkortasun handiagoarekin kudeatu ahal izan daitezen.

3.- Kontsulta bat sustatzeko izapideak abiarazi ondoren, ezingo da gai berari buruzko beste kontsultarik sustatu kontsulta egiten denetik edo ekimena ezesten denetik lau urte igarotzen diren arte.

61. artikulua. Kontsultaren sustapena eta onestea

1.- Herri kontsultak udalaren ekimenez zein herritarren ekimenez sustatu ahal izango dira, Ordenantza honetan xedaturikoaren arabera, herri ekimenaren alorrean indarrean dagoen legeriari jarraiki, Udalbatzaren Osoko Bilkurak gehiengo osoaren botoekin hartutako erabakiaren bidez.



Udalbatzaren gehiengoak ezesten badu, arrazoiak eman beharko ditu eta errekurtsua jarri ahalko zaio erabaki horri dagokion administrazio errekurtsu edo errekurtsu jurisdikzionalen bidez.

62. artikulua. Erakunde ekimena aurkezteko modua eta onestea

1.- Erakunde ekimena udal talde politikoei dagokie.

2.- Kontsulta proposamena aintzat har dadin, honako dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko da: kontsultapean jarriko den galderaren edo galderen testu zehatza eta kontsulta hori komenigarri bihurtzen duten arrazoiei buruzko azalpen memoria eta hori gauzatzeko eskumen eremua.

3.- Proposamenak Idazkaritza Nagusiaren, Kontu-hartzailetzaren, eraginpeko sailaren eta Komunitate eta Gobernantza sailaren txostenak izan beharko ditu.

4.- Kontsulta egiteko erabakia hartzeko Udalbatzaren gehiengo osoak alde bozkatu beharko du eta Osoko Bilkuraren erabakian honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gai den xedapen, politika edo erabakia publikoaren testu osoa, kontsultapean jarriko d(ir)en galdera edo galderak, protokoloa, eta, hala badagokio, baita hautesleak nortzuk izango diren ere.

5.- Erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahalko da organo beraren aurrean eta/edo dagokion administrazio errekurtsoen edo errekurtsu jurisdikzionalen bidez.

63. artikulua. Herri ekimena aurkezteko modua

1.- Udal hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea duten pertsonak, hots, 18 urtetik gorakoek, sustatu ahalko dute herri kontsulta egiteko proposamena. 47. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2.- Ekimen horiek Tolosan erroldaturiko bizilagunen %20k onetsi beharko dituzte, gutxienez.

64. artikulua. Botoa emateko legezkatuta dauden pertsonak

1.- Erreferendum izaerako herri galdeketatik 18tik gorako eta hauteskunde-eroldan dauden herritarrek bozkatu ahal izango dute. Gainerako kontsultetan bozkatu ahal izango dute Tolosako Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak, baldin eta bozketa hasterako urte horiek beteak badituzte eta Kontsultaren deialdia egiten den unean udalerrian erroldatuta baldin badaude.

2.- Kontsultaren lurralde esparruak Tolosako udalerriaren parte bat hartzen duenean,



dagokion esparruko Biztanleen Erroldan inskribatuta dauden pertsonak bakarrik egongo dira botoa emateko legezatuak.

3.- Edozein kasutan, Biztanleen Udal Erroldaz arduratzen den bulegoak osatuko du boto emaleen errolda, Idazkaritza Nagusiak gainbegiratuta eta oniritzia emanda.

65. artikulua. Galdera egiteko eta erantzuteko modua

1.- Modu zehatz, argi eta ulerterrazean egindako galdera baten edo batzuen bidez egingo da kontsulta, herritarrek horien hedadura osoa ulertu ahal izan dezaten.

2.- Boto hori baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke.

3.- Salbuespen gisa, kontsultak zenbait erantzun alternatibo planteatu ahal izango ditu, botoa haietako baten ingurukoa izan dadin.

4.- Galdera bakar bati ere erantzuten ez zaionean, edota laukitxorik ez bada markatzen, botoa zurian izan dela ulertuko da.

Aitzitik, hainbat laukitxo markatu badira edo boto txartelean iruzkinak, urratuak edo zuzenketak baldin badituzte, botoa baliogabetzat hartuko da.

5.-Hala eta guztiz ere, kontsultaren arabera, galdera bera edo onartutako erantzunen aukerak bestelakoak izan daitezke. Kasu horretan, bozketaren aurretik berariaz zehaztuko da nola erantzun ahal izango den eta zein kasutan izango diren onargarriak jasotako erantzunak, eta zein kasutan kontsideratuko diren baliogabeak.

66. artikulua. Deialdia egiteko eta kontsulta gauzatzeko epealdi baliogabeak

1.- Hauteskunde orokorren edo autonomiakoen deialdiaren eta horiek egiteko epearen arteko denboran ezin izango da inolako kontsultarik deitu, ez eta aurrera eraman ere.

2.- Udal hauteskundeen kasuan, hauteskundeak egin aurreko 90 egun naturalen eta Udal Gobernu berriak kargua hartu ondoko 90 egunen arteko denboraldira luzatzen da ezin egite hori.

67. artikulua. Deialdia eta informazio kanpaina

1.- Udalbatzaren osoko bilkurak kontsulta egitearen aldeko erabakia hartu ondoren, kontsultaren deialdiaren izapidetuko da, herri kontsultak alde aurreko tramite gisa Estatuko Gobernuari baimena eskatzea eskatzen badu ere, eta hark xedaturiko prozeduraren arabera bideratuko da eskaera hori.



2.- Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, gardentasun atarian eta Tolosako lurralde esparruan hedatuen dauden komunikabideetan argitaratuko da, eta honako alderdi hauek definitu behar ditu gutxienez:

- a) Kotsultaren izaera eta haren lurralde esparrua, hala badagokio.
- b) Kotsultapean jarritako galdera edo galderak.
- c) Bozketa sistema.
- d) Kotsultaren epeak eta ezaugarriak eta kotsultarekin loturiko aukera desberdinei buruzko informazio bideak jakinaraziko dituen informazio kanpaina.

Kanpaina denboraldia ez da 30 egun naturaletik beherakoa izango, ez eta 90 egunetik gorakoa ere.


e) Bozketa aldia. Denbora tarteak ez da izango 15 egun jarrai edo txandakakoa baino luzeagoa. Kontrako kasuan, udalbatzaren osoko bilkurak erabakia hartu beharko du arrazoiak behar bezala justifikatuta.

- f) Bozketa lekuak.
- g) Kotsulta mahaien izendapena.
- h) Prozesuaren berme eta kontrol sistema.
- i) Udal langile gaituak.

3.- Kotsulta egin beharko da deialdia GAO-n argitaratzen den egunaren hurrengo 90 egunen eta urte baten arteko epe luzeazinean.

4.- Argitalpenaren hurrengo 5 egun naturalen barruan, deialdi hori Udalaren web atarian, iragarki-taulan eta dagokion lurralde-eremuan zabalkunderik handiena duten hedabideetan argitaratuko da.

5.- Ordenantza honen 85. artikulua xedaturikoaren arabera herri ekimena bultzatzeko gaitutako gizarte erakundeak kotsultaren ondorioetarako interesduntzat hartuko dira, baldin eta haien helburu soziala kotsultak gai duen kontuarekin loturik badago. Kasu horretan, informazio kanpaina aurrera eramateko jarritako epean, beren jarrera adierazteko ekintzak aurrera eraman ahal izango dituzte erakunde interesdunek.





68. artikulua. Informazio kanpaina eta eztabaida publikoa

1.- Informazio-kanpainak eztabaida publikorako epe bat jaso beharko du, eta horren barruan, ekitaldi mota desberdinak antolatu daitezke metodologia desberdinekin, iritziak eta argudioak trukatu daitezela errazteari begira.

Eztabaida Publikoa egiteko ezarritako epearen barruan, Sustapen Batzordeak, talde politikoei eta gizarte-eragile nahiz elkarte profesional interesatuek beren jarreraren inguruko informazio-jarduerak egin eta azalpenak eman ahal izango dituzte.

Informazio eta eztabaida publikorako epea ezin daiteke 30 egun naturalekoa baino laburragoa izan, ezta 90 egun naturalekoa baino luzeagoa ere.

69. artikulua. Erreferendum izaerarik ez duten kontsulten hauteskunde administraziorako tresnak

1.- Kontsulta prozesuko hauteskunde-administrazioa honako hauek osatuko dute:

a) Batzorde tekniko bat, udal-idazkariak, Gobernantzako eta Partaidetzako teknikariak eta kontsultak eragindako udal saileko arduradunak eta arlo juridikoko teknikari batek osatua.

b) Kontsulta-mahaiak: hiru pertsonak osatuko dute, hauteskunde-legeriaren arabera zozketa bidez aukeratuak izango direnak. Posible izan daiteke mahai hauek osoki udal funtzionarioekin osatzea. Kasu honetan, langileei Udaltzako akordioa aplikatu beharko zaie. Mahaietan soilik egongo ahal izango dira funtzio horretarako berariaz izendatu diren mahaikideak, kontsultako sustatzaileen ordezkariak eta, horrelakorik ez balego, udal talde politikoen ordezkariak bertan egoteko aukera aztertuko da. Edozein kasutan, ordezkariak behatzaile rola izango dute eta ezingo dute emaitzari edo prozedurari buruzko erabakirik hartu. Ezadostasun sustantzialik balego, helegiteak jartzeko aukera izango dute.

70. artikulua. Erreferendum izaerarik ez duten kontsulta prozesuak kontrolatzeko tresnak

1.- Kontsulta sustatzen duen erakunde bakoitzak ordezkari bana izendatu ahal izango dute mahai bakoitzean, baita boto elektronikoa emateko prozesurako ordezkari bat ere. Ordezkari horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren iritziak eta aurkaratzeak bilkuraren aktan jasoko dira. Aurkaratze horiek Batzorde Teknikoak ebatzi beharko ditu, eta bere ebazpenak arrazoitu beharko ditu beti. Halaber, Batzorde Teknikoak modu



arrazoituan aztertu eta ebatziko ditu boto elektronikoari dagokionez egindako aurkaratzeak.

2.- Berme Batzordea, honako hauek osatuta: 69.1.a) atalean aipaturiko funtzionarioez gain (Kontsultako Batzorde Teknikoa), kontsulta sustatzen duen erakunde bakoitzak izendatu ahal izango du Kontsultako Batzordearen aurrean, honako zeregin hauetarako:

- a) Kontsultako prozesuari buruzko informazioa lortzeko.
- b) Izan diren erreklamazioak eta haien ebazpenak ezagutzeko, beti ere izaera pertsonaleko datuak bereizi ondoren.
- c) Gai orokorrei edo kontsulta-mahai bati baino gehiagori eragiten dieten gaien buruzko erreklamazioak jartzeko.
- d) Eragindako erakundeen eskubide edo interesei eragiten dieten gaien buruzko proposamenak egiteko.

3.- Berme Batzorde honetan Kontsultako Batzorde Teknikoko kideek hitza eta boto eskubidea izango dute. Gainontzeko partaideek hitza izango dute, baino botorik ez, eta beren iritzia eta aurkaratzeak bilkuraren aktan jasoko dira.

71. artikulua. Udalaren espazioak eta baliabideak

1.- Udalak erabakiko du informazio kanpainaren eta eztabaida publikoaren eskura zein espazio publiko jarriko dituen, eta baita haien banaketa ere, posizio interesdunen artean berdintasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuz betiere. Espazio horiek irisgarritasun-printzipioa bermatu beharko dute.

2.- Udal web atarian atal bat jarriko da kontsultaren gaiari buruzko aukera desberdinetarako.

3.- Udalak azalpen-buletin bat prestatuko du eta etxeetan banatuko du. Buletinean, kontsulta-gaiaren inguruan egon daitezkeen jarrera desberdinei espazio bera eskainiko zaie, bozeramaileen Batzordean entzun eta eztabaidatu ondoren. Jarrerei buruzko azalpen horiek udal talde politikoek, ekimenaren sustatzaileek edo interesatu gisa kreditatutako eragile nahiz kolektiboek egin ahal izango dituzte.

72. artikulua. Bozkatzeko moduak

1.- Aurrez aurreko bozketa kontsultarako mahaian edo mahaietan egingo da deialdiaren ebazpenean adierazitako egunean edo egunetan, hartan jasotako ordutegian.



2.- Aurrez aurreko bozketa boto txartelen bidez egingo da eta gutun azal itxian. Gutun azal hori hautestontzian sartu beharko da.

3.- Honako irizpide hauek errespetatuko dira betiere: parte hartzaileen identifikazioa, hauteskunde erroldan edo zerrendan inskribatuak daudela egiaztatuz; botoaren isilekotasuna eta botoak daramatzaten gutun azalen osotasuna, zaintza sistema egokiaren bidez zenbatzeko unera arte.

4.- Erreferendum izaera ez duten galdeketetan, aurrez aurrekoa ez den bozketa aukera ahalbidetuko da, eta baliabide elektronikoen bidez egingo da, batik bat. Salbuespen gisa posta bidez bozkatu ahal izango da, eta horretarako, hauteskunde araudi orokorra hartuko da erreferentzi gisa, jarritako baliabideak soil-soilik udalarenak izango badira ere.

5.- Aurrez aurrekoa ez den bozketak honako hauek bermatu behar ditu, betiere:

a) Segurtasuna parte hartzen duen pertsona identifikatzerakoan.

b) Pertsona bakar batek bi aldiz edo gehiagotan ez bozkatzea.

c) Botoaren isilekotasuna, eman den iritziaren eta iritzi hori eman duen pertsonaren artean inolako loturarik ezarri ez dadin.

d) Boto elektronikoaren eta posta ziurtatuaren bidezkoaren segurtasuna, parte hartzea edo emandako botoak alda ez daitezen.

e) Gardentasuna, behaketa eta gainbegiratze independentea eta oinarritua aurrera eramanez ahal izateko.

73. artikulua. Botoen zenbaketa

1.- Botoa emateko denbora amaitutakoan, mahaiek botoak zenbatuko dituzte, eta baliogabetzat hartuko dituzte aldez aurretik deialdian adostutako ereduarekin bat ez datozen boto txartelak edo edozein eratako aldaketak izan dituztenak, emandako iritziaren inguruan okerra eragin edo hura baldintzatu dezaketelako.

2.- Boto kontaketa publikoa izango da beti.

3.- Mahaia botoen zenbaketaren akta idatziko du eta kontsultaren Jarraipen Batzordeari emango dio. Akta horretan, bozketa prozesuko edozein alderdiri buruzko alegazioak jasorarazi ahal izango dituzte Mahaia osatzen duten pertsonak, baita behatzaile gisa egon direnek ere.



4.- Kontsultaren Jarraipen Batzordeak, hala badagokio, aktan jasotako alegazioei buruzko txostena egingo du eta Alkatetzari helaraziko dio botoen zenbaketaren aktekin batera, dagokien ebazpenaren bidez erabaki daitezzen.

74. artikulua. Emaitzak argitaratzea

1.-Akta jasotzen den egunetik, eta gehienez ere 7 eguneko epean, Alkateak ebazpenaren bidez adieraziko ditu emaitzak. Ediktuen taulan, gardentasun atarian eta Alkatetzak egokitzat hartzen duen beste edozein baliabidetan argitaratuko da ebazpena.

2.- Tolosako Udalak kontsultan lortutako emaitzak argitaratuko ditu, datu teknikoak zehaztuz eta sexuaren arabera bereiziz.

3.-Emaitzak adierazteko ebazpenaren aurka, eta baita izan diren alegazioak edo/eta gorabeherak erabakitzen dituenaren aurka ere, errekurso administratibo eta jurisdikzional arruntak aurkeztu ahal izango dira.

75. artikulua. Udalaren posizionamendua emaitzari begira

1.- Bozketaren emaitzarekin loturiko ebazpena egin denetik edo gertatutako gorabeheren ebazpena egin denetik hasi eta gehienez ere 60 egun naturaleko epean, Gobernu Taldeak edo Osoko Bilkurak (organo eskudunak), Bozeramaileen Batzordearen bidez, publikoki eta behar bezala arrazoituta adieraziko du emaitzak zer-nolako eragina izango duen kontsultapean jarritako jarduera publikoan duen izaeraren eta lotura mailaren arabera.

III- TITULUA: KOMUNITATEAREN GARAPENA BULTZATZEKO EGITURA

I. KAPITULUA: HERRITARREN TREBAKUNTZA ETA AHALDUNTZEA

76. artikulua. Herritartasun aktiboa

Tolosako Udalak herritarren artean herritartasun aktiborako informazioa eta prestakuntza bultzatuko ditu balio demokratikoak eta parte hartzea gara daitezzen gizarte balio gisa, arreta berezia jarriz era guztietako aniztasunetan eta genero-berdintasunari buruzko printzipioetan.



77. artikulua. Gizarte zibila indartzea

1.- Tolosako Udalak gizartearen borondatezko ekintza parte-hartzaile, inklusibo eta eraldatzailearen errealitate desberdinak ezagutu eta sustatuko ditu, arlo horretan indarrean dagoen legerian jasotako moduan, eta gizarte indartzeko gizartean parte hartzeko beste modu batzuekin duen lotura bultzatuko du.

2.-Tolosako Udalak udalerriak dituen gaitasun ekonomikoen araberako baliabide eta ekipamendu egokiak emango dizkie boluntariorza eredu horien esparruan diharduten taldeei

78. artikulua. Tolosatzen eskola irekia

1.- Tolosako udalak "Tolosatzen Eskola Irekia" eratu du pertsona erdigunea jarriz, herri agenda partekatua garatzeko udalaren, eragileen, taldeen eta herritarren arteko sinergiak indartzeko asmoarekin.

2.- Tolosatzen Eskola Irekia hiru lan esparru nagusitan arduztuko da:

- a) Herritarrei formazioa eskaintzea herritartasuna eta trebetasun sozialetan sakontzeko.
- b) Gizartearen eta komunitatearen sendotzea ahalbidetzen duten proiektuak eta egitasmoak sustatzea.
- c) Udal zerbitzuen, Udalerrriaren eta herri-ingurunearen ezagutza sustatzea.

3.- Eskola irekiaren jardueren publiko hartzailea Tolosako herritarrak dira, nahiz eta irekia dagoen parte hartu nahi duen pertsona ororentzat: xede talde gisa Tolosako herritarrak, Tolosako elkarteak eta kolektiboak, Tolosako udaleko langileak eta Udaleko ordezkari politikoak identifikatu dira.

79. artikulua. Tolosatzen eskola Irekiaren kudeaketa eta funtzionamendua.

1.- Tolosako Udaleko Komunitatea eta Gobernantza sailaren ardurapekoa izango da Tolosatzen Eskola Irekia.

2.- Tolosatzen Eskola Irekiak ikasturtearen araberako programazioa osatuko du ekitaldi bakoitzean, eta horren bidez burutuko du bere jarduera.

3.- Eskolaren kudeaketarako Talde Sustatzailea eta Talde Motorra eratuko dira, eta talde hauek izango dira eskolaren jardueraren diseinuaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko direnak.



80. artikulua. Tolosatzen Eskola Irekiaren talde sustatzailearen osaera

1.- Tolosatzen Eskola Irekiaren Talde sustatzailearen funtzioa da eskolaren helburu estrategikoak ezartzea eta hauek urtez urte betetzen direla gainbegiratzea.

2.- Talde Sustatzaile pertsona hauekin osatuko da: Komunitatea eta Gobernantza saileko arduradun teknikoa, idazkari rola jokatu duenari, Komunitatea eta Gobernantza saileko arduradun politikoa, alkatea eta Udalbatzan ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkari bana.

81. artikulua. Tolosatzen Eskola Irekiaren talde motorraren osaera

1.- Tolosatzen Eskola Irekiaren Talde Motorraren funtzioa da eskolaren edukien lanketa egitea, gaiak proposatzea eta ikasturte bakoitzeko helburuak eta plangintza zehaztea.

2.- Tolosako edozein herritar izan daiteke talde motorreko kide. Horretarako deialdi irekia egingo du ikasturte bakoitzean Komunitatea eta Gobernantza sailak. Talde honetan parte hartuko duten pertsonak norbanako gisa hartuko dute parte bertan. Herritar boluntarioez gain, Udalbatzan ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkari bana egongo da taldean eta Komunitatea eta Gobernantza saileko ordezkari teknikoak egingo ditu idazkaritza lanak.

3.- Talde honen osaera parekidea izatea sustatuko da.

82. artikulua. Bestelako formazio eta trebakuntza ekintzak

1.- Tolosatzen eskola irekia Tolosan garatzen diren bestelako formazio jarduerak publikoekin elkarlana eta osagarritasuna landuko ditu, hala nola, Hezkuntza komunitatea, Jabetze eskola, KZgunea, eta antzeko bestelako formazio guneekin, formalak zein ez formalak.

II. KAPITULUA: ELKARTEGINTZA SUSTATU, INDARTU ETA SARETzea

83. artikulua. Elkarte-sarea

1.- Tolosako herritarren elkarte eta kolektiboen sarea udalerririk duen gizarte kapitalaren elementu garrantzitsua da, izan ere, elkartegintza pertsonak bere udalerriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboa da. Elkartegintzak, gainera, balio erantsia du, interes publikoko eta sozialeko xedeak dituelako.

2.- Udalak hainbat baliabide publiko erabiliko ditu ehun-sozialak sustatutako proiektuen garapena eta indartzea sustatzeko, bereziki, berdintasunaren eta justizia sozialaren



ikuspegitik lan egiten dutenak, komunitatea eta komunitario dena indartzea helmuga dutenak eta bazterketa-arriskuan dauden pertsona eta kolektiboen partaidetza eta inklusiorako bide direnak.

3.- Tolosako Udalak herriko eta interes publikoko gaietan parte hartzeko bidea emango die udalerriko herritarren elkarte eta kolektiboei, eta baliabideak bideratuko ditu hauek garatu eta egonkortu daitezken, beti ere elkarte eta kolektibo bakoitzaren ekinbiderako autonomia errespetatuz.

84. artikulua. Herritarren elkarte eta kolektiboen fitxategia

1.- Herritarren elkarte eta kolektiboen-sarearekin harremanak errazteari begira, udalerrian jarduten duten irabazi asmorik gabeko eta elkarte-araubide espezifikiko baten mende ez dauden herritarren elkarte eta kolektiboen fitxategia sortu eta zainduko du sail edo zerbitzu eskudunak, baita eguneratuta mantendu ere.

2.- Fitxategiak helburu hauek izango ditu:

- a) Udalerrian dagoen elkarte-sarea ezagutzea eta hauen balio publikoa aitortzea.
- b) Arau honetan aitortutako eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea, kasu bakoitzean zehazten den moduan.
- c) Udalari eta, oro har, Tolosako gizarteari aukera ematea une oro ezagutzeko zein diren kolektiboen ordezkartzari buruzko daturik garrantzitsuenak, haien jardueren interes-maila edo herri erabilera, berdintasunarekin edo aniztasunarekin duen lotura, edo sareak eta aliantzak sortzea errazten duen beste edozein datu, beti ere Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak dioena aintzat hartuz.

85. artikulua. Herritarren elkarte eta kolektiboen izaera

1.- Arau honen ondorioetarako herritarren elkarte eta kolektibo kontsideratzen dira:

a) Herritarren elkarte izaera dute: dagokion eroldan formalki eratutako eta inskribatutako irabazi asmorik gabeko izaera juridikodun elkarte-izaera duten erakundeak, elkartzeko eskubidea arautzen duen erregimen orokorrarekin bat datozenak, baldin eta beren egoitza edo jarduera nagusia Tolosako udalerrian kokatua badago eta beren funtsezko helburua, Estatutuetan jasota duten moduan, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatzeko eta sustatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea bada.

b) Herritarren kolektibo izaera dute: herritarren elkarte izan gabe, irabazi-asmorik gabeko hiru pertsona fisiko edo gehiagoko taldeak, baldin eta Tolosako udalerrian esku hartzen



badute, herrian sustraituta badaude, eta xedeen artean herritarren interes orokorrak edo sektorialak sustatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea badute.

86. artikulua. Fitxategiaren informazioa

1.- Formalki erregistratutako elkarten kasuan, honako informazioa jasoko du fitxategiak:

a) Erakundearen estatutuak, honako hauek adierazita: izena, jarduteko lurralde-eremua, egoitza soziala, helburuak eta jarduerak, hasierako ondarea, erabili ahal izango dituen baliabide ekonomikoak, erakundearen funtzionamendu demokratikoa bermatzen duten irizpideak, eta edozein Erregistro Publikotan inskribatzeko indarrean dagoen araudian zehazten diren alderdi guztiak.

b) Dagokion Erregistro Publikoko inskripzioa eta inskripzio-zenbakia egiaztatzea.

c) Bazkide-kopurua (generoaren, adinaren eta testuinguru zehatzean garrantzitsutzat jotzen diren ardatzen arabera sailkatuta).

Oinarrizko elkarten federazio, konfederazio edo batasunen kasuan, gainera, elkarteak osatzen duten erakundearen kopurua egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da, bai eta horien zerrenda ere, helbidea Tolosan dutenak eta horietako bakoitzaren bazkide kopurua adierazita.

2.- Herritarren kolektiboaren kasuan, honako hauek jasoko ditu fitxategiak:

a) Talde edo kolektiboko kideen izen-abizenak eta nortasun-agiria (generoaren, adinaren eta testuinguru zehatzean garrantzitsutzat jotzen diren ardatzen arabera bereizita).

b) Hala badagokio, kolektiboak hartzen duen izena.

c) Fitxategian izena emateko borondatea adieraztea.

d) Talde edo kolektiboaren xedearren edo xedeen deskribapena

e) Talde edo kolektiboak nagusiki Tolosako udalerrian egiten dituen jarduerak.

f) Jakinarazpenetarako helbidea.

g) Aplikatzekoa den sektoreko araudiaren arabera legezko ordezkari gisa jarduten duen pertsona, edo, halakorik ezean, talde edo kolektiboak ordezkari gisa izendatutako pertsona. Ordezkaritza Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan aurreikusitako bitartekoen arabera egiaztatuko beharko da.



Bi kasuetan, fitxategian inskribatzea formulario normalizatuen bidez egin beharko da.

3.- Fitxategian inskribatutako herritarren elkarte eta kolektiboen direktorioa publiko egingo du udalak, beti ere Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak dioena aintzat hartuz.

87. artikulua. Tolosan elkartegintza indartzeko eta sendotzeko tresnak

1.- Herritarren elkarteek eta kolektiboez beren jarduerak berme guztiekin garatu ditzatela erdiesteko, Tolosako Udalak zenbait bitarteko juridiko eta material erabili ahalko ditu. Horretarako, laguntzez, dirulaguntzez, hitzarmenez edo horretarako egokia den bestelako lankidetzak molde guztiez baliatu ahal izango da.

2.- Interes orokorra sustatzeko xedea duten elkarte-proiektuak bultzatuko dira, herritar guztientzat irekiak, inklusiboak, irisgarritasun unibertsala eta desberdintasunen murrizketa bermatzera bideratuak eta, ahal dela, doakoak, edo, gutxienez prezio politika arazoizkoak izango dituztenak; gizarte-egituraketa eta herritarren erakunde eta kolektiboen arteko lankidetzak sustatzen dutenak; lurralde-orekan, berdintasunean eta justizia sozialean eragiten dutenak; eta erabakiak hartzeko gune irekia dutenak.

3.- Elkartegintza sustatu eta indartzeko beharrezko neurriak jasoko dituen programa bat prestatuko du Tolosako Udalak, genero ikuspegia kontuan hartzen duena. Programa horren barruan argi adieraziko dira lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, eta horiek lortzeko behar diren epeak eta eskura jarriko diren bitarteko edo baliabideak.

Programa horretan ondoko hauek sartu ahal izango dira:

a) Elkartegintza mugimendua kudeatzeko, dinamizatzeko eta sustatzeko heziketa eta gaikuntza, herritar-mugimenduaren inplikazioarekin antolatuta, hainbat formatu eta modalitateetan.

b) Aholkularitza-zerbitzua, partaidetzaren eta kudeaketaren maila desberdinetan.

c) Elkarreentzako baliabide bereziak.

4.- Arreta berezia emango zaie gizonen eta emakumeen partaidetzan dauden desberdintasunak gainditzeko prestakuntza-ekintzei.

II. KAPITULUA. LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

88. artikulua. Lankidetzak publiko-soziala

1.- Lankidetzak publiko-sozialtzat joko dira herritarren eta 84. artikuluan definitutako irabazi-asmorik gabeko herritarren elkarte eta kolektiboen eta Tolosako Udalaren eta



haien erakunde publikoen arteko lankidetzak-moduak, bientzako interes komunekin jarduerak garatzeko, onura orokorra sortzea dakartenak.

2.- Zerbitzu publikoak emateaz bestelako jarduerak sustatuko dira lankidetzak publiko-sozialaren bitartez.

3.- Lankidetzak publiko-sozialaren esparruan garatzen diren jarduerak printzipio hauek izango dituzte buru: gardentasuna eta publikotasuna, lehia eta objektibotasuna, erantzunkidetasuna, elkarrekikotasuna eta osagarritasuna, ingurumen, ekonomia eta gizarte-iraunkortasuna, autonomia, lankidetzak, konfiantza, irisgarritasun unibertsala eta arrazoizko doikuntzak, ekitatea eta berdintasuna eta koherentzia.

89. artikulua. Sustapena

1.- Honako subjektu hauek parte hartu ahal izango dute lankidetzak publiko-sozialeko jardueretan:

a) Tolosako Udalaren aldetik, sustatu nahi den gai bakoitzean eskumena duen edozein organo.

b) Herritarrek, erakundeak eta irabazi-asmorik gabeko herritarren kolektiboak.

2. Lankidetzak publiko-sozialeko jardueren garapenean parte hartu ahal izango dute, osagarri gisa:

a) Beste administrazio publiko batzuk edo zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Pertsona fisiko edo juridikoak, zuzenbide pribatuko subjektuak, artikulua honetako 1.b paragrafoan aipatutakoez bestelakoak, gizarte-ekonomiako erakundeak barne.

90. artikulua. Esku-hartze eremuak

1.- Udalak lankidetzak publiko-soziala sustatuko du interes orokorreko jarduerak garatzeko, baldin eta, bere eskumenen barruan, onura orokorra edo komuna ekarriko badute. Jarduera horiek, besteak beste, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrotatuko dira eta zeharkakoak izan daitezkeen eremu hauetan egin ahal izango dira, beti ere eremuok zabalak izan daitezkeela ulertuz eta hauen arteko elkarreraginak eman daitezkeela ahalbidetuz:

a) Parte-hartzea sustatzea: elkartegintza, boluntarioria, parte-hartze komunitarioa eta belaunaldiartekotasuna sustatzea eta alor hauetan egindako lana gizartean ikustaraztea eta gizartean zabaltzea.



- b) Hirigintza: espazio publikoak edo ondasun komunak kontserbatu, birgaitu edota berroneratzeari buruzkoak (orube hutsak, lokalak, ekipamenduak, berde komuna).
- c) Hiri-ingurumena: ingurumenaren babesa, ingurumen-hezkuntza, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra, hondakinen gutxiagotzea, birziklapena, berrerabilpena edota klima larrialdiaren eta haren ondorioen aurka egiteari buruzkoa.
- d) Mugikortasuna: mugikortasun eredu iraunkorrago eta sozialagoetarako trantsizioa ahalbidetuko duten estrategiak garatzea.
- e) Elikadura, ekonomia eta kontsumo alternatibak sustatzea.
- f) Herritarren elkartasunerako jardunbideak sustatzea: zaintza sareak edota denbora-bankuei buruzkoak.
- g) Osasun publikoa babestea: bizi-ohitura osasungarrien hobekuntza eta osasunerako hezkuntza sustatzeari buruzkoak, bai lurraldean eta komunitateekin jardunez, bai ingurune eta politika osasungarriak sustatuz.
- h) Kirola sustatzea: balio pertsonalen eta sozialen garapenari eta aisialdiaren okupazioari lotutakoak, gizarte-kohesiorako, komunitate-garapenerako eta balio zibiko-sozialen sustapenerako tresna gisa.
- i) Kultura sustatzea: kultura-sorkuntza bultzatzeari eta hiriko kultura-proiektuak eta esperimenezko eta sormen artistikoko proiektuak garatzeari buruzkoak, kultura-jaialdiak, jaiak eta kultura-ekimenak garatzeari buruzkoak, hurbileko kultura-eredu bat garatzeari buruzkoak eta herritarrek kulturarako sarbidea izateari buruzkoak.
- j) Balio demokratikoak, giza eskubideak, kulturartekotasuna, justizia soziala eta berdintasuna sustatzea eta genero-indarkeriaren eta LGTBIQ+ fobiaren aurkako borroka egitea.
- k) Euskararen biziberritzearen aldeko lana egitea.
- l) Tokiko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegarritasuna, gizarteratzea eta laneratzea bultzatuz.
- m) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.
- n) Herritarrei edo beren ezaugarri bereziengatik gizarte-bazterkeriako ingurune aurreikusgarrietan dauden taldeei eragiten dieten gizarte-arriskuko egoeren prebentzioa eta gizarte- eta laguntza-ongizatearen sustapena.



- o) Politika publikoak hobetzea eta herritarren eskaeretara egokitzea.
- p) Alfabetizazio digitala edo arrakala digitala murriztea helburu duten jarduerak.
- q) Udal eskumenekoa den eta zerrenda honetan aipatu ez den beste arloren bateko jarduerak.

91. artikulua. Elkarlan publiko-soziala bideratzeko tresnak

1.- Indarrean dagoen araudian aurreikusitako tresnetatik edozeinen bidez eta horren arabera artikulatu ahal izango da lankidetza publiko-soziala, erregelamendu honetan xedatutakoaren aurka ez doan bitartean; baina, bereziki, ondorengo tresnak zehaztu dira lankidetza hau gauzatzeko:

1.1.- Esparru juridikoa ezartzeko tresna konbentzionalak:

- a) Tolosako Udalak irabazi asmorik gabeko herritar-erakunde eta -kolektiboekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, lankidetza publiko-sozialaren esparruan interes komuneko helburu eta jarduera bateratuak garatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta aplikatu beharreko udal-xedapenetan ezarritakoaren arabera.
- b) Lankidetza publiko-sozialaren esparruan sinatzen diren hitzarmenek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko dituzte.

1.2.- Sustapen-tresnak:

- a) Tolosako Udalak dirulaguntzak eman ahal izango ditu dirulaguntzei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, betiere Kontratuen Legearen xede ez badira eta onura publikoko edo gizarte-intereseko helburuak lortzen laguntzen badute.
- b) Era berean, udalak zerga-onurak ezarri ahal izango ditu, edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak baimentzen dituen salbuespenak, murrizketak, hobariak edo kenkariak erabaki.
- c) Tolosako Udalak elkarlan publiko-sozialeko jardueran izango duen parte-hartze ekonomikoa artikulatu ahal izango du, udal-aurrekontuetan behar bezala kontsignatzea eskatuko duten hornidurak eta/edo zerbitzuak emanez edo obrak eginez.



1.3.- Ondarea kudeatzeko tresnak:

a) Tolosako Udalak bere ondasun higigarri edo higiezinen erabilera baimendu edo laga ahal izango die irabazi-asmorik gabeko herritarrei elkarlan publiko-sozialeko jarduerak garatzeko, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan eta ondarearen arloan indarrean dagoen gainerako legerian aurreikusitakoaren arabera.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0006-2022-05-26 Ohiko Osoko bilkura akta/2022-05-26 Ohiko Osoko